



GONZALO AZUMENDI

Itoitz Armendariz, Pirenan

Bosgarren postuan bukatu nahi du; gaurko etapa erabakigarria izango da | 29

Kintada eguna bihar, Eskoriatzan, Santa Agedaren bueltan | 24



Zubillagako hiltegia berri egingo dute zerbitzua hobetzeko | 20



'La Bohème' opera egongo da martxoaren Tean Arrasaten | 30

Auto gorria Aramaiorako errepidean laban egin ostean, ezin aurrera eginda.

Errepideetan eragin du batik bat elurrak

Iragarri baino elur gehiago egin zuen atzo eta istripu larriarik egon ez bazen ere, auto bat baino gehiago irten zen errepidetik. Gaurtik domekara hotza izango da protagonista | 2



ANDER MONEDRO

"Bertsoetatik bakarrik ez dut uste inor bizi izan denik"

Iñaki Murua
Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen lehendakaria | 8



Aramaioko landa garapenerako eredua Arabara zabalduko dute

Zuiako koadrilan ezagutzera emango dute, gero aplika dezaten | 26

SINADURAK

	ANDONI URTZELAI 6
	20 ARGITXU PEROSTERENA
	KATALIN ANTIXIA 23
	25 KONTXI LASKURAIN
	AGURNE BARRUSO 40

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6 | ELKARRIZKETA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 28 | KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 37 | ESKELAK 37 | NON-ZER 38

Consultorio Ginecológico Miramón

Consultorio Ginecológico Miramón, EDERSALUD zentro mediko berrira aldatu da, helbide honetara:

Nafarroa etorbidea, 4
Arrasate
Tel.: 943 79 20 18

edersalud
ZENTRO MEDIKOA

- Ginekologia
- Kirurgia orokorra
- Mamografiak
- Análisi klinikoak
- Dentsitometria
- Fisioterapia
- Nutrizioa



Elgetan, errepidean. | IBAN ARANTZABAL



Aramaioko Udala, makinarekin elurra kentzen. | TXOMIN MADINA



Aretxabaletan, kalean. | MIRARI ALTUBE



Autoa ez aurrera, ez atzera geratu zen. | TXOMIN MADINA



Arantzazu, zuri-zuri atzo. | IÑAKI BERISTAIN



Aramaioko plaza, elurtuta. | TXOMIN MADINA



Haizea

Batez ere errepideetan igarri da neguko lehen elurra

- ▶ Leintz Gatzaga itxita egon zen eguerdia ezker
- ▶ Errepideetan elurra kentzeko makinak ibili ziren
- ▶ Klean, egoera kontrolpean izan zuten udaltzainek

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE
Oraingo neguko lehenengo elurrak bereziki errepideetan utzi zituen arazoak atzo, eguena; kalean, ez zen aipatzeko moduko gorabeherarik izan.

Kezkatuta zegoen Debagoiena bezperan dagoeneko, Siberiako hotzaren eta denboralearen alertarekin. Eta alertak, oraingoan,

bete-betean igarri zuen, lehen ordutik jardun zuen-eta elurrak eguenean. Goizean xume jardun zuen; arratsaldean, mardulago.

Goizean barrena, batez ere Debagoien goialdean –Leintz Gatzagan eta Elgetan– eta Leintz bailaran izan ziren elur ekaitz txoak; Bergara eta Oñati aldea lasaiago zegoen.

Leintz Gatzaga (456 m) itxita zegoen ibilgailuendako eguerdi parterako.

Elgetan (472 m), goiz osoan bota eta bota ibili zen, baina udal langileek ez zioten utzi elurrari errepidea zuritzen, eta garbi eduki zuten. Bergarako errepidetik Elgetara joan zitezkeen ibilgailuak; hori bai, kontuz.

Kurtzeta ere zabalik egon zen, elurra gogoz egin arren.

Elorregitik Aramaiora arteko bailaran, errepideetan trabak sortu ziren: hala, 13:00ak inguru, auto-ilarak zeuden, kateak behar zituzten arazo barik gidatzeko eta ezbehar txikiak edo eragozpenak sortu ziren: auto eta kamioi banak, esaterako, arazoak izan zituzten; ibilgailuren bat ez atzera, ez aurrera geratu da.

Olandixoko tunela hartu eta Leintz Gatzagara bidean jarrita, Eskoriatza irteeran errepidea zuri zegoen berriz ere. Dena den, zirkulazioan ez da aparteko arazorik egon, bsteak beste elurra kentzeko makinek egindako lana-ri esker.

AP-1 autobidea hartu zuen ohi baino gidari gehiagok. Autobidea garbi eduki zuen Bidegik, eta Debagoieneko sarrera-irteerak ere garbi zeuden.

Araba aldeko sarrera-irteerak, ordea, berandu garbitu zituzten, eta horrek arazoak eta haserrea piztu zituen zenbait gidariren-gan.

Arantzazun izotza

Herrietan, egoera askoz domeinagarriagoa zen. Arratsaldeko lehen ordura arte behintzat, nobedade eza zen albiste.

Elurraren aurkako protokoloa martxan zuten herri gehienek bezperan, eguazten iluntzean. Eguenean, zorionez, gorabehera gutxi egon zen, goiz partean gutxienez, eta udal brigadek larrialdien zain bai, baina lasai eman zuten goiza.

Lehen orduetan, gaueko hotzaren ondorioz, izotza zegoen auzo batzuetan, eta arrisku-tarteak sortu ziren. Adibidez, Arantza-

zuko azken zatian, goranzkoan, tarte bat gaizki zegoen, oso izoztuta, eta han jardun behar izan zuten udaltzainek.

Protokoloak oso antzekoak dira herri guztietarako. Bergarako udal langileak eguazten arratsaldean batzartu ziren pro-

ALFONSO MOTE
ARRASATE



"Nik oso pozik hartu dut elurra. Bazen ordua... Semearen soldaduskako botak jantzi ditut. Lehen, oraingo aldean, elur gehiago egiten zuen, duda barik".

AGUSTIN ETXEBARRIA
ARRASATE



"Hotza ez dut gustuko, baina elurra bai. Astelehenean Errusiara noa lan kontuengatik, eta ondo datorkit oraingo tenperatura hara ohitzeko".

JOXE MURGIA
ARRASATE



"Lehen baino askoz elur gutxiago egiten du orain eta hobeto gertatuta gaude hotzari aurre egiteko. Hala ere, orain auto gehiago dabil".



Gaztainuzketa horrelaxe zegoen atzo. | TXOMIN MADINA



Goiena telebistak ere eguraldiaren berri eman zuen. | MIREIA BIKUÑA



Kurtzeta ez zuten itxi. | TXOMIN MADINA



Oladela elurtuak Leintz Gatzagan. | TXOMIN MADINA



San Andres ingurua, atzo arratsaldeko lehen orduan. | UBANE MADERA



Urbiaren ikuspegi ederra, aste bukaeran. | OIER ALIAGA



Gaztetxoak ederto ibili ziren elkarri elur-bolak botatzen. | UBANE MADERA

tokoloa aktibatzen. Eguenean, eskura zituzten baliabide guztiak; nagusiki, ibilgailu bereziak eta 30 tona gatz, elurraren aurkako arma gisa. Makina hondeatzaileak eskatzeko aukera ere zabalik zegoen. Azkenean, ordea, egoera lasaia zen: Iñaki San Jose udal

langileak esan zigunez, "aldapatan gatz botatzen" ibili ziren lehen orduan, baina "bazterrek nahiko garbi" topatu zituzten gainerakoan.

Gomendio eta eskaera batzuk ere izan zituen: "Jendeak ardura har dezala; izan ere, oso gutxi daramatzate autoan kateak, elurra egiten duenerako; eta, askotan, gidariei autoarekin laguntzea tokatzen zaigu". Bestalde, "nork bere etxe-ataria eta garajeko sarrera garbitzea" ere eskatzen du udal langileak.

Hala ere, mota horretako deirik ere ez zuten jaso egun goizean; elurrarekin lotutako dei bat bera ere ez zuten jaso.

Arrasateko udaltzainak ere "trankil" ibili ziren: auzoak patruilatzen ibili ziren, eta eguerdian Udalara jo zuten.

Oñatin, baserritarrek hartzeko gatz zuten udaletxean; baserri bakoitzeko gehienez bi zaku. Baserritar pare bat joan ziren gatz bila; baina "auzoetan ere, arazorik ez" zela egon esan zuen Udaltzaingoak.

Arratsaldeko lehen orduan, Zubillagan automobil batek arazoak izan zituen, errepidetik irten zen-eta. Udaltzainak segituan joan ziren hara. Gorabehera horrek ez zuen zirkulazioan arazorik sortu.

Bestela, Oñatiko kaleak eta espaloiak garbitzen ibili ziren brigadakoak.

Aretxabaletan ere, protokoloa aktibo egon zen egun osoan, baina, zorionez, lan txikia eman zien eguraldiak udaltzainei: "Sei lagun gaude protokoloarekin lanean; elurra kentzeko makina dugu eta patruilak eginda daude. Baina deirik ez dugu jaso", kontatzen

zuen Martin Garai udaltzain buruak atzo eguerdian.

Aretxabaletak ez du aldapa handirik, eta prebentzio lanetan ibili ziren, auzoetako errepideetan gatz botatzen. Kalean, elur biguna ziharduen, kentzeko samurrena, hain zuzen.

Batez ere, hotza

Gaurko, egubakoitza, hotzaren-gatik alerta laranja piztu zuen atzo Meteorologiako Zuzendaritzak; elurrarengatik aparteko oharrik ez zegoen, alerta horia (txikia) izan ezik, 10:00ak arte. Biharko, zapatua, eta etzirako,

domeka, izotzaren-gatik eta muturreko hotzaren-gatik alerta larriak dirau (eguneko informazioa da). Informazio gehiago, hemen: www.euskalmet.net.



Neguko Aterpean, zazpi lagun

Kalean bizi direnendako, neguko aterpea dago Arrasaten. Azaroaren 1etik martxoaren 31ra arte egoten da zabalik, 19:00etatik 09:00etara, baina egun osoan, 3°C azpiko temperatura egiten badu. Dena dela, egunotako elurra eta hotzak ez dute, oraingoz, eraginik izan: 16 lagunendako lekua dauka, eta atzo zazpi zeuden han, eta denbora bat zeroatenak, Arrasateko Udaleko gizarte hezitzaile Ane Gorosabelek dioskunez.

Iaz, negu osoan 22 erabiltzaile izan zituen, bost emakumezkoak eta 17 gizonezkoak, 21 eta 57 urte bitartekoak. Pertsona gehien urtaril bukaeran izan zituen: 12.

Aurten, orain arte 26 lagun pasa dira aterpetik.

Ohea, garbitasuna eta gosaria eskaintzen du aterpeak.

Hotz handia egiten badu...

BABESTU

Bereziki babestu eskuak eta burua, eta ahoa estali arnasa hartzean aire hotzegia ez arnasteko.

BEROTU

Ez berotu etxe osoa; hobe da gelak ixtea eta soilik behar den lekuetan jartzea berogailua. Baina kontuz sutontzi edo estufekin.

HIPOTERMIA

Norbait larri hoztuta geratu bada, laguntza iritsi arte, saiatu biktima berotzen, baina ez bat-batean, baizik apurka; hotzen dituen zatiak leun-leun mugiarazi, masajeak eman, izozte-sintoma garbirik ez badauka behintzat; ez eman inoiz alkoholik edateko; eta babak baldin badauzka, ez ziztatu.

AUTOA GERATUZ GERO

Geratu barruan, motorra eta berogailua piztuta, eta berriztatu airea tarteka. Saiatu loak ez hartzen.

PELLO ZABALA | METEOROLOGOA

"Gauza bat da segurua: hotz handia egingo du, eta elur gutxi"

Oraingo moduko egoeretan, "iragartzea oso zaila" dela esaten digu Pello Zabalak.

Zelan datorkigu asteburua? Erpineko egoeretan, nahikoa da aldaketa txiki bat sentsazioak erabat aldatzeko. Orain elurra-eta daukagu, baina haizearekin, lainoak desagertzen badira, eguzkia ikusiko dugu eta zerbait urtzen hasiko da, baina, gau garbiarekin, goizean izotza legoke...

Eta eguzki barik?

Zerua triste ikusten badugu eta giroa umela bada, hotz sentsazio handiagoa dugu, nahiz eta hotz txikiagoa egin.

Ze auresan daiteke?

Ezin da zehatz iragarri; baina ziurra da hotz handia eta elur gutxi egingo duela. Elur sikua izango litzateke arazoa, hori itsatsita gelditzen da-eta. Baina zeruak argitzen badira -eta badirudi horrela izango dela gure inguruan- gau garbia eta izutzeko moduko

minimoak izango ditugu: -16°C, -12°C...

Eta minimo horiek, non?

Edozein tokitan. Minimo historikoa, Gasteizen, -20,8°C-koa da, 1971n; eta Arantzazun, -14°C, 1985en. Bihar goizean, -15°C espero da Aizkorri mailan.

Nolako da hotz siberiarra, bada?

Hotz fuertea da: Europa iparraldeko antizikloi fuertea sortzen denean etortzen da. Hotza Ipar Polotik, Erru-

siatik, Poloniatik eta Alemaniatik pasatzen da hona etorri aurretik, eta hango hotza ekartzen digu. Zeru garbiarekin, behealdean pilatzen da; lainotuta baldin badago, -5°C inguru egin dezake, baina giro umelarekin. Txikieria horiek asko aldatzen dute eguraldia.

Izotzarekin kontuz, hortaz!

Bai. Izotz beltza egin dezake; hori da 0°C azpitik egiten duenean, baina lainotuta dagoenean. Orduan, ez du ihintza egiten, eta estratak garden egoten dira.



Pello Zabala.



Julia Monge. | IRATI GOITIA

Julia Monge Gorripideako kidea "Eredu sozial eta ekonomikoa eraldatzea sustatu nahi dugu"

I.G./M.B. | ARRASATE

Ze hebururekin sortu da Gorripidea?

Zutik desegin egin da eta Gorripidea, erakunde independente moduan, Euskal Herriko eremuan sortu da, gaur egungo eredu ekonomiko eta sozialaren eraldaketa erradikala sustatzeko helburuarekin.

Nortzuek osatzen duzue Gorripidea?

Lehenago Zutik-en geunden kideak pasatu gara Gorripideara, baina ez guztiak. Arrasaten, esaterako, gehienok gaude, ia jende bera. Bizkaian jende gazteagoa eta gehiago ikusten da.

Zuen ildo nagusiak zein dira?

Ez dira asko aldatuko Zutik-ekoetatik. Euskal Herrian espazio politiko berria sortu da; gu beti gizarte mugimenduetan egon garenez, hori testuinguru horretan nola uztartu lantzen dihardugu; feminismoa, internazionalismoa, ekologismoa, subiranotasuna...

Oinarriak finkatu dituzue?

Aurreko zapatuan egindako lehenengo batzarrean, nola funtzionatuko dugun erabaki genuen. Horrekin batera, euskal ezkeraren gainean ere eztabaidatu genuen; hain justu, non kokatuko garen da aurreantzean landuko duguna.

Zer ezberdineskainiko du Gorripideak?

Eremu sozialetan gogor egitea eta beste alderdi batzuekin aliantzak egitea. Alderdi txikia izan arren, bai ikusten dugu gauden krisiaren aurrean irteera bakarria dela euskal ezkerre batzea.

Hauteskundeetan egongo zarete?

Oraingoz, ez dugu halakorik eztabaidatu. Zutik talde txikia izanda ere, instituzio lokalean bakarrik izan du ordezkari, eta pentsatzen dugu oraingoz ez daukagula instituzioetan egoteko energia hori.

Auzo Lagunek 15.000 menu egiten ditu egunero Arrasaten

Menu bereziak ere prestatzen dituzte arreta behar duten ikasleendako (zeliakoak, alergikoak...)

MONIKA BELASTEGI | ARRASATE

Arrasateko Auzo Lagun enpresan ate irekiak egin zituzten atzo, eguna. Instalazioak erakutsi eta zela lan egiten duten azaldu zuten hango langileek: non sukaldatzen duten, nola bildu eta gordetzen duten janaria...

Euren ardura nagusia kalitatea bermatzea da, eta horretarako, kontrol zorrotzak eta etengabeak pasa behar dituztela azaldu zuten.

Menuak lantzeko dietistak

Horrekin batera datu deigarria ere jakinarazi zuten: gaur egun Arrasatetik 15.000 menu inguru irteten dira egunero eta Euskadiko kolektibitateetako (Ausolan) sukaldaritza enpresen artean, berriz, 145.000 menu egiten dituzte egunero.

Hori guztia, gainera, adituen gidaritzapean lantzen dute, 67 dietistak osatutako lan-taldea dute-eta menuak sanoak, orekatuak eta era askotarikoak direla ziurtatzeko.



Auzo Laguneko langilea Arrasateko lantokian. | MIRIAN BITERI



Menuak gertu, paketatuta. | M.B.

Hiruhiletik behin menuen egutegia antolatzen dute, berdurak, legaminak, okela-giharrak, arrain freskoa, aurrez sukaldatu bako arrainak, fruta freskoak, eta araudiek ezarritako esnekiak oinarri hartuta. Eta arreta behar duten ikasleendako (zeliakoak...), menu bereziak prestatzen dituzte.

DATUA

4810

MENU BEREZI

Arreta behar duten ikasleendako 4.810 menu prestatzen dituzte egunero

Lankidetzaren sendotzeko hitzarmena sinatu dute MUK eta IK4-Ikerlan zentroak

Helburua da teknologia zentroko ikertzaileek doktore tesia MUK egitea

M.B. | BERGARA

Astelehenean, bi erakunde arteko lankidetzaren estrategia sendotzeko hitzarmena sinatu zuten Vicente Atxa MUKo Goi Eskola Politeknikoko zuzendariak eta Javier Mendigutxia IK4-Ikerlaneko zuzendariak.

Hitzarmenaren helburua zehatza da IK4-Ikerlaneko ikertzaileek euren doktore-tesiak Mondragon Unibertsitatean egitea, unibertsitateko ikertzaileek lagunduta.

Doktore kopurua handitzea

2015erako onartu berri den Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren arabera, EAEko lehiakortasunerako ardatz nagusietako bat goi-mailako prestakuntza indartzea da, eta zehazkiago, doktore kopurua handitzea. Ildo horretan, 2015erako, graduatu berrien %1,4 doktore izatea proposatzen da. Hala, gaur egungo kopurua %50 handituko litzateke. Bestalde, doktore horietako asko enpresan txertatzea ere lortu nahi du Planak, euskal enpresek lehiakortasunean irabaz dezaten.

Bide horretan eta bi erakunde elkarlanaren baitan sei



Vicente Atxa eta Javier Mendigutxia astelehenean. | IRATI GOITIA

doktore-tesi defenditu dira, dagoneko, eta beste 12 bidean daude.

Eta gaur egun I+Gren arloan bi erakunde arteko lankidetzaren komunikazioetara eta elektronikara mugatzen bada ere, hitzarmenak beste eremu batzuk aurreikusten ditu, hala nola, akustika eta bibrazioak, infomazio-sistemak, energia elektrikoa, etekin handiko mekanizazioa eta gainazalen teknologiak, beste batzuen artean.

"Aurrerapausoa da"

Vicente Atxa MUKo Goi Eskola Politeknikoko zuzendariak sinatze-ekitaldian esan duenez, hitzarmena "aurrerapauso bat da bi erakunde arteko lankidetzaren estrategia horren helburua "gure enpresei zerbitzu hobea ematea" dela ere azpimarratu du. Javier Mendigutxia IK4-Ikerlaneko zuzendariak esan du hitzarmenak IK4-Ikerlanen "egungo industria produktio maila hobetzen" lagunduko diela.

Etxeko ospitalizazioaz berba egingo dute Oñatin hilaren 7an

Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuak proiektu berria jarri du martxan herri-tarren gaixotasunen, tratamenduen eta bizitza estilo osasungarrien inguruan informazioa zabaltzeko: *Osasun ikasgelak*. Lehen osasun ikasgela Julio Sandoval doktoreak egingo du, Etxeko Ospitalizazio Zerbitzuaren gainean. Oñatin izango da, hilaren 7an, 19:00etan, kultura etxean. Etxeko ospitalizazioa zer den eta haren abantailak azalduko ditu, besteak beste.

Ezker abertzaleak dio "alarma handia" sortu dutela "desfaseek"

Gipuzkoako ezker abertzaleak "egun hauetan agertu diren Bidegiren desfaseek eta zulo beltzak alarma handia" sortu dutela esan du asteon, Bidegiren izezko kudeaketa txarraren inguruan egindako agerraldian. Era berean, "Gipuzkoa berri baterantz jarduteko deialdia" egin du eta EAJ jo du Gipuzkoan, "herriz herri, eta Diputazioetan izan den xahuketa urteen" erantzule. Bihar Donostian azpiegitura handien aurka egingo den manifestazioarako dei ere egin du.

Gurean ere dei egin dute azpiegitura handien kontrako manifestaziorako

Bihar izango da, Donostian, eta 17:30ean abiatuko da Bulebarretik

J.I./M.B. | ARRASATE

Bailarako zenbait taldek bat egin dute azpiegitura handien kontra bihar, zapatua, Donostian egingo den manifestazioarekin.

Deitzaileen artean daude Jaizkibelgo superportuaren, errausketaren eta Abiadura Handiko Trenaren kontrako Gipuzkoako hainbat eragile eta EHNE sindikatua. Izan ere, "proiektu txiki-tzaileen aurka dihardugun talde eta herri mugimenduek bat egin, eta dugun gizarte ereduaren aurka borroka bateratzeko ordua da", diote. Hori horrela, manifestazioa deitu dute biharko, Donostian, eta 17:30ean abiatuko da Bulebarretik.

Protestarekin bat egin dute, baita ere, Gipuzkoako beste hainbat talde, sindikatu eta alderdik. Adibidez, Debagoieneko herritarrei manifestaziorako dei egiteko agerraldian izan ziren Oñati Zero Zabor taldeko, Aramaioko AHT Gelditu! Elkarlaneko, LAB sindikatuko eta Baserritarren Mugimenduko ordezkariak.

Kalean dagoen eztabaida

Arrasaten egindako agerraldian azaldu zuten, "kalean berriz



Arrasateko Kulturaren egin diete dei debagoiendarrei. | JULEN IRIDONDO

piztu da azpiegitura handien gaineko eztabaida". Eta bizi den krisi garaiarekin ere lotu zuten: "Murrizketak ikusten dira osasun arloan, hezkuntzan, kulturaren, zerbitzu publikoen arloan... hau da, egunero behar ditugun zerbitzuetan. Eta berez, inorendako ez diren proiektu handi hauetan milioiak eta milioiak inbertitzen dira".

Eta hau gehitu zuten: "Aren gehiago, ikusten ari garenean

halako obrak bukatu dituzten lekuetan ezin direla martxan ipini, ez dagoelako dirurik mantenua egiteko. Hortaz, zertan ari gara, nor engainatzen ari gara? Nora goaz eredu honekin?", galdetu zuten.

Horren harira, "herritarrei benetako informazioa emateko garaia iritsi" dela azpimarratu zuten, eta baita "etorkizunean nahi dugun gizarte ereduaz" zabal eztabaidatzekoa ere.

3.287 langaberekin hasi dugu urtea Debagoiengan

Arrasatek, Bergarak eta Eskoriatzak %11tik gorako langabezia tasa dute, ibarreko altuena

M.B. | ARRASATE

Langabeziak gorako bidean jarraitzen du urtarrilean ere. 3.287 langaberekin bukatu dugu urtarrila, aurreko hilean, abenduan, baino 241 gehiagorekin, hain justu ere, Lanbidek emandako datuen arabera.

Langabezia tasa handiena duen herria Arrasate da. 1.368 langaberekin %11,82ko tasa du. Harekin batera, Eskoriatzak eta Bergarak gaintzen dute %11ko tasa. Ohi bezala, tasarik baxuena Leintz Gatzagan dago, %6,11koa, 9 langaberekin, hain justu ere. Aurreko hilabetearekin alderatuta, Antzuolan 7 langabe gehiago daude; Aretxabaletan, 21; Arrasaten, 52; Bergaran, 34; Elgetan, 3; Eskoriatzan, 20; eta Leintz Gatzagan, 1.

Joera orokorra

Langabeziaren gorakada orokorra izan da. Gipuzkoako datuei erreparatu gero, abenduan baino 2.857 langabe gehiagorekin bukatu da urtarrila. Hori horrela, Gipuzkoako langabeen kopurua 43.987 da. Duela urtebeteko datuekin alderatu gero, 2.515 langabe

gehiago daude orain Gipuzkoan.

Lanbidek emandako datuen arabera, EAEn 155.867 langabe daude une honetan, duela urtebete baino 12.749 langabe gehiago.

Bizkaiari dagokionez, 87.663 langabe ditu. Horietatik, 5.767 dira urtarrilekoak. Arabari dagokionez, 24.217 langabe ditu, azkeneko hilabetean 1.849 langabe gehiago gehitu zaizkiolako.

HERRIZ HERRI

HERRIA	LANGABEAK	EHUNEKOA
Antzuola	92	%10,11
Aretxabaleta	301	%9,33
Arrasate	1.368	%11,82
Bergara	791	%11,02
Elgeta	46	%9,35
Eskoriatza	239	%11,50
Leintz Gatzaga	9	%6,11
Oñati	441	%8,16
GUZTIRA	3.287	%10,61

*Espainiako Enplegu Zerbitzu Publikoa

Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5
T: 943 76 10 81

JUAN ANTONIO SIERRA

BERGARA / Irizar 2
T: 943 76 03 35

BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
T: 943 79 98 86
F: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5
T: 943 76 10 81

ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)

ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.
T: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

AHOLKULARITZAK

AIERDI AHOLKULARITZA

BERGARA / Artekale 1
T: 943 76 03 50

ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
T/F: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK

ARRASATE / Otarora Lizentziaduna 4
T: 943 71 25 49
F: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

TBG AHOLKULARITZA

BERGARA / Matxiategi 36
T: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK

ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
T: 943 71 21 12
F: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK

ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

ARKITEKTO TEKNIKOAK

JESUS LASKURAIN PEREZ

BERGARA / Zurradero 4
T: 943 76 53 53

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Otarora 16, solairuartea esk.
T: 943 79 51 25
F: 943 71 19 85
uribesalgo@telefonica.net

PROKURADOREAK

JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA

DONOSTIA / Easo 57-3 esk.
T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

ZABALIK

ANDONI URZELAI
http://goiena.net/iritzia/



Heriotza

Hilko garela jakitea da bizitzako gauza seguru bakarra. Eta hala ere, harrigarria da zein gutxi pentsatu eta hitz egiten dugun heriotzaz.

Inguruan norbait hiltzen denean ere, harriduraz hartzen dugu gertakizuna: ezezpionala balitz bezala, istripu ulertezin bat, zorigaitzeko patuaren gaitakeria. "Jesus, hain zen gaztea!", esaten dugu. Edo: "Nork esango zuen ba orain hilko zenik, atzo bertan hitz egin nian berarekin eta!". Zorte txarra ere bada, ba, holakorik!

Eta harrigarria da, bai, ezen hiltzea munduko gauzarik arrunt eta ziurrena baita. Atzean daukagu herioren hatsa, aldamenean, uneoro.

Egia horrekin bizitzen ikasi beharko genuke beste edozeren gainetik. Hitza, kontzeptua, xehatu, jan eta digeritu. Horretarako ere balio behar bailuke bizitzak: hiltzen ikasteko.

Eta hiltzen ikastea heriotzari beldurra galtzea da: zergatik beldurtu nahitaez gertatuko zaigun gauza bategatik?

Behin gertatzen den gauza bat ezin da horren izugarria izan. Hil ondorengo existentziarik eza arbuizatzea jaio aurretiko existentziarik eza faltan botatzea bezain absurdoa da.

Zentzu horretan, igualtsua da gazte edo zahar hiltzea, kontua nola bizi garen da, eta irudipena daukat heriotzaren ideia barneratua duena beste inor baino libreago bizi dela, kontzientzago bizi duela bere bizitza, hain zuzen.

Erligioek mitifikatu eta kriminalizatu egin dute heriotza, haien mesederako, noski, borondate uzkurrek erruz betetzen baitituzte elizak.

Sufrimendua izan liteke danteskoa, ez heriotza bera. Ni gaur, akaso. Eta zu, bihar. Edo etzi. Baina, zalantzarik gabe, biok hilko gara gaur, bihar edo etzi.

Ikas dezagun ziurtasun horren arabera bizitzen, heriotzaren ziurtasunak ematen baitio balio eta zentzua bizitzari.

"Igualtsua da gazte edo zahar hiltzea, kontua nola bizi garen da"

USTEAK USTE

IBAN ARANTZABAL | iarantzabal@goiena.com

Berdin da zer: murriztu!

Euskarazko hedabideok puzzle handi eta konplikatu baten parte txiki bat baino ez gara. Egoera ekonomikoak narrastu ditu inguruak eta gutxien dutenen beharrak daude agerikoago. Gertuko erakundeek ere zintzo lagundu beharko dituzte babesa behar dutenak. Topaguneakoak, Argia-koak, Berriakoak... lan-giro onean dihardugu elkartzeko publikitate batera landu, hedabideon zeregina eta euskara bera prestigioatu, sinergiak detektatu... eta erakundeen dirulaguntzak handitu beharrez ere badihardugu. Politikariak behar ditugu erabaki hauek hartzeko, ordea, eta... kudeatzaile huts moduan jokatzeko tentazioarekin ikusten ditut nik askotxo inguruan.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | http://goiena.net/iritzia/



HANDIK ETA HEMENDIK

ETB-L-2

Eramun Turutarena
http://goiena.net/blogak/turutene/

ETB1 hirugarren katean dugu etxean eta ETB2 laugarrenean. Urrutiko kontrolaren gainean 2 zentrimetroko hegaldia eskatzen dio atzamar lodiari ETB1etik ETB2rako aldaketak, eta berdin alderantziz. Bi zentrimetro hauek guztiz hermetizatutako bi mundu banatzen dituzte dimetsio linguistikoan: euskarazkoa eta gaztelarazkoa.

Euskal Telebista "euskara normalizatze" [sic] helburuarekin sortu zen, 1982ko abenduaren 31ean. Beharrezkoa euskara hutsezko oasia gaztelarazko desertuan.

Gero, 1986an, ETB2 etorri zen bestelako helburu batzuekin. Xabier Arzalluzek dio Madrilek ez zuela nahi gaztelaniako katerik Jaurilaritzaren eskutan, ETB2 garaiko Eusko Jaurilaritzaren garaipen bat izan zela.

Garaipen politikoa esango nuke nik, ez bestelakoa. [...]

Eta galdetzen dut zergatik ez den ETB2-ko *prime-time*-a euskara normalizatze helburuarekin erabiltzen.

Zergatik ez diren ETB2-rako saio elebidunak

produzitzen.

Zergatik euskal irrati telebistan ez diren zuzenean euskaraz egindako galderak gaztelaraz erantzuten edo alderantziz.

Zergatik ez dugun ETB2 esperimentazio elebidunerako erabiltzen.

Zergatik ez dugun ETB2 ETB-L-2 bilakatzen.

Hori galdetzen diot nire buruari.

Susta dezagun euskaraaaahh!

Jon Torner
http://argia.com/erredakzio-mahaia/

Ze demontre da hau?

Euskararen erabilera sustatzea omen du xede bideo bero honek. Leizaola fundazioak egin du. Edonor plazerez urtzeko modukoa... Puf, bideoak gustu txarreko hainbeste txiste merke egiteko aukera ematen du, eta oso zaila da tentazioari eustea. Berritri diot, badaezpada ere: bideoan ageri diren bi film laburrek (*Mendekua* eta *Euskaltegi bitxia* izenekoek) "euskararen erabilera sustatzea" dute helburu, euskarra aisialdirako ere

baliagarria dela erakustea. [Bideoa agertzen da sarean]

"*El Correo* egunkariak gure aurkako kanpaina antolatu du gure lana izorratzeko helburuarekin", irakurri dugu Leizaolaren Facebook-eko horman eta Twitterren.

Egia da *El Correo* eman duela bideoaren berri [Lotura agertzen da sarean], eta albisteak berak eta internauten zenbait erantzunek min eman dezaketela -euskararen inguruan mintzo diren tonuagatik-, baina ez dugu uste lotsatu beharrek, kasu honetan bederen, *El Correo* denik.

Leizaolak *YouTubeko kanaletik* kendu ditu bi bideoak, baina ziur naiz blog serio honen irakurle fidelek eskertuko didatela perla hau hona ekarri izana. Portzieto, kanpaina diruz lagundu duten Eusko Jaurilaritzako arduradunei ere auskalo zer aurpegi geratu zaien. Lurdes Auzmendi Hizkuntza Politikarako sailburuordeak jada arbuiatu du bideoen edukia. Ez gaitu harritzen. Nork pentsa dezake bideoak euskararen sustapenean lagun dezakeela? Hain irragarria da... Zer diozue zuek?

Hola, hola, Leizaooohlaaahh...

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA

Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Maketazioa Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Zortza Martin, Imanol Elortza.
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Maria Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereizbar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPER ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com

ORDEZKARITZA ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com


Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Legu Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale.
Difusioa: 19.951 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako initzen erantzukizunik.



Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Herri kontsulta atez ate

Aitor Urrutia
Eskoriatza

Makina bat zalaparta ari da sortzen atez ateko zabor bilketa.

Horren aurrean, nire ikuspuntutik zenbait puntu argitu behar lireratekeela uste dut, hala nola:

1-Batzuk, politika orokorragoko helburuekin, atez atekoa eta errauskailuari buruz hartu beharreko erabakia nahasten ari dira, bi gauza ezberdin direnean, bata zabor bilketa mota bat eta bestea birzikla ezin daitekeen errefusaren eliminazio mota bat. Horrek esan nahi du osagarriak ere izan zitezkeela, eta, beraz, kontrajartzeak ez duela zentzurik.

2-Atez atekoa ezarri den udalerrri guztietan zaborraren turismoaren fenomeno gertatzen ari da. Hau da, biltzen den zabor kopurua milaka tonatan, urte batetik bestera, maila nabarmenean jaisten da. Hurbileneko kasuan, Antzuolan, Udalak berak emandako datuen arabera, urtebeteko epean, erdi ingurura murriztu da zabor bilketaren kopurua (hau ere, krisiaren ondorio ote?). Gero, datu hauek, datuak existitzen diren munduko herrialde aurreratuetan ezagutzen ez diren birziklapen mailako beste datu batzuekin makillatuz.

3-Bilketa sistema, kontenedoreetan sailkatua eta automatizatua dugu gaur egun. Atez atekoarekin, zaborrak, kale gorrian, gure etxeetako fatxadetan, edo baita gure atarreen barruan ere, utzi beharko genituzke eta, gainera, langileek eskuz bildu beharko lituzkete. Atzerakada nabarmena suposatzen du honek, atzerakada higienerari dagokionez eta gure herrien garbitasunari dagokionez. Azken finean, bizi kalitatearen galera nabaria da.

4-Benetan pentsatzen dut ez dela komenigarria gure intimitatea inbadituko duen bilketa sistema bat. Zabor poltsa aztertuz, gutariko familia bakoitzaren usadio, ohitura, bizimodua bera, ezagut daiteke. Inork ez du zertan ikusirik bankuko laburpenik. Inork ez du zertan jakinik bazkaltzen edo afaltzen duguna. Inork ez du zertan ezaguturik hartzen ditugun botikak. Inori ez zaio axola gure zabor poltsan adinduen pardelak, konpresak edo preserbatiboak badaude.

Azken finean, hondakinen sorrera saihesteko, erabat bultzatu behar dugu prebentzioa.

GUTUNAK

Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak bame) edo 50 lerro. GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.

Gutuna helarazteko bideak dira: Otalora Lizentziaduna, 20500 Arrasate | papera@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

Bilketa selektiboa, birziklapena eta konpostia.

Baina ezin gara inposaketan erori.

Inposaketa baitago bizimodua zaborraren arabera baldintzatzeko modu horretan.

Horregatik, tribalismo politiko guztien gainetik, gai honek gure gizartean ardura sortzen duelako, nahikoa arrazoi daude herri kontsulta bat eskatzeko atez ateko zabor bilketa mota ezarri aurretik.

Herri kontsulta atez ate!

Debagoien desberdin baten alde

Enrike Letona

(Ezker abertzalearen izenean)
Debagoiena

Gipuzkoa desberdin baten alde gaude, jendarte-eredu desberdina nahi dugulako.

Norabidea aldatzen hasi gara.

Informazioa, eztabaida eta erabakia oinarri izango dituen demokrazia parte-hartzailea bultzatzen ari gara.

Urtetan zehar azpiegitura handien aurka borrokan jardun duten herri-mugimenduek bat eginez, Gipuzkoaren etorkizunaren aldeko dinamika abiarazi dute.

Ezker abertzaleak bere eremu eta eragin guneetatik bat egiten du norabide horretan. Urteetako apartheid politiko instituzionala iraultzeko garaia da.

Gipuzkoarren multzo handi batek hala eskatuta, herrialdeko erakundeak balaztari ematen hasiak dira.

Hor ditugu hondakinen inguruan ireki berri den hausnarketa-epea, Jaizkibelgo Superportuarekiko aurkakotasuna, Abiadura Handiko Trena eraikitzeke erabakia herritarren nahi eta iritziaren gainetik ezarri izana salatzea, eta gure eskualdean Udaltzeko harrobiaren aurkako salaketa behin eta berriz atera da.

Azken urteotan Gipuzkoaren jendartearen

nahiak eta beharrak kontuan hartu gabe diseinaturiko makro-azpiegituren fase-amaieran gaude.

Gipuzkoar guztiei dagozkien erabakiak bulego itxi batean hartzen ziren garaiak pasatu dira.

Diru publikoaren xahuketan oinarritutako eredu ekonomiko jakin hori agortuta dago.

Obra publikoen aurrekontuetan %65 arteko desfaseak onartzen ziren garaiak iragan beltza dira Gipuzkoan.

Politika egiteko modu jakin horren amaieran gaude eta orain amaiera guztiek dakarten hasiera dagokigu marraztea.

Debagoiena osatzen dugun herrion/herritarren neurria eginiko eraldaketak bultzatu behar ditugu.

Tokian tokiko administrazio publikoetatik, herri txiki, ertain eta landa eremuak babestu eta indartu behar ditugu.

Espainia bertebratzeko apustua egiten duen AHT bezalako azpiegituren ordez, eskualdeen eta herrien arteko komunikazio bideak bultzatu behar ditugu.

Jendarte -eta ekonomia-eredua ulertzeko bi modu oso desberdinak jokoan daude: alde batetik, herritarren diru eta baliabideak erabiliz, gutxi batzuen interesak defendatzen dituen eredu eta beste aldetik, baliabide publikoak herritarren behar errealekara bideratzeko gardentasuna eta partaidetza oinarri dituen eredu.

Ezker Abertzalean azken honen alde egiten dugu eta hori da, hain zuzen ere, erakundeetan eta kalean bultzatzen ari garen eredu.

Debagoienaren paisaia irensten hasia den azpiegitura erraldoi horri ezetz oihukatzen diogu, AHTri ezetz! langileen lan baldintza negargarriak tarteko, heriotzak bultzatu dituen azpiegitura horri Ez oihukatzen diogu.

Ez asko oihukatzeraz gatoz.

Baina, bidenabar, baita *bai* erraldoi bat osatzera ere.

Debagoiena osatzen/ bizitzen dugunon *bai* ahots asko entzungo direlako, aurrera begirako Debagoien desberdin baten alde.

Otsailaren 4an, Donostian daukagu deialdia. *Gipuzkoa desberdin baten alde, jendarte eredu aldatu!* lelopean makro-proiektu ereduaren aurka gaudela eta herritarren Gipuzkoa, herritarren Debagoiena eraikitzea posible dela defendatuko dugu.

Amalurrak oihukatzen du, entzuiozu!

Marisol Andrade

Eskoriatza

Hartu behar dugu erabaki bat; Amalurra garrasika dago, entzun besterik ez da egin behar.

"-Lagundu, lagundu!
Kutsatuta dago ene espiritua.

Ezin dut jasan gehiago, ozeano barnean, airean bertan, lur gainean zein azpian.

Zuhaitzak badaude oxigenoa ezin bota, euriari ezin deika".

Gu paperezko mukizapiak euren enborretatik ateratzen gauden bitartean; marrantaz marranta joanda ez gara konturatzen oxigeno garbiaren falta dela kausa.

Hauxe ezjakintasuna!
Bide okerra hartu, natura errespetatu beharrean.

Heldu da garaia, jasanezina baita gizakiok geure zilborra besterik ez ikustea.

Zaborrez beteta dago geure ingurumena, mendi tontorrak zein lur barrena.

Amalurrak aseta dio: "Nahikoa da, jada".

Garrasi dabil behin eta berrero, baina guk patxadaz erantzuten diogu: "Astiro-astiro".

Aski da! Gorra nagusiak, entzuten dugunok eta entzun ez gura.

Ikusten dugunok etaitsuak eman.

Birziklapena zuzena zer den ez jakitea, berrerabil ez egitea eta murrizketaren alde ez jokatzeari.

Zer esanik ez konpostajeaz!

Usain txarrak geure ondoan?

Ongarri bikaina, perfume zatarrak.

Irteera ezin hobea, geure eskuetan edo atarian?

Hor daukagu eztabaida, mahai gainean.

Ez gastatu energia horretan, garrantzitsuena hala edo nola konpromisoa hartzea baita.

Baina oraindik badaude entzun beharrekoak: "Gero gerokoak!".

Ez dakite gero egun bihurtu dela.

Egun, begi-bistan daukaguna; zaborrak leku guztietan.

Amalurra, banoa banoa! Lagunei deika nago.

Espero dudana bakarria eurek berria jaso izana.

Gutxi batzuek ezin zaitugu zaindu.

Guztion lana dela eta.

Kaixo, Markel

Aiert Lizarralde

(Bergarako Equo)
Bergara

Bergarako Equotik garbi utzi nahi dizugu Bergaran, behintzat, ahal dugun guztia egingo dugula errauskailua saihesteko.

Bestalde, zure etxe alboan errauskailu bat jarri nahiko bazenu zu eta zure EAJko taldekideen zaborrarentzako, gure partetik ez litzateke arazorik egongo.

Hori bai, betiere, zure poltsikotik ordainduz gero.

Barkamena eskatuz

Eduarne Muxika

(BAZeko langileen izenean)
Arrasate

Gutun honen bidez BAZeko langileok barkamena eskatu nahi diogu Iñaxio Rodriguez eta haren familiari, urtarrilaren 21ean gertatutakoagatik.

Zuen tramitean giza akats bat izan genuen hilerrikoei jakinarazteko orduan (e-mailez bidali genuen abisua, baina ez genuen lortu telefonoz komunikatzea), eta horren ondorioz gertatu zen gertatu zena.

Beraz, barkamena eskatu nahi dizuegu akats horrek sortutako ondorioengatik.

Hala ere, garbi utzi nahi duguna da BAZeko langileok ardura eta erantzukizun handiz lan egiten dugula, eta batez ere berebiziko arreta jartzen diogula tramite honi.

Sei urte hauetan, hau da, zerbitzua zabaldu zenetik gaur egunera arte, hilerriko 1.536 tramite kudeatu ditugu, eta ez dugu inoiz inolako arazorik izan.

Bukatzeke, eskerrak eman nahi dizkizuegu zuen gutunarengatik, eta aurrerantzean ere kalitatezko zerbitzua emateko konpromisoa hartzen dugu.

Iñaki Murua | Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko lehendakaria

"Etorkizunak esango digu bertsolaritzak ze iturritik edaten duen eta ze aniztasun duen"

Bertsozale Elkartearen lehendakariaren ustez, jendeak eskubidea dauka "nahi duena adierazteko", baina "gure babesleak txistuka tratatzea ez zaigu ondo iruditzen"

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak 25 urte bete ditu. Zapatuan ospatu zuen Bertso Egunean. Liburua eta DVDa ere kaleratu ditu. Elkartean, eta lehengo eta gaurko bertsogintzaz dihardugu elkarteko lehendakariarekin.

Zer moduz joan zen Kursaleko Bertso Eguna?

Bertso Egun luzea izan zen eta primeran pasa genuen. Kursalekoa izan zen jaialdi handia, 1.800 lagun batu ginen bertara, baina eguerditik hasi ginen. Bretxako merkatuan, Konstituzio plazan, Victoria Eugenia, ibili ginen bertsotan. Azken honek 100 urte betetzen ditu aurten eta Kursalera begira aritu ziren bertsolariak.

Zertan aldatu da bertsolaritza azkeneko 25 urteotan?

Ondo egindako galdera da, baina, akaso, errazagoa da galdetzea zertan ez den aldatu. Publikoa eta bertsolaritza behar dira bertsogintzarako. Baina, garrantzikoena den horretaz gain, aldatu, beste guztia aldatu da. Gaurko gaiek eta lehenagokoek ez dute zerikusirik, ezta bertsolarien profiek ere... Nire gusturako, umorea gehiago landu beharra ikusten dut. Bertso potolo, tragiko, transzendental... luze horiek egiten ditugu, bereziki. Jendeak gauzak laburrago edo trinkoagoak eskatzen dituenean, bederatzi puntuko habanerak-eta egiten ibiltzea, ba, ez dakit... Bertso oso sakonak egin daitezke zortzikian ere. Ondo pasatzen dut bertso sakon eta serioekin ere, baina umorea behar da, mota askotakoa izan daiteke, gainera.

Bertsozale Elkarteak?

Hasieran, normala den moduan, gutxiago ginen. Sorreran, Bertsolari Elkarteak zen gurea eta gaur egun Bertsozale Elkarteak da. Uste dut asmatu genuena; izan ere, horrekin, jende gehiago inplikatzeak aukera eskaini baitzen. Horretaz gain, hezkuntza arautuan sartzarekin batera, bertsolaritza gehien gustatzen zaion jendea erakartzeko, bertso eskolara erakartzeko, modua egin da. Estrategikoak dira bertso eskolak eta 300 baino gehiago dira gaur egun. Halere, esan behar dut, egiten den guztia ez dela Bertsozale Elkartetik bakarrik egiten. Lanean, urte askoan, jende asko dabil bertsolaritzaren munduan.

Bizi daiteke bertsolari bat bertsoetatik?

Bertsoetatik bakarrik ez dut uste inoiz eta inor bizi izan denik. Beste alor batzuk ere jorratu behar



Iñaki Murua Arrasaten, oraingo astean. | ENEKO AZKARATE

izan dituzte, bai Amurizak, bai Egañak... Egi-egia esan, uste dut aberatsagoa dela pertsonarendako beste hainbat alorretan ere jardutea.

20.000 ikasle dituzte gaur egun bertso eskolek...

Bai, datu hori ere oso esanguratsua da. Bestalde, aurtengo ikas-

"Gaurko gaiek eta bertsolariek, eta lehenagokoek ez dute zerikusirik"

"Bertsoetatik bakarrik ez dut uste inoiz eta inor bizi izan denik"

turtean ikastolen elkartearekin hitzarmena sinatu dugu eta horrek ere asko laguntzen du. Horrelako erakunde batekin hitzarmena eta elkarlana sustatzea guretako garrantzitsua da. Helburua ez da denok bertsolari izatea eta denak bertsotan jartzea, baizik eta ahoz-kotasuna lantzea, hizkuntzarekin jolas egitea, piztea euskarazko ahoz-kotasunarekiko grina.

Azkeneko egunotan bertsolariek egiten dabilzan ikerketa berezi batek deitu du arreta.

Bertsolariok burua landu egiten dugu, entrenatu egiten dugu, badaukagu abilitatea. Ikertzen dabilza guk egiten dugun entrenamendu horrek zertarako gaitasuna eman diezaiokeen edozein herritarri. Gazteak ikusten ditugu, gizenak, argalak, garaiak, txikiak; gustu, joera eta janzkera ezberdinekoak. Askotarikoak. Hezkuntzara bagoaz, oster, 0 eta 16 urte bitartean denek entrenamendu berdinak egiten dituz-

te. Gehienak, ondo ez dabilzanak bereziki, nazka-nazka eginda daude. Orduan, bertsolaritzak ematen badu entrenamendu mota ezberdina egiteko aukera eta probatzen duenak ondo pasatzen badu, iker dezagun, ea ze entrenamendu mota eta ze balio erantsi emateko tresna sortzen dugun.

"Lehen ere transmisioa amak egiten zuen. Bertsotan ari ziren"

"Estrategikoak dira bertso eskolak eta 300 baino gehiago dira gaur egun"

Jendartea geroago eta igualago, globalago, uniformeago izan ez dadin.

Asier Altunak dio bertsolaritza gaztea eta emakumeena dela.

Bertsolaritzan, emakumezkoek badute bide bat egin gabe, batez ere gizonezkoek egin dutelako, eta gauzak, sentimenduak... adierazteko modua ez delako bera, hiztegia ere ez delako bera, gaiari heltzeko modua ere ez... Berriro jorratu beharra dago. Emakumezkoa da nagusi bertso eskolatan, eskola arteko lehiaketetan... Baina, zer gertatzen da 20 urtetik aurrera? Jendar-tearen rola estutzen gaitu? Lehen ere transmisioa amak egiten zuen. Beraz, bertsotan ere ari ziren ipuinekin-eta.

Zergatik dago modan?

Zinema aretoak husten diren bitartean, bertso saioetan aretoak bete egiten ditugu bertsolariok. Uste dut sormen krisia dagoela. Aretoetara gu ikustera datorrena gauza berria, berriz inoiz ikusiko ez duena, ikustera dator. Hori izan liteke jendea erakartzeko tresna. Herri hau, bestalde, apustuzalea da eta bertso txapelketak-eta erakartzen dute. Halere, egunez eguneko plazak dira mimatu beharrekoak.

Gipuzkoako bertso txapelketako finalean Kutxako ordezkariari jendeak txistu egin izana zela baloratzen duzu?

Pertsonari baino gehiago erakundeari egin zioten txistu. Zortzi babesle izan ditugu eta bati txistu egin izanak min egin dit. Geu joan ginen babes eske, eta haietako bati txistu egin izana mingarria izan zen guretako. Gure gonbidatua zen. Jendeak eskubidea dauka nahi duena adierazteko, baina gure babesleak hala tratatzea ez zaigu ondo iruditzen.

Polemika txistueta badago, baina txaloetan ere bai... Martin Garrantzi ahaldun nagusiari, txaloak jo zitzaizkion.

Norbaitek pentsa dezake politika konkretu bati lerrokatuta dagoela bertsolaritza. Urte askotan beste batzuen eskutik bizi izan badugu erakundeetako politika, ematen du, hori irauli eta beste egoera bat bizitzen gabiltzala... Etorkizunak esango digu bertsolaritzak ze iturritik edaten duen eta ze aniztasun duen. Denbora testigu. Ikusiko dugu. Gustatuko litzaidake denendako txaloak egotea.





ikastolenelkartea

Debagoienako Ikastolak Konfiantzan



MATRIKULA EPEA ZABALIK
URTARRILAREN 30etik OTSAILAREN 10era



ARANZADI ikastola
Kalitatezko Euskal Heziketa

943 76 90 71

www.aranzadiikastola.org



Arizmendi
ikastola

943 77 20 25

www.arizmendi.eu



TXANTXIKU
IKASTOLA

943 78 12 04

www.txantxikuikastola.net



LANGILE ETA LANGABETUENTZAT PRESTAKUNTZA
IKASTAROAK %100EAN DIRUZ LAGUNDUTA
 Katalogo modular berrira lotutakoak.

PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRIEI LOTURIKO lanerako formazioa

PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRIAK

Lanbide-kualifikazioak lan-administrazioaren esparruan ofizialki egiaztatzeko tresna da profesionaltasun-ziurtagiria. Enplegurako lanbide-jarduera esanguratsu batean aritzeko gaitasuna egiaztatzen dio eskuratzen duen pertsonari.

Profesionaltasun-Ziurtagiria Lanbidek (Euskal Enplegu Zerbitzuak) antolatzen duen berariazko prestakuntzaren bidez eskura daiteke, edo lan-esperientziaren bidez edo prestakuntza-bide ez-formalen bitartez eskuratutako Lanbide Konpetentzia Egiaztatzeko Egituraz baliatuta.

Profesionaltasun ziurtagiriak, zalantzarik gabe, zure curriculum profesionala osatzen lagunduko dizu, dokumentu ofiziala denez, administrazio publikoko edozein aukeraketetan puntuagarri izan daitekeelako, eta baita enpresa pribatuetan ere.

FABRIKAZIO MEKANIKO ARLOA		
IKASTAROEN IZENA	ORDUAK	DATAK
UF1009: Urradura, elektrohidadura eta prozedura berezien bidezko piezen fabrikaziorako CNC programen sortzea. (Sarpen bidez / hari bidez).	80	2012/02/06 - 2012/04/03
UF0455: Fabrikazio mekanikoko produktuen dokumentuen kudeaketa (solid works. Multzoak)	30	2012/02/06 - 2012/03/01
UF0454: CAD-CAM programak erabiliz fabrikazio mekanikorako dokumentazio teknikoa lantzea	90	2012/02/27 - 2012/04/26
UF0879: Txirbil-harroketa bidezko piezen fabrikaziorako cnc programen garapena (torno CNC)	80	2012/02/27 - 2012/04/26
UF0449: Prototipo mekanikoen zehaztapena eta gauzatzea (Autocad).	50	2012/04/16 - 2012/05/22
UF0500: Elektrodo eta erdiautomatiko bidezko soldadura	50	2012/04/16 - 2012/05/16
UF0883: Txirbil-harroketa bidez mekanizatutako produktuen egiaztatzea (dimentsionala)	30	2012/05/07 - 2012/05/24
UF0877: Lan eta ingurumen arriskuen prebentzioa txirbil-harroketa bidezko mekanizazioan	30	ZEHARKAKOA
UF0881: Txirbil-harroketa bidezko prozesu mekanikoak (fresadoran)	80	ZEHASTU GABE
UF0876: Txirbil-harroketa bidezko mekanizazio prozesuen zehaztapen teknikoak	60	UC0089_2: Txirbil harroketa bidezko mekanizazio prozesuak zehaztea.
UF0991: Txirbil-harroketa bidezko mekanizazio prozesu-kostuen kalkulua	40	
ELEKTRIZITATE ARLOA		
IKASTAROEN IZENA	ORDUAK	DATAK
UF0887: Barruko instalazio elektrikoaren muntaketa eta mantenua	90	2012/03/12 - 2012/05/24
UF0890: Automatizatutako instalazioen muntaketa	90	2012/02/27 - 2012/04/26
ADMINISTRARITZA ETA INFORMATIKA ARLOA		
IKASTAROEN IZENA	ORDUAK	DATAK
UF0510: Testu prozesatzaileak (Word / Power Point)	60	2012/02/29 - 2012/04/03
UF0315: Kudeaketa fiskala	90	ZEHASTU GABE
UF0314: Kudeaketa kontablea	90	2012/02/27 - 2012/04/26
UF0343: Soldatak, kotizatzea eta diru-bilketak	90	ZEHASTU GABE
BESTE BATZUK		
IKASTAROEN IZENA	ORDUAK	DATAK
Orga jasotzaileen erabilera	23	2012/04/16 - 2012/04/26
Zubi-garabien erabilera	17	2012/05/02 - 2012/05/10
LANGABEEI ZUZENDURIKO IKASTAROAK		
IKASTAROEN IZENA	ORDUAK	DATAK
BILTEGIZAIN IKASTAROA	150	2012/05/07 - 2012/06/13
ESKAERAREN ARABERAKO PRESTAKUNTZA		
ENPRESEN ESKAKIZUNEN EDO BEHARREN ARABERAKO FORMAKUNTZA ESKAINTZEN DA.		



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
 ETA IKERKETA SAILA
 Lanbide Heziketako eta Etengabeko
 Ikaskuntzako Sailburuordetza



DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
 UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN
 Viceconsejería de Formación Profesional
 y Aprendizaje Permanente



Informazio gehiagorako edo izena emateko:
 IEFPS Miguel Altuna

Ibargarai 1 • 20570 Bergara • Tel.: 943 76 70 49 • Faxa: 943 76 38 41 • email: ikastaroak@imaltuna.com • www. imaltuna.com

HERRIAK

ARETXABALETAKO

Isasi Isasmendi guztiak Goronaeta elizatetik datozen

- ▶ Ramon Benavente kataluniarrak egindako ikerketaren emaitza da
- ▶ Azken sei mendeetan abizen horrek izandako bilakaera aztertu du

MIRIAN BITERI | ARETXABALETAKO

"Isasmendi abizena duten guztiak berez Isasi Isasmendi dira, eta Aretxabaletako Goronaeta elizatean dagoen Isasmendi baserrietik datozen". Ramon Benavente genealogista katalanaren hitzak dira, deitura horren gaineko bi urteko ikerketa sakona egin ostean. Lan horren ondorioa da abizen horrekin lotuta dituen 308 orrialde eta 48 zuhaitz genealogikoak.

Benavente abizen horren sus-traiak azaldu dizkigu. 1556an Martin Isasi Goronaetako Isasmendi baserriko oinordeko Mari Perez Isasmendirekin ezkondu zen. Oinordekoarekin ezkontzean Isasi abizena galdu zuen Martinek; baina, handik mende batera berreskuratu egin zuten. Arrazoa: 1655. urtean Isasmenditarrek kapare nahi zutela izatea eta erakusteko bide bakarra aurretik kapare izanda zuen abizen bakarra berreskuratu behar izan zuten: Isasi. Horrelaxe egin zuten, bi abizenak bakar batean eginez, Isasi Isasmendi eta gaur arte heldu diren aldaerak sortuz: hain justu ere, Isasmendi, Ysasmendi, Isasi-Isasmendi, Isasi Isasmendi, Ysasi-Ysasmendi eta Ysasi Ysasmendi.

Adar bakarra

Azken horren harira, berretsi du gaur egun Isasmendi deitura bakarrik dutenek Isasi Isasmendi direla. Honakoa esan du: "Isasmendik adar bakarra dauka: Goronaeta elizatetik datorrena. Ez dago besterik, eta hori ez da batera normala; bakarra dela esango nuke. Isasi abizenak, ostera, hainbat adar ditu Euskal Herri osotik sakabanatuta".

Gaineratu du deitura guzti horiek dutenak Gipuzkoan eta bereziki, Aretxabaleta eta Eskoriatza inguruan bizi badira ere, Euskal Herriko beste hainbat txokotan ere topatu izan dituela, hala nola, Elorrión edo Gasteizen. Euskal Herrietik kanpo ere badira; tartean, Bartzelonan, Madrilan eta munduko beste muturrean ere: Argentinan. Oinordeko entzuetzuetatik ere badaudela ondorioztatzen du Benaventek: zine zuzendari madrildarra Antonio Isasi-Isasmendi edo Reina Sofia Museoko Lagunen Elkarteko



Goronaetako Santiago eliza eta Isasmendi baserria, argazkiaren eskuinaldean. | ARETXABALETAKO UDAL ARTXIBOA

Kapare izateko bi abizenak bakar batean elkartu zuten 1556an

zuzendari Jose Joaquin Ysasi-Ysasmendi, besteak beste.

Esan bezala, azterketa horren amaitza 308 orrialde eta 48 zuhaitz genealogikoak dira. Hasiera batean, 279 orrialde eta 44 zuhaitzekoa bazen ere, denborarekin ikerketa horretan aipatzen diren

Aretxabaletan eta Eskoriatzan bizi dira Isasi Isasmendi eta Isasmendi gehienak

baserrien argazkiak eta bestelakoak sartu izan dituela jakinarazi du. Guzti hori lortzeko, bi urte luze horietan, Euskal Autonomi Erkidegoko 18 artxibo, Espainiako beste zazpi eta Argentinako bakarra kontsultatu ditu katalanak.

Ezagutarazi

Eta hemendik aurrera zer? Aretxabaletan lanean dihardute abizen horren gaineko informazioa ezagutarazteko. Aitor Antxiak azaldu digu asmoa dela formatu fisikoa ateratzea, eta horretarako dauden bideak aztertzen dihardute orain. Dena dela, bestelako ekintzak ere martxan jartzea ez dute baztertzeko. Bitartean, Internet bidez kontsulta daiteke horren gaineko dokumentazio zabala. Ramon Benaventeren webgunean (www.ramonbenavente.com) zabal azaltzen dira abizen horren sus-traiak.

RAMON BENAVENTE
GENEALOGISTA

"Lehengusu politiko bati laguntzeko hasi nintzen deitura aztertzen"

Bi urte inguru eman ditu Ramon Benavente genealogista katalanek Isasi Isasmendi abizena aztertzen. Egindako lanari buruzko azalpenak eman dizkigu datozen lerroetan.

Nondik sortu zen abizena ikertzeko ideia?

Lehengusu politiko batek bere zuhaitz genealogikoa egiten laguntzeko eskatu zidan. 30 urte inguru daramatzat familien gaineko ikerketak egiten, eta egun batean zeregin horretan lagunduko niola esan nion. Hortik aurrera artxiboetan begiratzen hasi nintzen, ahalik eta dokumentazio osatuena lortzeko, eta Isasi Isasmendi abizena askotako ematen zuela ikusi nuen, eta bakarra dela esan genezake. Esan beharra dago oso kolaboratzaile onak izan ditudala bidean; tartean, Aretxabaletako Aitor Antxia eta Oñatin dagoen Gipuzkoako Artxibo Historikoko zuzendari Ramon Martin Sukia.

Zenbat denbora eman duzu horretan?

Bi urte. Enric Isasi Isasmendi lehengusuak eginda zuen ikerketatik abiatuta, horiek



RAMON BENAVENTE

aztertu, eta lehenik eta behin, Gipuzkoako Protokolo Historikoen artxiboa bisitatu nuen. Etxetik lan asko egiteko aukera izan dut, besteak beste, Iragi Euskadi Agiritegi Sistema Nazionalari esker. Kolaboratzaileek ere dokumentazioa bidali didate.

Dena dela, bisitaren bat ere egingo zenuen ala...

Bai. Oñatiko artxiboan hiru bider egon naiz, eta Aretxabaletan ere izan naiz. Besteak beste, Goronaetako Isasmendi baserrian bizi den eta zati batean ondorengoa den Juan Errastirekin izan naiz, eta baita inguruan bizi diren Isasi Isasmendi eta Isasmendi deitura dutenekin ere.

DATUA

6

ALDAERA

Isasmendi abizenaren sei aldaera sortu dira azken bost mendeetan: Isasmendi, Ysasmendi, Isasi-Isasmendi, Isasi Isasmendi, Ysasi-Ysasmendi eta Ysasi Ysasmendi.



Isasmendi baserria. | ARETXABALETAKO UDAL ARTXIBOA

Konpondu dute Bizkaia etorbideko igogailua

UBANE MADERA | ARRASATE

Atzo, eguenaz, geroztik martxan da atzera ere Bizkaia etorbideko igogailu publikoa.

Txondorra erretegi pareko sarreran ate berria ipini behar izan dio Orona enpresak igogailuari. Eta erlojuz kontra lanean ibili dira gainera, kontuan hartuta igogailu ezak Gorostiza eta Erguin auzoetako bizilagunei eragin dien kaltea.

Izan ere, astebete osoz itxita izan da Muxibarko igogailua, joan den asteburuan ezezagun batzuek "igogailuaren atea barrutik kolpeka leherrarazi" ostean, Orona enpresatik emandako informazioaren arabera.



Auzotarra apurtutako ate aurrean | U.M.

Erantzule bila

Eta auzotarrei eragindako kalteaz gainera, Arrasateko Udalarari ere kaltea eragin dio bandalismo horrek, kalte ekonomikoa hain zuzen, 3.500 euro inguru kostatu zaio-eta, igogailuari ate berria jartzea.

Eragindako eragozpen guztiak kontuan hartuta, haserre daude udal ordezkariak gertatutakoarekin, eta horrexegatik "Udala erantzuleak ezagutzeko lanean dabil horrelako ekintza gehiago egon ez daitezela eta arrasatear guztien ondasunak errespetatzen ez dituztenek erantzun dezaten", adierazi dute Obra eta Zerbitzu Saitetik.



Igor Loiti, dendako jabea, kristalak lurretik jasotzen. | ENEKO AZKARATE

Dendako telebista guztiak lapurtu dituzte Almacenes Arrasaten

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Hogei telebista eta indukzioko sukalde plaka bat lapurtu zituzten atzo goizaldean, 06:30ak inguruan, Arrasateko Kataide industria poligonoko Almacenes Arrasaten.

Kristala apurtu eta barrura sartu ziren lapurrak. Ondoko apaletan zeuden plasma eta LCD erako telebistak hartu eta eroan egin zituzten. Di-da batean. Erakusleio ondoan, kanpoan, telebisten kableak ageri ziren. Samsung, LC eta Panasonic markakoak. Hain zuzen ere, dendan zituzten telebista guztiak lapurtu dituzte.

Dendako alarmak ez du jo. Udaltzainak ohartu ziren, indus-

trialdetik errutinazko buelta bat ematen zihardutenean. Igor Loitik, bertako jabeak adierazi duenez, Almacenes Arrasaten jasaten duten laugarren lapurreta da azkeneko 18 urtean.

Enkarguzko "lanak"

Ertzainak ebidentziak hartzeko behaketa lanetan ibili ziren atzo bertan. Adierazi dutenez, halakoetan enkarguz lan egiten dute lapurrek. "Telebistak behar dituztela, bada, telebista saltokietara jo, lapurtu, eta berehala kolokatzen dituzte merkatu beltzean saltzeko". Aldez aurretik, generoa salduta dute. Hala ere egiten dute lan "banda antolatuek".

CHARO TORRES
BIZILAGUNA



"Kaletik igotzeko igogailua hartu besterik ez dut izaten. Orain, berriz, autobusa hartu eta buelta handiagoa egin beharra izaten dut."

CANDIDO SANCHEZ
LANGILEA



"Nik, lanerako, sekulako buelta egin beharra daukat. Egunkari banatzailea naiz eta hona igo eta gero, Erguina joan beharra izaten dut."

RUFINO BARRUSO
BIZILAGUNA



"Kamerak egon badaude bertan, baina ez dakit zerbaiteko balio ote duten. Jendea da hain ganberroa...! Igogailuak mesede handia egin dio auzo honi."



Matrikulazio epea zabalik
haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan
Urtarrilaren 30etik otsailaren 10era


Gurasoen Elkarte

Arrasate
Herri Eskola




baikara
Gipuzkoako Ikasleen
Gurasoen Federazioa

**Guk bezala,
egin apustu, egin kiñu
Euskal Eskola
Publikoaren alde!**



BEDOÑABE • Tel.: 943 79 20 69



MUSAKOLA • Tel.: 943 79 04 49



ERGUIN • Tel.: 943 79 77 74

Elurrak eragozpen handirik ez; orain, izotza da kezka

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Atzo heldu zen elurra kaleetaraino baina ez zuen eragozpen handirik sortu. Orain izotza da kezka nagusia; gatz kopuru txikiak jarri dituzte herritarren eskura, obra zerbitzuen biltegian -Biderkuzte-kalea 2, Asam enpresaren eraikin ohia-. Inazio Azkarragaurizar alkateak martitzenean aktibatu zuen elurte plana, elurrak eta izotzak egunerokotasunean ahalik eta kalte gutxien sor ditzan. Izan ere, udal zerbitzuen helburu nagusia da oinezkoendako bide nagusietan elurrik ez pilatzea eta autoen

zirkulazioa ibiltzeko moduan uztea: "Horretarako erabilgarri ditugun baliabideak erabiliko ditugu", dio alkateak bandoak.

Herritarrei kolaborazio eske

Programa berezia ezarri dute lehentasuneko lekuetan -osasun etxe, ikastetxe eta industrialdeak, besteak beste- bideak erabilgarri uzteko. Herritarren laguntza ere eskatu dute: "Ausart lan eginez eta herritarren kolaborazioarekin bakarrik gutxituko ditugu elurra-
ren ondorio negatiboak, zerbitzu guztiak martxan izan ditzagun".



Elurra atzo, baina eragozpen handirik ez. Irudian, Otolara lizentziatua kalea. | J.B.

GOMENDIOAK ETA BETEBEHARRAK

- ▶ Autoan, segurtasun tarte handitu eta ez frenatu bat-batean.
- ▶ Ibilgailua garajejan sartu.
- ▶ Oinezkoak: espaloian ibili eta kontu handia izan kaleak gurutzatzean.
- ▶ Pertsona nagusiak, ezinduek eta mugikortasun mugatua dutenak: ez irten, erabat beharrezkoa ez bada. Irteten badira kontu eta arreta handiarekin ibili.
- ▶ Auzo, lokal eta dendetako jabeek garbitu beharko dute euren espaloizatia.
- ▶ Etxe-jabeen komunitatea arduratuko da garajerako bidea garbitzeaz.
- ▶ Ibilgailuendako sarbidea duten enpresetako titularrak arduratuko dira sarbide eta aparkaleku eremuak garbitzeaz.
- ▶ Ez atera zaborra, bereziki kartoia, bilketa sistema normalizatu arte.
- ▶ Informazioa jasotzeko telefonoak: 943 25 20 00 (BAZ) eta 943 25 20 10 (Udaltzaingoa).

BEHEKO TABERNATIK



Bittor Arriaran, Basatiko barran, kafe bat prestatzeko gertu. | JOKIN BEREZIARTUA

Bittor Arriaran | Basati Taberna

"Duela 20 urte lau tabernari ginen domeketan, lehertu arte lanean"

J.B. | ARRASATE

Ia 12 urte daramatza Bittor Arriaranek (Arrasate, 1964) Basati tabernako barraren atzean, eta tabernari moduan 25 urte egin ditu, gutxienez.

Asko aldatu da Arrasateko poteoa tabernari hasi zinenetik?

Erabat. Txikia nintzenez gogoratzen dut 12:00etan langileak Zerrajeratik irteten zirenean tabernak bete egiten zirela. Egutero zegoen txikiteoa. Egutegubakoitzetan eta zapatuetan egoten da. Duela 20 urte, adibidez, domeketan lau tabernari egoten ginen Iratin eta leher eginda amaitzen genuen.

Krisia nola igarri da tabernari?

Jende gutxiago dabil orokorrean. Tabakoaren kontrako legeak ere zuzenean eragiten gaitu; futbol partiduetan, esaterako, jende gutxiago etortzen da, ezin duelako erre. Izan ere, taberna betidanik izan da edan, erre eta lagunekin gustura egoteko lekua eta ez dut ulertzen orain zergatik debekatu behar dugun tabernari erretzea.

Bestalde, krisiari aurre egiteko modu bat da herriko dena eta tabernetan kontsumitzea. Era berean, herriko proiektuak sustatu behar dira, denon arteko elkarlanean oinarrituta.

ARRASATEKO UDAL HAUR ESKOLA

umezaintza

0-3 URTE *San Andres, 8*

uribarri

JOKIN ZAITEGI 0-3 URTE *Uribarri etorbidea, z/g.*

MATRIKULA EPEA ZABALIK
URTARRILAREN 30etik OTSAILAREN 10era

Instalazioak ikusi edo elkarrizketa egin nahi izanez gero, aurrez telefonoz abisatu

943 77 20 25

www.arizmendi.eu



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Arizmendi ikastolak kudeatutako Udal Zerbitzua

A
Arizmendi
ikastola

Rodriguez: "Jokalari garrantzitsu barik ere lehiatzeko gauza garela erakutsi dugu"

Hondarribiaren kontra beste final bat jokatu du Mondrak bihar; kontrario zuzen dira, gainera

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Lehenengo itzuli negargarri baten ostean, Mondra erreakzionatzeko gauza izan da, bi partidutan lau puntu batuta. Norbaitek pentsatuko du badela zerbait, baina bidea hori bano askoz luzeagoa izango da, luzeagoa eta gogorra: "Gabonetan taldeak lur-jota hartu zituen oporrak, sailkapenean azkenak ginelako eta jai-sieratik kanpoko postuak seizazpi puntura genituelako. Azken emaitzekin egoera hori aldatu egin da apur bat, baina oraindik ez dugu ezer egin. Erreakzio honi

ginda jartzeko zapatuan Hondarribiari irabazi egin behar diogu", adierazi du taldeko entrenatzaile Iban Rodriguezek.

Lau puntura daude

Mondrak (16) sailkapeneko azken taldea izateari utzi dio, Roteta (12) aurreratu duelako, eta Behobia-rekin (16) berdinduta dago. Hala, biharko kontrario Hondarribia (20) mendean hartuta Arrasatekoak erabateko saltsan sartuko lirake, sailkapenean 12. postuan dagoena –Elgoibar– bost puntura baino ez dagoelako: "Liga amaie-



Lesioek ez diote taldeari arnasa hartzen utzi: argazkian, Jokin Pavo. | J. ARANTZABAL

ran borroka horretan egotea da asmoa, kategoriari eusteko aukerak izatea. Izan ere, sailkapeneko azken postuetan murgiltzen denak, 6-7 puntuko aldeaz, ilusioa galtzen du, horrela zaila izaten da lan egitea".

Bihar ere hutsune nabarmenak

Talde gaztea izatearekin batera, lesioak tarteko, Mondrako entrenatzaileak nahikoa zailtasun du astero-astero hamaikako finko bat izateko: "Alde horretatik negargarri gabiltza aurten, baina urte

osoa daramagu horrela, ez gara orain kexatzen hasiko. Hauxe da daukaguna, eta horrekin egin behar dugu aurrera".

Bihar, besteak beste, Oier Arregiren eta Iker Lopezen hutsuneak izango ditu: "Oier kanpora joango da ikastera, eta Lopezek lesioak tarteko urte osoan ez ditu bi partidua jarraian jokatu. Baina, jokalaria garrantzitsu barik ere taldeak erakutsi du kapaz dela lehiatzeko, eta hori baloratzen dut. Hori bai, dena ematen ez badugu, edonork irabaz gaitzake".

Hilaren 11ko eta 12ko astebururako hitzordu bikoitza du Besaidek

X.U. | ARRASATE

Besaidek gertu du otsaileko egutegia, eta bigarren astebururako hitzordu bikoitza izango dute. Batetik, eski alpetarra egiteko –pistetan– irteera antolatu dute Formigalera. Izena emateko egunak izango dira astelehena, martitzena eta eguaztena (18:30-19:30, Besaideko egoitzan).

Bigarren hitzordua ere eskiekin gozatzekoa izango da, baina oraingoan pistetatik kanpo, mendiko eskia egiteko. Pirinioetan, Robiñera (3.003 metro) eta Barrosa tontor arteko mendi zeharkaldia egingo dute, eta irteera horretan izena emateko derrigorrezkoa

izango da federatuta egotea. Horrekin batera, eskiatzaileek zapaldu gabeko elurretan eskiatzen jakin beharko dute, eta piolet eta kranpoiak eramatea derrigorrezkoa izango da –Besaiden eskuragarri. Irteera horretan izena emateko egunak izango dira astelehena (hilak 6) eta martitzena (hilak 7), 19:00etatik 20:00etara.

Otsailaren 26an sagardotegiaz

Otsaileko azken astebururako, berriz, Besaideko lagunek sagardotegiaz gozatzeko irteera egingo dute, baina lehenago mendira joanda, Aiako Harri inguruetara (www.besaide.org).

ARTko seniorrek Uribealdea B hartuko dute bihar

Astebeteko atsedendialdiaren ostean, Kanpanzar Arrasate Errugbi Taldeak Uribealdea B taldearen kontra defendatuko du lidergoa zapatuan Mojategin (18:00). Gazteek eta kadeteek atsedena izango dute asteburuan eta Gaztedikoekin batera taldea osatzen duten infantilek Hernanin jokatu dute bihar, 11:30ean.

Otsailaren 19ra arte eman daiteke izena Gatzagako txapelketan

Gatzagako Pilota Txapelketa prestatzen dabil Mauri Zubillaga, eta otsailaren 19a da izena emateko azken eguna (605 724 096). Txapelketa hori sasoi batean pilotan jokatu zutenei zuzenduta dago, baina dagoeneko federatuta ez dauden herritarrei. Txapelketan parte hartzeko pilotari bakoitzak 15 euro ordaindu beharko ditu; pilota goxoak erabiliko dituzte.

ZALDIBAR

EMAITZAK

Iluntz-McAwen/Dauen	4-7
Ekaitz-At. Betrayr	4-7
Iritz-Lasagabaster	6-5
Sonografos-Dublin	6-5
Aston Birra-Iluna	2-5
Dribling-Portaboleiros 2.0	6-1
Abokajaro-Fidel&Discipulos	7-1
Aldatz	Atsedena

SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 Dribling	25	10
2 McAwen	24	11
3 Iritz	22	10
4 Dublin	22	11
5 Sonografos	21	10
6 Abokajaro	21	10
7 Aldatz	20	10
8 AT Betrayr	19	11
9 Lasagabaster	14	11
10 Fidel&Discipulos	12	10
11 Iluntz	9	10
12 Iluna	9	10
13 Ekaitz	4	10
14 Aston Birra	3	10
15 Portaboleiros 2.0	0	10

PARTIDUAK

OTSAILAK 4, ZAPATUA

10:00 Fidel&Discipulos-AstonBirra / Iluntz

11:00 Lasagabaster-Iluntz / Fidel & Disc.

12:00 Dublin-Ekaitz / Lasagabaster

16:00 Iluna-Iritz / Portaboleiros 2.0

17:00 Portaboleiros 2.0-Sonografos / Iritz

OTSAILAK 5, DOMEKA

12:30 Dribling-Abokajaro / At. Betrayr

13:30 Aldatz-At Betrayr / Dribling

McAwen: Atsedena

Daidek ondo eutsi zion Goliathi

Joan den astean, azken sailkatu Portaboleiros taldeak eta liderrak, Dribling-ek, jokatu beharreko partidua nabarmendu genuen. Ez zen ezustekorik izan, Dribling taldearendako izan ziren bi puntuak (6-1), baina ez zen aurreikusitako moduko gol zaparradarik egon. Portaboleiroskoek partidua duina egin zuten. Alde handiagoz irabazi zion, esaterako, Aboka-k Fidel eta konpainiari (7-1).

Oraingo asteburuan McAwenek atsedena dauka, eta Iritz eta Dublin ahaleginduko dira bigarren postura salto egingo, kontrarioek halakorik onartzen badute, noski.

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

PUB HAIZEA

arrasate

ad Ibabe

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa z/g.

Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

Ford Mugarri Arrasatek Gasteizen jokatu du

Sailkapenaren erdi-erdian dagoen Gure Auzune taldearen kantuan jokatu du Ane Herreroen Ford Mugarrik asteburuan (zapatua, 18:00). Bigarren territorialak atsedena izango du eta Federazio Saria jokatzeko dabilzan Talleres Chapimeko gazteek Musakolan jokatu dute, zapatuan, 17:30ean.

Antonio Murillo | Argazkigintza ikastaroko irakaslea

"Argazkilari ona ala normala izatea norberaren esku dago"

- ▶ Gazte Bulegoak urteroko argazkigintza ikastaroa antolatu du
- ▶ Otsailaren 17a baino lehen eman behar da izena ekintza horretan

MIRIAN BITERI | ARRASATE

Urtero moduan, Arrasateko Gazte Bulegotik argazkigintza ikastaroa antolatu dute. Otsailaren 20an hasiko dira eskolak, eta apirilaren 2an bukatu. Antonio Murillo arduratuko da horiek emateaz.

Urteroko argazkigintza ikastaroa da aurtengoa ere...

Bai, hala da. Normalean, urtero otsail edo martxo aldean egiten den ikastaroa da abian jarriko duguna. Oinarrizko ikastaroa izango da; argazkigintza gidabaimena bezalakoa da: behin parametroak izanda, norberaren esku dago 1 Formulako gidaria izatea, edo normala.

Zer da, zehazki, ikastaro horretan erakutsiko duzuna?

Betiko argazkigintzari buruzko printzipioak emango ditut, hala nola diafragma, irekidura eta eremu-sakonera; hain justu ere, oinarrizko argazkigintza. Hori guztiari ordenagailura pasatuko dugu jarraian. Besteak beste, Photoshopera. Baina programa horren oinarrizko pausoak baino ez diz-



Antonio Murillok emango ditu eskolak. | MIRIAN BITERI

"Ikasleek eta langabeek 12 euro ordaindu beharko dituzte"

kiet erakutsiko, oso konplexua da-eta. Argazkiei ukituak azkar ematen ikasiko dute.

Noiz hasiko dira eskolak?

Otsailaren 20an. Astelehen arratsaldeetan izango dira, 18:00etatik 20:00etara, Kulturaten. Api-

rilaren 2ra arte izango dira saioak. Izen-ematea zabalik dago; interesatuek otsailaren 17a baino lehen apuntatu behar dute Gazte Bulegoan, gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net helbidean edo 943 25 20 65 telefono zenbakian. Prezioari dagokionez, ikasleek eta langabeek 12 euro ordaindu beharko dituzte; eta gainerakoek, 20 euro.

Zenbat lagunendako tokia dago?

Gutxi gorabehera, 30 lagunendako dago pentsatuta. Lehen, Kulturateko ordenagailu gelan ematen genuen, eta horrek 15 lagunendako tokia zuen. Ikastaroak oso harrera ona zuen, eta, jende asko kanpoan geratzen zenez, iaz formatua aldatu genuen, eta parte-hartzaileak argazki-kamera eta ordenagailua erosten hasi ziren. Lehenengo eskola teorikoa da, eta hortik aurrerakoak praktikoa izaten dira bereziki.

Nolakoa da eskola horietan parte hartzen dutenen profila?

Normalean, emakume gehiago izaten da. Bestetik, adin askotariko jendea dator. Gazte Bulegotik antolatzen da, eta, hortaz, gazteek dute lehentasuna. Baina 60 urteko lagunak etorri dira esaten ez dituztela hartu, eta ikastaroan parte hartu izan dute.

Ez da samurra izango lagun horiei ezetz esatea...

Hala da. Gainera, kontuan izan behar da argazkigintza on den eta sentsibilitate handia duen jendea dagoela, oinarrizko eza-gutzak baino ez dituen behar.

'Gigantes y Cabezudos', aurtengo zarzuela

M.B. | ARRASATE

Izaskun Murgia elkarteak dagoeneko ezagutarazi du aurtengo zarzuelaren izena: *Gigantes eta Cabezudos*. Sare sozialak erabili ditu iragarpen hori egiteko; hain justu ere, Twitter. Urtero moduan, elkar-te lirikoak eta Arrasate Musika-kalek azaroan taularatuko dute esandako lana; dena ondo irten dadin, asko entseatu beharra dago, eta dagoeneko jarri dute lehen entsegurako hitzordua: martxoaren 5ean izango da, 21:00etan, Arrasate Musikalen.

Aukeratutako obrak amodiozko istorio bat kontatzen du eta XIX. mende amaierako Zaragozan girotua dago. Manuel Fernandez Caballero musikagileak konposatu zuen, eta Migel Etxegarai Eizagirre komediagileak idatzi.

Otsailaren 15era arte aurkeztu daitezke palindromoak AEDn

AED elkarteak bigarren ezagutarazi duen euskarazko palindromo lehiaketan parte har daiteke. Palindromoak hilaren 15a baino lehen mezu bidez bidali behar dira aed@aedelkarrea.com helbidera. Bi sari daude: Euskal Herriko onenari Txindurri-Iturrin egonaldia eta Arrasatekoari, Txondorran menu berezia.

Irrintzi ikastaroan izena eman daiteke oraindik

Otsailaren 11n izango da AEDren irrintzi ikastaroa, eta horretarako izen-ematea zabalik dago. Interesatuek 943 77 12 28 telefono zenbakira deitu behar dute edo aed@aedelkarrea.com helbidera idatzi. Gokobaluko Rakel Murgiondoren gidaritzapean, saioa 11:00etatik 13:00etara izango da.

Txapelpunk eta Mitosia zuzenean gaur gaztetxean

Txapelpunkek 'Krem de la Krem' diskoa aurkeztuko du; sarrerak bost euro balio du

M.B. | ARRASATE

Lekeitioko Txapelpunk eta Mitosia musika taldeek Arrasateko gaztetxea bisitatuko dute gaur, egubakoitza. Kontzertuak 22:30ean hasiko dira, eta sarrerak bost eurotan salduko dituzte.

Txapelpunk punk taldeak *Krem de la Krem* izeneko diskoa aurkeztuko du; hain justu ere, estudioan grabatutako laugarren diskoa da hori. Askotariko bertsoekin dago osatuta, eta, bere-

ziki, 80ko hamarkadako rock eta punk taldeak izan dituzte horretan hizpide: Ume Gaiztuak, Kortatu, Eskorbuto, Bap!, Delirium Tremens eta Orquesta Mondragon, beste askoren artean. Horiekin batera, lekeitiarren bestelako kantuak ere entzun ahal izango dira gaztetxean.

Disko bikoitza

Mitosiak, osterara, hardcorea, metala eta thrasha eroango ditu



Txapelpunkoek lan berria aurkeztuko dute. | GOIENA

gaztetxera. 1999an sortutako taldeak orain dela bi urte kaleratutako disko bikoitza taularatuko du. Lan berria bitan banatu du: *Meiosia* eta *Mitosia*. Atal

bakoitzean hamar kantu jaso ditu. Abestiaren bertso ezberdinak tartekatuz, bakoitzean kantu instrumental bat sartu dute Mitosiakoek.

Otsailaren ere **DESKONTUAK!** **Maizatz** ILE APAINDEGIA *Animatu eta deitu!*

	ILE MOTZA	ILE LUZA
• Orraztea	13,50€	16,50€
• Moztea eta orraztea	25,20€	28,50€
• Kolorea ematea, moztea eta orraztea	43,50€	50,90€
• Kolorea ematea eta orraztea	34,90€	39,50€

• Gizonentzako ile-moztea	13,20€
• Umeen ile-moztea (8 urte beherakoak)	8,90€

Antso Abarka 3 behea • Musakola
ARRASATE • Tel.: 943 79 58 78

Restaurante
UGARAN
Jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

BASATI
TABERNA

943 71 17 68

Atez atekoa dela eta, tirabirak udal gobernua eta oposizioaren artean

EAJk eta PSE-EEK zabor eta hondakinen bilketaren gainean aurkeztutako mozioak udal gobernua atzera bota zituen astelehenean

EDU MENDIBIL | BERGARA

Hiru zinegotziren faltan (Bilduko Ariane Kareaga eta Maider Arregi eta EAJko Juan Jesus Alberdi), ohiko batzarra egin zuen udalbatzak astelehenean. Gai-zerrendan hainbat mozio, tartean EAJk eta PSE-EEK (nor bere aldetik) zabor eta hondakinen bilketaren gainean aurkeztutakoak eta PSE-EEren beste bi proposamen.

Zaborren gaiak hartu zuen protagonismo handiena osoko bilkuran. Mari Karmen Barreneixaren (PSE-EE) arabera, Udal Gobernuak ezarri nahi duen atez ateko sistema ez da aproposena, garestia eta deserosoa delako. Materia organikoarendako bosgarren edukiontzia jartzearen alde azaldu zen Barreneixea. Leire Iruin Bilduko zinegotziak zera esan zion: atez atekoa ezartzearena Mankomunitatearen erabakia dela eta Bilduren programan zero zaborraren aldeko konpromisoa agertu zutela: "Horretara hurbiltzeko, sistema eraginkorra atez atekoa dela ikusi da". Iruinen arabera, bosgarren kontenedorea jartzea garestiagoa da. Herritarrei gaiaren gainean kontsulta egitea eta datu ekonomikoak argi azaltzea eskatu zuen Barreneixea. Jaione Isazelaiak zera erantzun zion: kontsulta egiteko gai potoloagoak egon direla aurretik, AHT eta errauskailua tartean. Parte hartzeko aukerak eman dituztela eta orain arte atez ateko sistemak emandako emaitzak oso onak izan direla ere gogoratu zuen Isazelaiak.

Azken erabakia, Udalean

EAJ abstenitu egin zen PSE-EEren mozioarekin, jarraian gai berari helduta euren mozioa zihoalako. Aurreko agintaldian Diputazioan onartutako Hondakinen Gestioaren Plan Integrala defenditzen du EAJk eta Mankomunitatean atez atekoaren alde hartutako erabakia noizkoa da galdetu zuen Aintzane Oiarbidek: "Akta hori jaso nahi genuke. Edozelan ere, Udalak har-



2013ko urtarrilean Bergaran atez ateko sistema ezartzea aurreikusita dago. | GOIENA

tu beharreko erabakia da, gure artean eztabaidatu beharrekoa. Sistema eragingarriena esatea arinkeria da: datuak erakutsi behar dira. Atez atekoak zenbateko kostua izango duen herritarrek jakin behar dute, gure datuen arabera hiru aldiz garestiagoa baita". Jaione Isazelaiak hauxe erantzun zion: "Gai honetan izango da parte har-

tzeko aukera eta azken hitza Udalarena izango da. Bidea hasi besterik ez da egin". Zero zabor filosofiaren aldeko apustua berretsi zuen Bilduko zinegotziak. Udal Gobernuak atzera bota zituen EAJren eta PSE-EEren mozioak. Bestalde, Gipuzkoako zenbait azpiegituratako proiektuak direla eta, lanok geldiaraztearen aldeko mozioa

aurkeztu zuen Mila Elortzak, Debagoieneko AHT Gelditu Elkarlana, Angiozarko Herri Batzarra eta Bergarako Gazte Asanbladaren izenean. Zapatuan, otsailaren 4an, Donostian egingo den manifestaziorako deia egiten dute. Udal gobernuaren botoekin onartu zuten mozioa. PSE-EE eta EAJ kontra azaldu ziren.

EAJren kontrako pankartak

Eztabaidaren une batean, herritar batzuek *PNV Diruzaliak* eta *PNV Txikitzaile* zioten pankartak erakutsi zituzten eta Oiarbidek horrelako irainak bilkuran onartzen ote zituen galdetu zion alkateari, "bakegintzan eta politikagintzan zabalduko bide berriari mesederik ez diotela egiten". Pankartok adierazpen askatasunaren isla zirela erantzun zion alkateak. EAJk salatu egin du alkatearen jarrera ohar baten bidez: "Ez du egoerak eskatzen duen bezala jokatu eta, beraz, ez luke karguan jarraitu behar horrelako gertakariak onartzen baditu".

Udalaren aurrekontuaren zain

Agorrosin eta San Lorentzo arteko asfaltatze lanak eta Ibargarain, Miguel Altuna parean, egindako azken lanak direla eta, Udaleko diru kontuen gaia atera zen astelehenean. Hasieran aurreikusitakoa baino gehiago gastatu denez, Aintzane Oiarbidek taxuz egitea eskatu zuen: "Ezohiko prozedura ohiko prozedura bilakatu da eta gure ardura erakutsi nahi dugu Udalaren egoera ekonomikoaren gainean, kontu hartzailea nahiko optimista azaldu bazen ere kontuak aztertu genituenean". Udalaren aurrekontua lehenbailehen aurkeztea eskatu zuen EAJko zinegotziak. Jaione Isazelaiak onartu zuenez, egoera ez da txantxetako: "Kudeaketa plana egiten dihardugu eta aurrekontuak kudeaketa plan horretan ondoen egokitzea da gure asmoa". Aurrekontuak lantzen hasiak direla eta zirriborroa otsail erdirako gertu izango dutela gaineratu zuen Jesus Elortza alkateak.

OHARRAK

SAN BLAS JAIAK BURUÑAON

Bihar, zapatua, mus txapelketa jokatu da auzoko elkartean, 16:00etan. Bikote bakoitzak 15 euro ordaindu beharko ditu parte hartzearen, eta lau bikote onenendako egongo dira sariak. Domekan San Blas Txiki eguna ospatuko dute. Meza izango da 11:00etan (aurretik, ermitako ermandadeko kideek bilera egingo dute), salda eta txorizoa banatuko dute jarraian ermitan, eta, bukatzeko, dantzari eta trikitilarien saioa eta umeendako kukañak iragarri dituzte.

KONTSUMO ARDURATSUA: ERAKUSKETA UDALETXEAN

Hondakin gutxiago, ongizate gehiago erakusketan ikusgai dago udaletxean, domekara arte, zapatuan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era eta domekan, goizez bakarrik, 12:00etatik 14:00etara. Hondakinen sorreraren prebentzioari buruzko Mankomunitatearen erakusketan ibiltaria da.

BERBALDIA: HAURTZAROA ETA ELIKADURA

Gurasoei zuzendutako hitzaldi sorta amaitzeko, otsailaren 15ean *La importancia de los los hábitos de alimentación en la infancia* izenburuko hitzaldia izango da kultura etxean, 18:00etan.

ODOL ATERATZEA ANBULATORIOAN

Eguaztenean, otsailaren 8an, odol ateratzea egingo dute ambulatorioan, 18:00etatik 20:30era. Herriko Odol Emaileen Elkartearekin harremanetan jartzeko telefono berriak: Antonio Herzog arduraduna (669 10 89 77) eta Dulce Rodríguez idazkaria (628 07 97 72).

ORTU EKOLOGIKOAREN GAINEKO IKASTAROA


Udaleko Kultura Zerbitzuaren eskutik, ortu ekologikoaren gaineko oinarritzko ikastaroa izango da San Juan auzoko elkartean, otsailaren 7an, 9an, 13an eta 14an, 17:00etatik 21:00etara. Argibideak kultura etxean, 943 77 91 58 telefono zenbakian jaso ditzakete interesatuek.

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

JOXAN
ARRAINDEGIA

Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

Imanol Larrañaga zenaren oroimenezko ospitalea Malawin, Afrikako bihotzean

- ▶ Joan den abenduan inauguratu zuten eta hantxe izan zen Imanolen ama, Maria Teresa Telleria
- ▶ Karmeldarrek dihardute Nywngwen; Joxe Olañeta uberar apaiza zenak Kapirin jardun zuen



Maria Teresa Telleria, abenduaren 4an Nywngweko Imanol Larrañaga ospitala inauguratzeko egindako ekitaldian.

EDU MENDIBIL | BERGARA

Maria Teresa Telleriak oso presente ditu Javier senarra eta Imanol semea. Haien oroimenez Malawiko Nyungwe herrian, ospitalea eraikitzeke laguntza eman nahi izan du; hain zuzen, azaroan joan zen Afrikara lehen aldiz, Imanol Larrañaga ospitalearen inauguraziorako. Hamar egun egin zituen eta Damaso Zuazua karmeldar aretxabaletarra izan zuen bidelagun. Afrikarako hegaldia barne, 11.000 kilometro egin zituzten. Liluratuta itzuli da Maria Teresa Afrikan bizi izandako esperientziarekin; "Ikaragarria da daukaten gutxiarekin zein pozarrekin bizi diren han. Haiengandik asko ikasteko daukagu. Ikustekoa

zen umeak eskolara kantuan joaten ikusi, nahiz eta zenbait kasutan 5 km.-ko ibilaldiak egin behar izan zituzten eskolara iristeko, ortozik. Eta eskolan 17 irakasle besterik ez 1.700 ikaslerendako... Arbela arbolaren kontra jarri eta zelai baten jasotzen zituzten eskolak. Mirestekoa zen. Baita jendearen umiltasuna... Lurrean jarrita hartzen zaituzte hango emakumeek eta, ikustekoa da zelan eramaten dituzten ume txikiak bizkarrean. Egia esan, horrenbeste emozio sekula ez dut sentitu..."

Ezinbesteko zerbitzua

Nyungwe Malawi hegoaldean dago. Karmeldarrek San Juan De la Cruz eliza daukate Nyung-



Ospitaleko amaetxea egiten dihardute.

wen eta Imanol Larrañagaren izena daraman ospitalea jendearen oinarrizko beharrak betetzera dator. Ospitale xumea da, baina ezinbesteko zerbitzua eskainiko duena. Tarcisio Ziyaye artzapezpikuak eta karmeldarren Ama Nagusiak hartu zuten parte inaugurazio ekitaldian, joan den abenduaren 4an. Sinbolikoki, Maria Teresa Telleriak ospitaleko giltzak entregatu zizkion artzapezpikuari eta honek karmeldarren nagusiari. Era berean, plaka oroigarria zabaldu zuten ospitaleko sarreran. Orain dela 10 urte hil zitzaion argazkia eraman zuen Maria Teresak Afrikara. Ospakizun eguna izan zuten Nyungwen eta jende mordo bat zen. Ospita-

talea handitzen dihardute; urte bukaerarako amaetxea bukatuta egotea da asmoa. Ordurako Malawira itzuli nahi du Maria Teresak.

Joxe Olañeta Uberako apaiza zena ere paraje haietan jardundakoa da eta Euskal Herrian lortutako diruarekin eliza eraiki zuen Kapirin. Olañetaren eta beste apaiza batzuen omenez oroigarria dago han. Jaurlaritzaren arrastoa ere badago: Chiphasoko lanbide heziketa eskola. Maria Teresak zera azpimarratzen du: "Beti dago haiei laguntzeko modua behar handiak dituztelako eta gezurra da laguntza ez dela iristen". Horren froga eta haien esker ona ekarri ditu Afrikatik.

HARRI ZURI

HORTZ KLINIKA

Ibargarai 21, behea - BERGARA
Tel.: 943 25 34 34 - 664 47 05 72

- ✘ Punta-puntako teknologia erabiltzen dugu.
- ✘ Medicina erregeneratzailea lantzen dugu (PRGF plasma), zikatrizazio hobea lortzeko eta hobeto osatzeko.
- ✘ Kromoterapia eta Shiatsu erlaxatze teknikak erabiltzen ditugu, lasai senti zaitez.

ORDUTEGIA:

Astelehenetik ostiralera: 09:00 - 13:00 / 14:00 - 20:00

Zapatuetan: 09:00 - 13:00

Aste bukaeretan urgentziaren bat baduzu, deitu lasai!

INAUGURAZIOA
Otsailaren 3an, 19:00etan
Etor zaitez gu ezagutzera!



Birjina Mujika eta Yves Roos doktorea

Txirrindularitza hitzorduak Osintxun

Gazte mailako lasterketa egingo dute hil honetan, eta emakumezkoak izango dira ekainean

XABIER URTZELAI | BERGARA

Aurten ere Bergarako auzoak hainbat txirrindularitza proba hartuko ditu, Lokatzak antolatuta. Hirugarren urtez gazte mailako lasterketa hartuko dute, eta baita emakumezkoen proba ere. Lasterketon babesle nagusi Soraluze enpresa 50. urteurreneko ekitaldian murgilduta dabil, eta aurten ere txirrindularitza bultzatzea erabaki du.

Gazteak otsailaren 25ean

Bi lasterketa horien artean lehen gazte mailakoa izango da,

otsailaren 25ean. Lasterketak 85 kilometro izango ditu, baina aurtengo edizioan ibilbidea aldatuko dute. Hasteko, Osintxu eta Zubillaga artean bi itzuli egingo dituzte, eta ondoren Elgoibarrera joan-erria egin beharko dute. Azken kilometroetan hainbat erripa gainditu beharko dituzte probari emozioa emateko.

Ekainean, emakumezkoak

Emakumeen Soraluze S. Coop Sari nagusia ekainaren 16an egingo dute, hain zuzen, Emakumeen Bira eta Espainiako txapelketen



lazo lasterketan elite mailako ziklistak Osintxuko herrigunea zeharkatzen. | JOSETXO ARANTZABAL

artearen egongo da Osintxuko lasterketa, eta asteburu aproposa izango da emakumeen parte hartze handia egoteko. Lasterketa honetarako ere antolatzaileak ibilbidea aldatzeko asmotan dabil, kontutan hartu behar baita emakumeen lasterketetan hiru

kategoria ezberdin batera lehiatzen direla. Aipatzekoa da azken bi urteetan Osintxuko lasterketak zelako parte-hartzea izan duen, maila goreneko Leire Olaberria edota Ludivine Loze moduko txirrindulariak erakarri dituelako, elite mailan. Aipatu behar

da iaz gazte mailan irabazle izan zen Sheyla Gutierrez errioxarrak munduko txapelketan 6. postua eskuratu zuela eta bigarren geratu zen Irene Usabiaga ordiziarrak Europako txapelketa irabazi zuela. Hala, Espainiako ziklista onenak batuko dira aurten ere.

Alex Paton eta Aritz Oiartzabal Lagun Aro saskibaloitza taldeko infantiletan, Errege Koparako

Espainiako Errege Kopa Bartzelonan jokatu dute aurten, eta txapelketa horren barruan egongo diren ekitaldietako bat izango da Mini Kopa. Hala, Lagun Aro saskibaloitza taldeak Alex Paton eta Aritz Oiartzabal aukeratu ditu infantil mailako talderako, Mini Kopa talde donostiarrean jokatzeko. Eta zapatuan izango dute lehenengo entrenamendu saioa, Illunben.

Domeka arratsaldean hartuko du Soraluze BKE taldeak Internacional, Labegaraietan

Bergarako saskibaloitza taldeko seniorrak garaipen bila kantzaratuko dira domeka arratsaldean (19:00) Labegaraietan. Internacional sailkapeneko bosgarren postuan dago, joan den astean irabazi egin zuten, baina ez ziren oso fin ibili taulara begira, 47-36 egin zuten-eta Orbelakoen kontra. Soraluze BKEkoak, berriz, garaipen beharrean daude atzaldeko postuetatik urruntzeko, nahiz eta sailkapena oso estu dagoen.

Lau t'erdiko Soraluze sarian Ander Mugurutzak aurrera segitzen du, Urionari 22-16 irabazita

Lau t'erdiko Soraluze sariak aurrera segitzen du, eta hurrengo kanporaketan etxeko ordezkari bat izango da, martitzenean jokatu dako kanporaketan Ander Mugurutzak 22-16 irabazi zion-eta Urionari -Larrañaga ordezkatu zuen hark-. Beste partiduan indarrak pare-parean egon ziren, eta Urbietak 22-21 irabazi zion Mendinueteri. Hurrengo kanporaketa datorren martitzenean izango da (19:30).

Patxi Ugaldek garaipen batekin hasi du denboraldia, Pauen, Frantzian

X.U. | BERGARA

Beti Bustiko piraguista federatuek joan den domekan hasi zuten denboraldia, Frantziako Pau herrian egin zuten txapelketan. Hitzordu hori Euskadiko ur bizietako eslalom txapelketarako puntuagarria zen, eta Beti Bustik hartu zuen proba antolatzeko ardura -100 piraguista izan ziren.

Bergarako taldetik bost piraguista izan ziren proban, eta Patxi Ugaldek denboraldiari gorputzaldi onean ekingo diola erakutsi zuen, gazte mailan -palista gehien egon ziren kategorian- lehenengo postua lortu zuen-eta. Bergararren artean hura nabarmendu zen, baina ez zen lan ona egin zuen ordezkari bakarra izan.

Hotz galantarekin

Domekan goizean goiz hasi zituzten lasterketak, eta piraguistek ordu hartan egiten zuen hotz



Beti Bustiko Patxi Ugalde, ahalegin betean. | J.UGALDE

galantari egin behar izan zioten aurre. Emaitzei dagokienez, 23 urtez azpiko kategorian Antxo Etxabe seigarren sailkatu zen, gazte mailan Patxi Ugaldek irabazi zuen; Beñat Lizarralde seigarren izan zen eta Aritz Ginbert

zazpigarren. Eta kadete mailan Jokin Labaien zazpigarren sailkatu zen. Euskadiko txapelketako probak hilean behin egingo dituzte, eta Bergarako palistek estatu mailako probak hasiko dituzte ondoren.

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

BEHEKO TABERNA

Menestra
eta untxia dira
gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

CAMACHO

Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

disdira

ile-apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

PINTXOAK eta
OGITARTEKOAK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

Aroztegi aretoko 2012ko egitaraua prest dauka Udalak

A.B. | BERGARA

Aroztegi aretoko batzorde mistoak itxi du 2012an Aroztegi aretoan egingo diren erakusketen egutegia. Amaitu berri

ERAKUSKETAK

- ▶ Patxi Garate
- ▶ Iker Valle
- ▶ Bergarako Ingurumen Saila
- ▶ Udal Artxiboa eta Intxorta 1937
- ▶ Juan Ramon Garai, Intxorta 1937
- ▶ Bergara Hiria
- ▶ Mikel Diez Bravo
- ▶ Carlos Baudillo
- ▶ Jabier Herrero
- ▶ Zalao Fuentes
- ▶ Kirol Argazki Elkarte
- ▶ Jose Mari Ugalde
- ▶ Taila elkarte
- ▶ Buztinzaileen elkarte
- ▶ Beart

den Nekane Lazkanoren argazki erakusketarekin, guztira 16 erakusketa egongo dira aurten Barrenkaleko aretoan. Bergarako Udalak, gainera, dagoeneko aurreratu du 2013an Benito Cantero argazkilaria eta Bingen de Pedro margolaria gonbidatu nahi dituela Aroztegiara.

Aurtengo programazioari dagokionez, 12.600 euroko aurrekontua izango du Aroztegi aretoa 16 artista horien lanekin betetzeak.

Orekarri eutsi nahian

Batzorde mistoak adierazi du egitaraua erabakitzeko orduan arte plastiko ezberdinen arteko oreka bilatu nahi izan dela. Horrez gainera, artisten sexu-errepertatuta, aukera berdintasuna bermatu nahi izan dutela azaldu dute.

Aretoa zabalik egongo da martitzenetik egubakoitzera (18:00-20:30), zapatuetan (12:00-14:00 eta 18:00-20:30) eta domeketan (12:00-14:00).



Joan den urteko Aratuste kontzertuko irudia. | JOSETXO ARANTZABAL

'Ai Amatxo' musikalak irekiko du Aratusteen egitaraua hilaren 17an

Udal Musika Bandaren eta Orkestra Sinfonikoaren kontzertuak dantzan ipiniko ditu bergararrak

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Nork ez ditu behin edo behin Abbaren *Mama Mia*, *Dancing Queen* eta *Waterloo* kantu ezagunak abestu? Bada, aurten Aratuste kontzertuarekin Abbaren garai onenetara bidaiatuko dute bergararrak. Dena dela, Greziako irla eder horietako batean beharrez, landetxe batean kokatuko dute kontakizuna eta *Ai Amatxo* ipini diote izena. Dantzak eta barre algarak ziurtatuta daude.

Testuaren moldaketa Manu Diazek egin du eta zuzendari lanetan, azken urteetan bezala, Javi Burgos ibiliko da. Kontzertua hilaren 17an, egubakoitza, izango

da Udal Pilotalekuan, 22:30ean. Emanaldiak bi zati izango ditu: lehenengo zatian, Bergarako Udal Musika Bandak 70eko hamarkadako musikan oinarritutako kontzertua eskainiko du; eta ondoren etorriko da *Ai Amatxo* musikala. "Oso kantu ezagunak joko ditugu, guztiok ezagutzen ditugunak, eta oso dantzarriak, gainera. Aurten zerbait alai egin nahi izan dugu", kontatu digu Orkestra Sinfonikoko eta Udal Musika Bandako zuzendari Alfredo Gonzalez Chirlaquek.

Kontzerturako sarrerak salgai daude, zazpi euroren truke, kultura etxean eta Lazkano oinetako-dendan.

Pirritx, Porrotx eta Marimotots

Hilaren 18an ere, zapatua, Udal Pilotalekua kolorez jantziko da. Azken urteetan bezala, aurten ere Bergarako txikitxoek Pirritx, Porrotx eta Marimototsekin batera ospatuko dituzte Aratustean. *Zazpikoloroa* ikuskizuna aurkeztera etorriko dira. Bi saio egingo dituzte: 16:00etan eta 18:30ean. Sarrerak otsailaren 6an eta 7an salgai ipiniko dituzte, Udal Pilotalekuko leihatilan, 18:00etatik 21:00etara. Pertsona bakoitzak gehienez sei sarrera hartu ahal izango ditu. Ikusizunaren egunean oraindik sarrearik egongo balitz, 15:00etan ipiniko dira salgai pilotalekuko leihatilan.

Mozorro afarirako txartelak

Bestalde, Udalak aurten ere mozturro afaria antolatu du zapatu gauerako. Oxirondo azokan egingo da eta otsailaren 12a da txartelak erosteko azken eguna. Depor eta Ariznoa tabernetan eta kultura etxean eskura daitezke txartelak, 15 euroren truke. Janari berezia behar duenak otsailaren 10a baino lehen jakinarazi behar du kultura etxean.

'Herrixa dantzan' ekimena egingo dute domekan Zabalotegin

Herrixa dantzan dantzaldi irekia egingo dute berriro ere domekan. Betiko moduan, Patxi Monteroren gidaritzapean egingo dute dantza, 18:00etan hasita, Zabalotegin. 18:00etan haur eta gurasoendako dantzak egingo dituzte eta 19:00etan, helduendako dantzak, batez ere.

Selena Lizarburuk margolan erakusketa inauguratuko du gaur

Selena Lizarburu Gallastegi bergararrak olio-pintura erakusketa ipiniko du Nahikari tabernan. Inaugurazioa gaur, egubakoitza, izango da, 19:30ean, eta margolaria bera bertan izango da. Lizarburu Beart elkarteak kide da, baina erakusketa hori bere kabuz egitera animatu da.

Gaztetxeko zinekluba berriz ere abian otsailetik aurrera

A.B. | BERGARA

Bergarako Gazte Asanbladak Elo-suan egin zuen kongresuan, zinema emanaldiekin segitzeko aukerak aztertu zituen, eta, orain, erabaki dute aurrerantzean zineklubaren ardura pertsona finko batzuen izan beharrez bikoteka txandakatzen joatea. Beraz, Bergarako gaztetxeko zinekluba, atsedendaldi txiki bat hartu eta gero, bueltan da. Domeka honetan bertan eskainiko dute lehenengo filma: *Radiofabela*. Otsailaren 12an, berriz, *El Tercer Hombre* filma ikusteko aukera izango da.

Eguna eta ordua lehenengo berak izango dira: domeketan, 18:00etan. Maiztasuna, ordea, aldatu egingo da: hilean bi emanaldi egongo dira, hamabostean behin. Edozeinek proiektatu ahal izango du film bat, Asanbladan eguna hartuta.



SAN LORENTZO AUZOA

B E R G A R A

Logela bateko etxebizitza

139.000 €-tik aurrera

23.127.654 pta

Bi logelako etxebizitza

168.000 €-tik aurrera

27.952.848 pta

Hiru logelako etxebizitza

216.000 €-tik aurrera

35.939.376 pta

- 1, 2, 3 eta 4 logela, sukaldea barne.
- Garaje eta trastelekuak

Lehen ~~BEZ-a %8~~ Orain Etxebizitza berria **BEZ-a %4**

Etxebizitza bukaera 2012

Erakitzalea

INGESLAN
CONSTRUCCIONES



Sustatzalea



Argibidea eta Salmenta

943 424 430
www.ormak.es

Zubillagako hiltegia berritu egingo dute, zerbitzua hobetzeko asmoz

Udalaren baimena jasota, martxo-apiril aldera hasiko dituzte lanak

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Zubillagako Hiltegia eraberritu eta handitu egingo dute. Lan horiekin, hiltegiaren egungo egoera hobetu egin gura dute. Udalak eman du lanak egiteko baimena. "Gure asmoa da martxo edo apiril aldera hasia. Baina oraindik ere data zehaztu barik daukagu. Lanak ordaintzeko dirua ia lotu dugu. Eraberritzea hasia falta zaigu", esan digu Zubillagako Hiltegia SL enpresako gerente Iraia Solak.

Teknologia berrietara egokitu

Bi lan nagusi egingo dituzte hiltegiaren: egungo eraikina handitu egingo dute, ekialdetik, 75 metro koadro gehituta; eta hegoaldean 240 metro koadro inguruko aterpe metalikoa egingo dute. "Osasun Saisetiko egindako eskaerei erantzuteko lanak dira. Zubillagako Hiltegiak 30 urte ditu, eta, beste horrenbeste irauteko, teknologia berrietara egokitu behar dugu", esan digu Solak.

Eraikina bera handitzeaz gain, barruan beste hainbat lan egingo dituzte. "Kortak egokitu eta txukundu egingo ditugu, eta hiltze-linea luzatu egingo dugu. Gainera, animaliak gordetzeko hotzganberak txukundu egingo ditugu, hotza sortzeko sistema berritu egingo dugu eta animalien barruko tripak-eta gordetzeko gela egokitu eta txukundu egingo dugu", kontatu digu Solak.



Hiltegiako abere-hiltzaileak lanean. | MIREIA BIKUÑA

IRAIA SOLA | ZUBILLAGAKO HILTEGIKO GERENTEA

"Kudeaketa berriko lehen urtea, ona"

2011n hasi ziren kudeaketa berriekin lanean Zubillagako Hiltegiaren. **Zer moduz kudeaketa berriarekin?**

Pozik. Balorazio positiboa egiten dugu. Kudeaketa berriekin, egunerokotasuna askatasun handiagorekin antolatzen dugu. Lehen, Mankomunitatearen jabetzakoa zenean, kudeaketa publikoa zeukan



Iraia Sola. | M.B.

eta edozein prozesu hasteko Mankomunitatearen baimena behar genuen: erosketa egiteko, kontratazioa egiteko... Oraingoa kudeaketa pribatuaren antzekoa da.

Krisiak eragina izan du?

2011 ondo bukatu genuen. Animalia gutxiago hil genituen, batez ere azken hiruhilekoan, baina ezin gara kexatu.



Horiek dira Zubillagako Hiltegiaren lan egiten dutenak.

Lanak eginda, Zubillagako Hiltegiak ematen duen zerbitzua hobetu egin gura dute.

Eguaztenetan garbiketa sakona

Hamar lagunek egiten dute lan hiltegiaren: gerenteak, administratzaileak eta zortzi abere-hiltzaileak. 06:00etan hasten dira lanean, 14:00ak arte, baina animaliak 10:00ak baino lehen entregatu behar dira.

Astean hiru egunean hiltzen dituzte animaliak: astelehenetan, martitzenetan eta egubakoitzetan. Ganaduzale bakoitzak ardiak, txahalak edo bildotsak entregatzen ditu. Hiltegia arduratzen da pieza bakoitza dagokion harategira bidaltzen. "Saiatu gara hiltzetan asteko hiru egunetan banatzen. Orain, hiru egunetan antzeko animalia kopurua jasotzen dugu. Eguaztenetan ez dugu animaliarik hiltzen. Egunero garbitzen dugu hiltegia, baina eguaztenetan garbiketa sakona egiten dugu".

Aholkatu dute nork bere bizikleta markatzea

Lapurretak egonez gero, bizikleta errazago identifikatzea lortu gura du Udaltzaingoa

M.B. | OÑATI

Nork bere bizikleta errazago identifikatzeko marka bat egitea edo argazki bat ateratzea aholkatu du Udaltzaingoa. Zertarako? Bada, gure bizikleta lapurtzen digutenean, markaren edo erretratuaren bidez identifikazioa errazteko. "Bizikletak erraz lapurtzen dira. Asko egoten dira zaintza barik, eta, askotan, lotu barik. Lapurreta salatzen denean, bizikleta identifikatzeko eta norberarena dela frogatzeko baliagarriak diren markak edo beste egitea aholkatzen dugu", esan digute.

Marka edo erretratu egin

Markak egin daitezke, bizikletaren edozein lekutan, ezkutuan: boligrafoarekin, zinta batzuekin, pegatinekin... Beste aukera bat erretratu egitea da. Argazki hori

izan daiteke bizikleta erreklamatzeko froga.

Salaketa ipini ondoren, zer?

Oñatin, hilero, lau-pabost bizikleta desagertzen dira, batez beste. Udaltzaingoa salaketa ipini ondoren, lapurreten berri ematen dute Ertzaintzan eta epaitzean, lapurtutako bizikletak agertzen badira, salaketa jarri dutenei abisua eman diezaizuten.

Orduan frogatu beharko dugu bizikleta gurea dela: markarekin edo erretratuarekin.

Bestalde, bizikletak lotuta uztea aholkatzen dute. "Lotuta daudenak ere lapur ditzakete, baina zailagoa da. Neurriak hartu behar ditugu, batez ere, denbora luzean leku berean utzi behar badugu".



Bizikletak aparkatuta Zubikoa kiroldegi aurrean. | MIREIA BIKUÑA

NIRE USTEZ

ARGITXU PEROSTERENA



Denda txiki horiek...

Behin edo behin ikusi izan dugu lehendakaria merkataritza-gune erraldoi bat inauguratzen. Bai badakigu lanpostuak sortzen dituztela, merkeagoak direla (kalitate berarekin?), ... baina ni ez noa "erraldoi" horiei buruz hitz egitera, inongo meritu-rik ez dutela uste dut-eta!

Ni txikiagoez hitz egitera natorkizue: horiek bai meritu! Gaurko krisiaren aurrean egunero-egunero euren atea irekitzen dituzten negozioak! Inor konturatu al da zenbat eta zenbat dendak itxi dituzten atea betiko azken urte hauetan? 2010. urtean Donostian 200 bat negozio; Oñatin, azken lau urteetan, 17 inguru.

Eta zenbat ireki dira? Gure kaleak nola daude? Zer gertatzen ari da? Urte batzuk barru non egingo ditugu gure erosketak?

Bada Oñatin kale bat (Kale Zaharra) ia negozio gabe gelditzen ari zena. Gazte batzuen ausardiari esker berriro ere bizitza hartzen hasi da. Ausartak diot, bai, bizi ditugun garai hauetan oso ausarta izan behar delako negozio bat irekitzeko, arriskatu eta aurrera egiteko. Eta hori da egin dutena. Zorte ona eta bizitza luzea opa diet!

Era berean, eskerrak eman nahi dizkiet egunero euren herrietako dendetan erosten duten herritarrei, herriak bizirik mantentzen laguntzeagatik. Gure kaleak = merkataritzagune!

"Lau urteetan 17 denda itxi dituzte hemen; 2010ean Donostian, 200"

Eski irteerarako izen-ematea astelehenetan

Aloña Mendiko eski sailak aste bukaerako irteera egingo du hilaren 24tik 26ra Baqueira Bertera. Eta martxoan eski-zeharkaldi ikastaroa egiteko asmoa dute. Hiru maila izango ditu: hasierakoa, ertaina eta aurreratua. Interesatuak izena eman beharko dute Aloña tabernan, astelehenetan, 19:00etatik 20:00etara arte.



Aloñako jokalariek eta entrenatzailea, ligako azken partidua bukatu ondoren, Zubikoan. | EIDER QUINTAS

Aloñako neskek Euskal Ligako gorengo mailan

Idurre Elortzak zuzentzen duen senior mailako taldeak igoera lortu du

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Aloña Mendi eskubaloia saileko senior mailako nesken taldeak Euskadiko talde indartsuenen kontra jokatu du irailtik aurrera. Hau da, euskal ligako gorengo mailan jokatu du, aurreko aste bukaeran igoera lortu ondoren. "Denboraldi hasierako helburua bete egin dugu, eta pozik gaude. Gogotsu gaude gorengo mailan jokatzeko, baina badakigu gogorra izango dela. Talde indartsuagoen kontra jokatu beharko dugu", esan digu Idurre Elortza entrenatzaileak.

Aloñako neskek badakite zeren gorengo mailan jokatzeko. Maila horretan jokatu dutenean, baina, arazo asko izan dituzte, eta maila galdu izan dute.

Aurtengo talde berbera

Aurten Euskal Ligako preferente mailan jokatu dute, aurreko denboraldian lortutako igoerari uko eginda. "Taldeen, jokalarien artean, hainbat aldaketa egon ziren. Talde gaztea osatu genuen eta gorengo mailan jokatzeko esperientzia falta genuela ikusi genuen. Hori horrela, uko egin

genuen. Preferente mailan jokatu dugu. Esperientzia hartu eta irailtik aurrera, gorengo mailan jokatzeko taldea indartu dugu", esan digu Elortzak.

Hurrengo denboraldiari begira, talde bera mantenduko dutela uste du. "Akaso bajaren bat egon daiteke, baina talde bera izango dugula uste dut. Gazte mailako jokalariek bakarrik igo dezakegu, eta gurekin jokatzeko gogoia dauka", diote.

Idurre Elortzak entrenatzaile eta jokalaririk lanak egin ditu. Jarraitzeko asmoa dauka. "Ni atezaina

naiz, eta aurten lau izan ditugu. Hori horrela, txandakatu egin gara. Entrenatzen jarraitzeko asmoa daukat", dio.

Taldea mantendu arren, denboraldi "zaila" izango dela aurreratu digu. "Aurten Gipuzkoan jokatu ditugu partiduak. Hurrengo denboraldian, berriz, Bizkaian jokatu dugu: Leioan, Portugaleten, Basaurin, Bermeon... Bizkaian irabaztea oso zaila da. Arabako taldeen kontra ere jokatu beharko dugu", esan digu.

Nesken talde gutxi

Aloña Mendiko senior neskek bost taldeko ligan jokatu dute: oñatiarrekin batera, Ereintza, Egia Bera Bera, Leizaran eta Zarautz lehiatu dira. "Txapelketa eskasa izan da. Nesken talde geroz eta gutxiago daude. Hori horrela, preferente maila gainbehera etorri da. Liga motza eta eskasa jokatu dugu. Horregatik erabaki dute, hurrengo denboraldiari begira, gorengo maila indartsuagoa egitea".

Hori horrela, 10-12 taldeko liga ipiniko dute abian.

Bi txapelketa gehiago

Bost taldeko liga jokatu eta bukatu ostean, denboraldia luzatzeko asmoz, beste bi txapelketa jokatu dituzte: preferente mailan egon diren bost taldeek beste ligaxka bat jokatu dute Aste Santura arte; eta oporren ondoren, gorengo mailan dauden taldeekin batera, kopa txapelketan sartuko dira buru-belarri.

Kopa txapelketan izango dute hurrengo denboraldian izango dituzten kontrarioekin lehen hartu-eman. "Kopa txapelketa denboraldia luzatzeko jokatzeko da. Gure kasuan, gainera, bost taldeko liga izanda, beste txapelketa batzuen beharra daukagu denboraldia luzatzeko", diote.

Futboleko prestakuntza integralaren gaineko mahai-ingurua

Aloña Mendiko futbol sailak antolatuta, mahai-ingurua egingo dute Bittor Alkizak, Iker Egañak eta Jon Urtzelaik gaur, egubakoitza, kultura etxean, 19:00etan. Aratz Losada izango da moderatzailea. Aloña Mendiko jokalariek, guraso eta entrenatzaileendako mahai-ingurua da. Herriarrek galderak egiteko aukera izango dute.

Bittor Alkiza jokalaririk ohia Realeko harrobiko taldeen prestakuntzaz arduratzen da. Iker Egaña oñatiarra Athleticeko prestakuntzaile fisikoa da eta Jon Urtzelaik, 15 urtez jokatu ondoren, futbola utzi du.

Santa Ageda eskean irtengo dira kintoak domekan

Azken asteotan asko entseatu ondoren, herriko kintoek dena gertu dute Santa Ageda eskean irteteko. Ohiturei eutsiz, bigarren egunean ibiliko dira kalerik kale kopla kantari eta dirua batzen: etzi, hilaren 5ean, herriko kale nagusienetan ibiliko dira eta hilaren 11n auzoetara egingo dute bisita.

80-90en bat gazte irtengo dira kalera. Baserritar jantzita eta trikitien laguntzarekin, Santa Agedaren omenezko kantuak abestuko dituzte. Etxerik etxe pasatuko dira dirua batzeko. Etzi, herriko kale nagusiak alaituko dituzte euren koplekin eta doinuekin.

Atletismo taldea, Espainiako txapelketara

M.B. | OÑATI

Irungo krosean bigarren lekuan sailkatu ziren taldeak. Euskadiko txapelkunorde izan ziren, eta otsailaren 19an Castellon jokatu duen txapelketan parte hartuko dute. Sergio Gartzia, Walid Ouallik, Alberto Revueltak, Una Hernandezek, Tasio Gomezek eta Kike Ceciliak egindako lanari esker lortu zuten Espainiako txapelketarako txartela.

Bakarkako emaitzak kontuan hartuta, aipagarria da Sergio Gartziaaren laugarren lekua. Ouallik 13. sailkatu zen, Revuelta 29., Hernandez 31., Gomez 46. eta Cecilia 52.

Sara Gomez zortzigarren heldu zen helmugara, eta gazte mailako Euskadiko selezioarekin parte hartzeko aukera galdu zuen.



MUSIKA ESKOLA

"Gogotsu", Andoaingo jaialdira

Jose de Azpiazu musika eskolako bost ikasleek aste bukaerako Andoaingo piano jaialdian parte hartuko dute. Marta Igartzabal bakarkako modalitatean eta A mailan lehiatuko da eta Enaitz Ibabe eta Eneko Ibabe, B mailan. Bestalde, lau eskuetara deritzonean modalitatean, B mailan, Lide Mantxolak eta Sara Mantxolak parte hartuko dute. "Gogotsu" doaz ikasle oñatiarrak. Azken asteotan gogor entseatu dute.

Kukutza astea bukatzeko azken ekitaldiak gaurtik

Antzerkia, bazkaria, zirkua eta kontzertua

M.B. | OÑATI

Bihar, zapatua bukatuko dute Kukutza astea, baina oraindik badago zer ikusi.

Gaur, bertsoak, poesia eta antzerkia izango dira. 18:00etan, gaztelekuko III. bertso-paperekin lehiaketa egingo dute; 18:30ean, *Monstruok* antzez-lana eskainiko dute Zuazola institutuko aretoan; azkenik, poesia errezitaldia eta te-datatzea egingo dituzte. Biak ala biak, 22:00etan, Arrano tabernan.

Zirkua eta kontzertua

Zapatuan, 11:00etan, askotariko ekitaldiak egingo dituzte Foru plazan: rokodromoa, zirkua tailerrak eta grafitiak. 14:00etan, bazkaria egingo dute kiroldegiko pilotalekuan. Txartelak salgai daude Arra-

no, Boga eta Xagu tabernetan eta kultura etxean.

Azken bi ekitaldiak zirkua emanaldia (18:30) eta kontzertua (22:00) izango dira.

PATXI CASTRO




Era guztietako aulkien konponketa

- Tapizatu lanak
- Zumezko eta kanaberazko artikuluen salmenta
- Besaulki, mahai, saskiak e.a

943 78 71 65
639 01 69 69

Zaborraren gainean eztabaidatzeko Ingurumen batzordea elkartuko da

Zaborraren kudeaketaren gaineko mozio bi aurkeztu zituzten osoko bilkuran

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Ohiko osoko bilkura egin zuen udalbatzak astelehenean, eta lau mozio eztabaidatu. Horietako bi zaborraren gainekoak ziren, bata PSE-EEk aurkeztutakoa, eta bestea EAJk. Gainera, Udalaren hizkuntza politika onartu zuten bilkuran.

Zaborra batzeko atez ateko sistemaren kontrako mozioa aurkeztu zuen alderdi sozialistako zinegotzi Ainhoa Sagarribaik. Eta EAJko Mikel Uribebarria eskatu zuen orain daukagun sistema, hau da, organikoarendako bosgarren edukiontzia, bultzatu eta indartzea: "Oraingo zabor bilketa bultzatzeko ez da nahikoa egin eta horri etekin handiagoa atera behar diogu".

Bolinaga alkateak argitu zuen oraindik erabakirik hartu barik dutela: "Aztartzen gabiltza erabaki bat hartzeko, baina aurretik informatu, hausnartu eta herri-tarrek kontrastatu gura dugu". Eta EAJrekin bat etorri zen birziklapena bultzatu beharra dagoela esaterakoan: "Hori dugu orain, baina ez gatoz bat hori denik egokiena esaterakoan". Eta Aralar ere ez zen bat etorri mozioek ziotenarekin, "baieztapen itxiak" direlako; aztartze prozesu bat zabaltea eskatu zuen.

Lore Martinez Ingurumen zinegotziak eskatu zien bi alderdiei mozioak erretiratzeko "batzordean eztabaidatu barik aurkeztu dituztelako", baina ez ziren horren alde agertu besteak. Behin bozketak eginda ez zen mozioetako bat ere onartu, Bilduko sei zinegotzik aurkako botoa eman zutelako eta Aralar abstenitu. Bildu-

ko Edorta Mendieta zinegotziak argitu gura izan zuen bosgarren edukiontzia aldea dela, eta ez datorrela bat atez ateko bilketa sistemarekin. Bukatzeko, Ingurumen batzordea deituko zuela jakinarazi zuen Martinezek eztabaidarekin jarraitzeko.

Mozio bakarra onartuta

PSE-EEren bigarren mozioa udal-lek Aldundiari itzuli beharreko diruaren gainekoa izan zen. Hori ere erretiratzeko eskatu zion Martinezek, "Aldundiak oraindik ez duelako horren gaineko erabakirik hartu", baina Sagarribai ez zen bat etorri, eta bozkatu ondoren atzera bota zuten. Onartutako mozio bakarra ume jaiaberrien bidegabeko jabetze edo adopzioen gainekoa izan zen; hura ere alderdi sozialistak aurkeztua. Horrekin guztiak etorri ziren bat; aho batez onartu zen.

Udal aurrekontua atzeratu

Bestalde, atzo zen egitekoa beste bilkura bat 2012ko udal aurrekontua eztabaidatzeko. Baina EAJko eta PSE-EEko zinegotziak ez ziren konforme agertu: "Ogasun batzorde bakarra egin eta aztartze denborarik ez dutilako izan". Horregatik, atzeratzea erabaki zuten bilkura hori.

ESANAK

"Oraingoa bultzatu eta indartu beharra daukagu"

MIKEL URIBETXEBARRIA | EAJ

ESANAK

"Atez atekoa aztartzea eta hausnartzea gura dugu"

ANA BOLINAGA | BILDU

Gaurtik domekara Santa Ageda neska-mutilak kantuan eta eskean

M.A. | ARETXABALETA

Badatoz Santa Ageda neska-mutilak kantuan eta eskean. 1993an jaiotakoak ibiliko dira aurten, eta gaur bertan ikusiko ditugu lantegi, denda eta ikastetxeetan. Izan ere, Santa Ageda eguna, otsailak 5, domeka da, eta orduan itxita egongo diren lekuetara gaur joatea erabaki dute. Baimena eskatu diote Udalari, eta

honen oniritzia jaso ere bai. Gaur iluntzean, gainera, dantza entsegu orokorra egingo dute txistulariekin batera, Iturrigorri pilotalekuan.

Bihar, Santa Ageda bezpera, baserriz baserri ibiliko dira, eta domekan, kalean. Egundorretan, beti legez, dantza saioa eskainiko dute Herriko Plazan (19:00).

Kepa Urrarengana Almeriara joateko dei egin dute, otsailaren 24rako, eta autobusa antolatu

Aretxabalek Egin Bidea taldeak martxa antolatu du Almeriara joateko, Kepa Urraren 20. urteurrena bete dela eta. Otsailaren 24an, egubakoitza, aterako da autobusa Andaluziarantz, eta hurrengo egunean, zapatua, itzuli. Izena emateko epea dagoeneko zabaldu dute, eta honako tabernetara jo dezakete herri-tarrek eta interesatuek: Urbaltz, Zeraia eta Txiki Bar.

Bertso afaria egingo du Loramendi elkarteak hilaren 10ean, Andoni Egaña eta Igor Elortzarekin

Urtero egiten duen bertso afaria antolatu du Loramendik, eta Andoni Egaña eta Igor Elortza bertsolari ezagunak gonbidatu. Otsailaren 10ean, egubakoitza, izango da, Uratz-Alde elkartearen, eta sarrerak salgai dituzte: Loramendin -udaletxe zaharra- eta Taberna Berri jatetxean -elkarteko bazkideendako, 15 euro, eta gainerakoendako, 18 euro-. 70 lagunendako izango dela tokia aurreratu dute antolatzaileek.

Liburu elektroniko bi zozketatuko ditu Lanbide Eskolak sare sozialetako jarraitzaileen artean

Aretxabaleta Lanbide Eskolak sare sozialetan dituen jarraitzaile guztien artean bi liburu elektroniko edo e-book zozketatuko ditu. Ikastetxeak otsailaren 17a artean Facebook, Tuenti, Twitter eta Youtube dituen jarraitzaile guztien artean egingo dute zozketa. Argibide gehiago gura dituenak jo dezala Lanbide Eskolaren webgunera: www.iaretxabaleta.com.

Txapel Txin | Aratusteen iragarlea

"Otsailaren 11n mundu guztia espero dut plazan txapela buruan daramala"

Aratusteak iragarriko ditu orduan, eta koadrila asko dabilzala mozorroa gertatzen aurreratu du

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Otsailaren 11n etorriko da Txapel Txin gurera Aratusteak iragarzera. Kontutxo batzuk aurreratzeko eskatu diogu.

Gustura Aratusteak datozelako?

Oso gustura! Urte guztia pasatzen dut munduko Aratusteetan ideiak hartzen, etxera etorri eta pregoia botatzeko. Gainera, bost urte beteko dira lehenengoz etorri nintzenetik, eta oso polita da hori.

Zelako txapela jantziko duzu?

Oraindik ez dut oso argi, MariMerketik pasatzeko aukerarik ez dut izan-eta; hori bai, seguru originala izango dela.

Eta pregoian zer esango diguzu?

Krisi garai honetan Aratusteak topera disfrutatzeko gomendiotxo batzuk prestatuko ditut, eta jaiak giro eta umore onean pasatzera animatuko zaituztet.

Bazabiltza Aratusteetarako mozorroa gertatzen?

Bai, bai, ia prest daukat; Taxoa-retik bueltatzen naizenerako dena edukiko dut prest.

Eta seguru asko jakingo duzu herri-tarrak zelako mozorroak gertatzen dabilzatan. Zerbait aurreraterik?

Jakin badakit lokalean koadrila asko ari direla lanean, eta, gainera, aurten gauza handi asko egiten dabilzta; musika eta giro alai ez dira faltako.



Txapel Txin. | KARNABALEN LAGUNAK

Gustuko duzu Aratusteetan gure kaleetan izaten den giroa?

Oso gustuko dut; urteko egunik politena izaten da niretzat. Egundorretan aretxabaletar guztiak, txiki eta nagusi, kalean disfrutatzen ikustea da politena. Gainera, aretxabaletarrok zoratzeko dugun ahalmen guztia erabiltzen dugu

"Lokalean koadrila asko dabilzta lanean eta gauza handiak egiten, gainera"

eta hori igarri egiten da goizeko lehenengo ordutik hurrengo goizaldera arte. Denbora luzean ibiltzen gara prestatzen eta nik, egia esan, aurreko egunean lorik ere ez dut egiten nerbioak jota.

Mondragoeko Inauteriak indarra hartzen doaz azken urteotan eta Aretxabalekoen gainetik jarriko diren beldurrik ez dago?

Gugandik asko ikasi dutela argi dago, urte asko pasatu dituzte -eta gure artean, baina ez dago beldurrik. Gurean urte askotako kultura dugu, generazioz generazio pasatzen joan dena eta beti izango ditugu Aratuste onenak.

Facebook-en orri duzu; zaleek jarraipena egiten dizute?

Bai, jarraitzaile asko ditut, eta bertan jartzen ditut nire argazkiak, bideoak eta abestiak.

Besterik esan gura baduzu...

Otsailaren 11n mundu guztia espero dudala Herriko Plazan txapela buruan daramala; kristoren txistorra jana egingo dugu eta behin tripa beteta... ez dago gu geldituko gaituenik! Aratuste -domekarako, herriz, badakit Aretxabalek erantzungo duela, eta desiratzen nago aurten ere harrituta geratzeko!

OHARRAK

SAN BLAS EGUNA

Gaur, San Blas eguna, Apotzagaetxebarri auzoko Salluente ermitan meza esango dute (10:30) eta jakiak bedeinkatu gero. Parrokian ere esango dute meza ilunkaran (19:00) eta gero jakiak bedeinkatu.

'PIRATA GARRAPATAREN ISTORIOAK' BIHAR

Umeek *Pirata Garrapataren istorioak* ikuskizuna dute bihar, liburutegian (11:30).

GURASOENDAKO PRESTAKUNTZA SAIOAK

Kurtzebarri eskolak antolatu eta Udalak lagunduta bi prestakuntza saio egingo dituzte gurasoendako: *Drogen gehiegizko kontsumoa*, hilaren 7an eta 9an; eta *Alkoholaren kontsumoak aztartzen*, hilaren 15ean. Biak dira Arkupen (18:00-19:30). Drogen gainean berba egitera Arrasateko San Juan de Dios ospitaleko adituak etorriko dira; eta alkoholaren gainean jardutera, Alkoholiko Anonimoak taldeko kideak.

Autobusen ibilbidea zehazteko seinaleak laster

Loramendi kaletik doaz autobus asko Araba ibilbidetik joan beharrean; hori zuzenduko dute

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Autobusen ibilbide berriaren arabera, Arrasatetik Eskoriaztara doazenek Belorrietako biribilguneetik Araba ibilbidera jo behar dute. Hori egin beharrean, baina, gehienak Loramendi kaletik segitzen dute aurrera, eta bertako bizilagun asko harrituta eta haserre daude. Honela jakinarazi du kale horretako bizilagun batek: "Zergatik datoz Loramenditik? Udalak ezarritako ibilbidea bete dezatela gidariek, edo betearaz diezaietela. Hemen nahiko zirkulazio dugu bestela ere".

Hitzartutakoa bete ez

Udala ere jakinaren ganean dago, eta Pesako arduradunekin batzarra egin du: "Autobus gidari batzuek ibilbide hori ez dutela bete gura diote orain. Elkarren artean hitzartu genuen, Trafiko Sailarekin batera; hortaz, bete dezatela orain", jakinarazi du Ana Bolinaga alkateak.

Hori betearazteko, autobusendako seinaleak jarriko ditu Udalak; hau da, Loramendi kaletik pasatzeko debekua eta Araba ibilbidetara hartu beharra: "Hala, betetzera derrigortuta egongo dira", gaineratu du.



Autobusa Belorrietako biribilgunean. | M.A.

Odei Vazquez nagusi kumite modalitatean

Hondarribian jokaturako Gipuzkoako karate txapelketan lehenengo postua eskuratu du Odei Vazquezek, kumite modalitatean (60 kiloz azpikoa). Otsailaren 12an Euskadiko txapelketa jokatu du Gasteizen. Eta benjaminek, alebinek eta umeek eskualdeko txapelketa jokatu dute domekan Eibarren.



ODILO VAZQUEZ

NIRE USTEZ

KATALIN ANTIXIA



Mugak

Erasmus beka lortu eta Triesten egin nuen urtebete Eslovenia eta Kroaziarekin mugan. Erasmus beka lortu gabe Ziburun daramatzat sei hilabete, mugan berriro.

Egunero Hendaian hartzen dudana trenak Irunen atek zabalitzen dituenean, lasaitasun osoz

irakurtzen nindoan liburua berriro poltsan sartu behar.

Baguetteak, euskual pastiza eta ordutegi goiztiarrak souvenirren paradisuan. Alkohola, tabakoa, sekulako kale giroa eta hizketaldi ezin ozenagoak eraikin ezin itsusiagoen paradisuan.

Tren geltoki bat atzera eta gaztelarak ez dizu ezertarako balio, tren geltoki bat aurrera eta inork ez daki frantsesez.

Herri baten eta bestearen arteko ezberdintasunak, distantziak sortu baino gehiago, mugak mantentzen ditu. Estatuak ongi inguratutako soluzio saturatuak dira.

Triesten ere segituan ulertu nuen. Hondartzara eta gastronomiaz goatzera Kroaziara eta italiaraz hitz erdirik ez. Gune sozial aktibo paregabeetara Esloveniara eta parte hartzen baduzu askoz hobeto. Italiar kultura puru-purua jaso eta arkitekturaz deliratzeko Triesten gelditu eta hobe zerbait elegantea eta iluna jantzi.

Zenbat aurretiko prestaketa beste aldean integrazioa irabazteko. Zenbat miaketa, zenbat misterio, zenbat begirada pisutsu mugak. Eta zenbat arazo garraio publiko eta telefono mugikorrenkin.



Pausoka
HAUR ESKOLA

2012-2013 ikasturtea

Izena ematea: **urtarrilaren 30etik otsailaren 10era**

Ordutegia: 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara



TALDE EGOKITUAU

- 0 eta 3 urtera arteko haurrak talde egokietan

ORDUTEGI ZABALA

- 07:30etik 18:00etara
- Ordutegia moldatzeko aukera

JANGELA ZERBITZUAU

- Bertan gertatutako janaria
- Haur bakoitzari egokitutako dieta

EGUTEGI ZABALA

- Egutegi eskolarraz gain, Gabonetan, Pazko astean eta Uztaila zabalik.

LOGELA



Txiki txikitatik jolasten heziz

BELORRIETA 8. ARETXABALETA. Tel.: 943 77 03 77



Joan den urtean askotariko urteetako kintoak elkartu ziren. | GOIENA

Santa Agedako koplak abesten eta eskean ibiliko dira 1994ko kintoak

Eingeinkek Kinttada Eguna deitu du biharko, zapatua, bigarrenez

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Heldu da osterera ere Santa Ageda, eta, horrekin batera, 1994an jaiotako neska-mutilen ezdarriak geratu daude koplak abesteko. Ohiturari jarraituz, gaur, herriko lanegietan ibiliko dira eskean eta bihar, goizean goizetik baserri-erri joango dira.

Aurtengo Santa Ageda neska-mutilak eskean dabiltzan bitartean, beste urteetako eskoriatzarrek hitzordua egin dute eguerdirako. Eingeinkek antolatuta, Kinttada Eguna egingo dute bigarrenez. Joan den urtean ekintzak izanda-

ko harrera ona ikusita, aurtengatik berriro egitea erabaki dute. Dagoneko 14 koadrilak parte hartuko dutela jakinarazi dute; tartean, 1958an jaiotakoak. Txapela edo zapi gorria gainean dutela, eguerdian tabernaz taberna ibiliko dira askotariko kintoak, eta jarraian bazkaltzera joango dira.

Banako herrikoa

Kinttada Eguna antolatzeke egingo dute batzarrean hainbat proposamen egin zirenean; hori kontuan izanda, egitaraua zabaltzea erabaki dute. Hala, arratsaldean,

19:00etan, banako herrikoa egingo dute. Eingeinkek gogorarazi dute herritar guztiak daudela dantza egitera gonbidatuta, eta etxean fandangoa eta arin-arina ondo entseatzeko dei egin dute. Gauean, 23:00etan, Ingo Al Deu? taldearen kontzertua izango da plazan.

Eskoriatzan ohitura handiko jaia da Santa Ageda; kintoak dira egun horretako protagonistak. Ohitura horrek XVII. mendean ditu sustraiak. Mutilak soldadutzara joateko hautatzeko, zozketa egingen zen orduan; bost mutileta-

tik bat mobilizatzen zuten; hortik dator *kinto* berba. Santa Ageda egunean protagonismoa hartzen zuten, zetorkien urte gogorren aitzakian. 2001ean soldadutzara joateko beharra kendu bazen ere, gazteek ohitura horrekin jarraitu zuten, eta 2007az geroztik, emakumeek ere bete-betean parte hartzen dute jaian. Egun horretako "nostalgia" leuntzeko asmoz, joan den urtean hasi ziren Kinttada Eguna egiten.

Bestalde, domekan, Santa Ageda neska-mutilen dantza izango da, 19:00etan, plazan.

Aurrekontuak eztabaida sortzen dihardu

M.B. | ESKORIATZA

Aurtengo aurrekontuak ika-mika sortu du. Hasiera batean, proiektuak gizarte arloan aurreikusitako murrizketak zirela-eta horren kontra bozkatzeko asmoa bazuen ere, alkatearen azalpenak entzun ostean abstenitzea erabaki zuen Ezkerra-Izquierda Unida taldeko zinegotzi Juan Luis Merinok.

Aldaketa horren arrazoia azaldu digu: "Etxez etxeko arreta zerbitzuak, ongizateari bideratutako laguntzak eta gizarte-larrialdietarako laguntzak asko murrizten ziren. Horrez gainera, ez zen enplegu planik aurreikusten, eta gobernu kanpoko erakunde eta herriko guraso elkarteendako ez zegoen partidarik. Nik ezin nuen horren alde bozkatu. Baina eztabaidan, Udal Gobernuak horretarako dirulaguntzak bideratzeko konpromisoa hartu zuen, beste urteotako aurrezkiak daudelako eta martxoan diru hori aurrekontuetarako bidera daitekeelako. Nik proposatutako partida horiek aurrekontuetan sartuko dituztela esan zidan. Hori dela-eta, botoa aldatzea erabaki nuen. Dena dela, ez dira gure aurrekontuak".

"Aurrekontu erreala"

Bestalde, PSE-EEko zinegotzi Jose Luis Canterok Udal Gobernuari erantzun nahi izan dio. Aurrekontua "anti-soziala eta ez solidarioa" dela berretsi du. Aurrekontu "erreala, udalerraren beharretara erantzuten duena" eskatu du, eta gogor salatu du osterera ere liberatuta dauden alkate eta zinegotziaren ordainsaria. Eskoriatzako prestazioak murrizten diren neurrian, bi lagun horien soldata "nabarmen" igo izana kritikatu du. Haren esanetan, Udaleko diru-kutxaren egoera ikusita, erabaki horrek ez du zentzurik, eta murrizketak zertara datozen azaltzea eskatu dio alkateari.



Torrebason dago karrozak gertatzeko pabiloia. | M.B.

Aratusteak gertatzeko lokala jarri dute eskuragai Torrebason

M.B. | ESKORIATZA

Debagoieneko Industrialdeak utzita, Eskoriatzako Udalak Aratusteetako karrozak prestatu ahal izateko pabiloi industrial jarri du eskuragai Torrebason. Informazio gehiago jaso edo izena eman nahi izanez gero, kultura etxera jo edo 943 71 46 88 telefono zenbakira deitu behar da, eta Aintzane edo Arantxagatik galdetu.

60 euroko fidantza

Udaletik jakinarazi dutenez, interesa duten herriko koadrilak kultura etxera jo beharko dute lagatze-hitzarmen bat sinatzeko, eta, horrekin batera, 60 euroko fidantza jarri beharko dute.

Lokala lagatzeko epea amaitu eta dena egoera onean utzi dutela ikusi ostean, itzuli egingo diete fidantza.

OHARRAK

FREEDOM BOYS

Gaur, egubakoitza, Freedom Boys talde eskoriatzarren kontzertua izango da Inkernu tabernan, 22:00etan.

GAZTEEN SASKIBALOIA

Kirol hitzordu bakarra dago asteburuan: saskibaloian, gazteen mailan, Eskoriatza eta MCM Txirrita taldeen arteko lehia jokatu da, 16:00etan.

'WII DANCE'

Bihar, zapatua, *wii dance* egiteko aukera dago herriko gazteelkuan.

KONTUAK JENDAURREAN

Aurtengo udal aurrekontua otsailaren 11ra arte jendaurrean dago, interesatuek aztertu eta, egoki iritzi gero, erreklamazioak edo iradokizunak aurkez ditzaten.

Umeen arteko gatazkendako gomendioak

Ikusmina sortu zuen martitzen arratsaldean Luis Ezeizan haurren arteko gatazken gainean Andoni Colas psikoterapeutak egindako hitzaldiak. Umeak elkarren artean haserretzen direnean gurasoek zelan jokatu behar duten azaldu zien han batu zirenei.



MIRIAN BITERI

Anelkarrek 564 kilo janari batu ditu Saharara bidaltzeko

Urtetik urtera Sahararekiko elkartasuna handituz eta zabalduz doa

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Oso balorazio positiboa egin dute Anelkarrekoek. Iazko kilo kopurua gaitu egin dutela kontatu digu Anelkarreko Jabi Etxanizek. Pozik daude eta oso balorazio positiboa egin dute. "2.000 biztanleko herri batendako 564 kilo janari jasotzea oso emaitza positiboa da". Iaz, 504 kilo izan ziren, aurtengo baino 60 kilo gutxiago. "Urtarrileko aldapa eta krisia oinarri duten ekonomia albisteak ikusita, elkartasun maila hau mantentzea ez da makala!".

2003a ezker goraka

Anelkarrek 2003an abiatu zuen Saharara elikagaiak eta konpresak bidaltzeko kanpaina. Ia 10 urte pasa dira eta herritarren harrera ezin hobea izan da, goraka doa. "Badakigu Sahararekin lotutako gaiak jende asko hunkitzen dutela, eta denon elkartasuna jaso nahi izan dugu beste behin. Laguntzaile asko eta fideleak dauzkagu eta oso pozik gaude egin duten lanarekin. Eskerrak ematea besterik ez zaigu geratzen,

Antzuolako eskolari, Udalarari eta Anelkarri, herritarrek erakutsitako elkartasunagatik", gaineratu gura izan dute Anelkarreko kideek.

Bestalde, elkartetik gogorazi nahi dute Saharako interes ekonomikoa alde batera utzi behar dutela gobernuek eta giza interesak lehen mailara ekarri behar direla. Azken hori baita irtenbidea bilatzeko bidea. "Horrenbeste urteren ostean, soluzio bat bilatzea ezinbestekoa eta lehen tasuneko da", gaineratu dute.

San Blas eta Santa Ageda ospatuko dira asteburuan

M.A | ANTZUOLA

San Blas egunaren ospakizuna Basaldeko San Blas ermitan egingo dute bihar, hilaren 4an, jai giroan.

Santa Ageda eguna, berriz, domekan ospatuko da. Ospakizunei ekingo die txistularien dianak, 10:00etan. Galartza auzoko ermitan, 11:45ean, kanpai hotsa eta suziariak izango dira. 12:30ean meza eta 13:00etan salda, ardoa eta pintxoak, soinu eta panderoaren laguntzarekin. Baina bezperan kintoak arituko dira Santa eskean, baserri baserri, auzoz auzo, kantuan eta eskean.

NIRE USTEZ



KONTXI LASKURAIN

Pozik taldeko harremanetan!

Azkenaldi honetan parte-hartzea bultzatzeko grina darabilgu batzuek; zutabe honetan, bai Iñigo Ramirezek, baita Iraia Gabilondok ere, hori egin dute aurreko asteetan; nik ere jendea horretara animatzea nahiko nuke. Antzuolan, talde asko daude aukeratzeko eta bi berriak Goienan argitaratu ziren: *Ez dot moztuko bizarra* eta *Uzarraga elizatea berreskuratzea*; eta jakin dut nagusi eta gazte talde bat hasi dela Arrasateko Santa Agedara joaten, hango gaixoekin erlazionatzeko. Nik, azken seihilabeteetan, hiru talde desberdinetan parte hartu dut: **Anelkarrekin** elkartasun jaietan (pintxo eta antzezlanak), Bittor eta Tomasen Kongori buruzko hitzaldian eta Sahararako janari bilketan; **Aihertarrekin** elkarretaratze eguneko bazkarian, eta **Eliza Elkarrekin** antolatutako familia egunean. Denetan pozik eta gustura sentitu naizelako egin dut deiar hau!

Xabier Letek *Herri zahar hontan* poeman esaten du: *Bizia gatazka da, baina besteengana hurbiltzen bagara eta denon ahalmenak elkartzen baditugu gure herri honek aurrera egingo du, argi izpi iraunkor batek argizatuta...*. "Denbora lotzen duen orduen gurrupila, Argi izpi baten errainu galkorra Jarraitu behar dugun gatazka bizia; Eskeiniko dugun ahalmen guzia, Azken ordurarte, atsedetik gabe, Ilunabar arte, anaien ondoan. Herri zahar hontan...".

"Parte-hartzea bultzatzeko grina darabilgu batzuek azkenaldian"

Armarriaren lehiaketara aurkeztu diren ideiak jendaurrean ikusgai

M.A | ANTZUOLA

Aste bukaeran ikusgai izango dira etorkizunean armarria aldatu behar izanez gero egindako ideia lehiaketara aurkeztutako 19 lanak. Tartean, epaimahaiak aukeratu duen ideia irabazlea, Andoni Larrañaga antzuolarrena. *Gure, zure herria* leloa

darama. Herriko bandera, alardea eta Aiherrarekin egindako senidetzearen sinboloak batu ditu, gainera. Euskal Herri osoko parte-hartzaileak izan dira, eta denetarikoen lanak: arkitektoak, diseinugileak, enpresak... Olararen daude, zapatuan eta domekan, 18:30etik 20:00etara.



Gure, zure herria leloa darama ideia irabazleak. | ANDONI LARRAÑAGA

Lapurretak direla-eta Ertzaintzak 12 salaketa jaso ditu

Joan den astean gertatutako lapurretengatik salaketak jarri dituzte antzuolarrek. Ertzaintzak adierazi digunez, 12 herritarrek salatu dute kristala apurtuta autoetan lapurreta egin dietela.

Bestalde, garaje eta etxeetan ere lapurreta saiakerak izan direla kontatu digute herritarrek. Ertzaintzak, ordea, lapurreta horiengatik ez duela inor atxilotu esan digu, eta ikerketa oraindik zabalik dutela.

Bada, Ertzaintzak herritarrei gomendatu die atea giltzarekin bi buelta emanda itzeko.



Vicente eta Martinez txapeldun

Antzuolako mus txapelketako irabazlea Serafin Vicente eta Anselmo Martinez bikotea da. Hala, herrialdeko txapelketarako sailkatu dira. Hala ere, sailkapen bera eskuratu dute bikote hauek: Kepa Etxaniz eta Jon Madariagak; Xabi Gartzia eta Andoitz Arangurenak; eta Agurtzane Loidi eta Nekane Berasategik. 31 bikotek hartu dute parte.

OHARRAK

FUTBOLA

Amaikak Bat taldeak hartuko du Antzuola zapatuan.

LARRUZKO PALA

Olaldekoek Donostian jokatu dute Ategorritaren aurka.

HITZALDIA

Bularreko minbiziaren prebentzioaren gaineko solasaldia hilaren 7an, Olararen, 18:00etan.

GAZTE TXOKOA

Aupa Etxebeste filma ikusgai hilaren 4an eta 5ean, 17:30ean.

ANTZERKIA

Oihulari Clownek ipuin tailerra otsailaren 26ra atzeratu du, eguraldi txarragatik.

MUJIKA HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

GAILUR

taberna eta
gozotegia

Buztinuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32



Jose Luis Zabalo

Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. eta faxa:
943 76 60 89

ZAHAR BERRITZEAK:

Fatxadak

Bainugela eta sukaldea

Lokal komertzialak

Teilatuak

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA



Urtarrilaren 22an Aramaio Basarri Barri ekimena ezagutzera etorri ziren Aiara, Audio, Okondo eta Urduñako ordezkariak. | JOSETXO ARANTZABAL

ABB, beste edozein herritan abiatzeko moduko ekimena

Aramaio Basarri Barri proiektua azaltzeko erakusketa ibiltaria egingo dute

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Aramaio Basarri Barri proiektua albiste da berriro ere. Aramaion ezaguna da landa garapeneko beste eredu bat proposatzen duen proiektu hori baina badira adibideak kanpoan ere ezaguna egiten ari dela erakusten dutenak.

Urtarrilaren 22an, adibidez, Aiara, Audio, Okondo eta Urduñako udaletako ordezkariak izan ziren gurean ABB bertatik bertara ezagutzeko. Eta orain, Zuia-ko koadrilan erakusketa ibiltaria egingo dute, eskualdeko herriek

ERAKUSKETA IBILTARIA ZUIAKO KOADRILAN

HERRIA	EGUNAK	LEKUA
Zuia	Otsailaren 5era arte	Murgiako kiroldegian
Urkabustaiz	Otsaila 8- Otsaila 19	Izarra bibliotekan
Zigoitia	Otsaila 22- Martxoa 4	Ondategi kultur etxean
Arrazua-Ubarrundia	Martxoa 7- Martxoa 18	Durana kultur etxean
Legutio	Martxoa 21- Apirila 1	Bibliotekan
Aramaio	Apirilaren 3tik aurrera	Hiltegi zaharrean

Aramaion sortu den ekimena ezagutu eta euren herritan ere aplika dezaten. Izan ere, Aitor Larrañaga Aramaio Basarri Barriren Udaleko arduradunak uste du ABBren eredu beste edozein herritan dela aplikagarria: "Beti esan izan dugu proiektu hau beste edozein herritara zabaldu daitekeela. Hori bai, herri bakoitzak aztertu beharko ditu erabilgarri dituen baliabideak eta horren arabera euren proiektua burutzen joan". Larrañagak dio halako proiektuak "amaiera gabekoak" direla: "Kanpotik jaso dugun interesak erakusten digu bide onetik goazela. Amaiera gabeko bidea da, izan ere, ABB barruko proiektuak bata bestearen atzetik sortuko dira".

Bederatzi talde parte hartzaile Kontzientzia parte hartzailean pizteko lanean dihardu Aramaio-ko Udalak aurreko legealditik. Mairuelegorreta izeneko Gor-

beiko mendi inguruaren landa garapeneko elkartearekin elkar-lanean aritu dira hasieratik.

ABBk eman ditu bere fruituak eta horren adibide dira izaera parte hartzaile duten Aramaio-ko talde eta elkarteak. Bederatzi dira egun: Aramaixoko sagarzi-lien elkarte, Aramaixoko ortu-zainen elkarte, Barazki eraldatuen taldea, Arrautza ekoizleen taldea, Esne ekoizleen taldea, Aramaixoko ganaduzainen elkarte, Aramaillur kontsumo taldea, Arbel Aramaixoko baserriarren kooperatiba eta Aramaio-ko ondarea berreskuratzeko taldea. Horrez gain, hiru proiektu zehatz sortu dira ABBra begira: Ikerketa eta Berrikuntza zentroa, Murugaingo indusketak eta hiltegi zahar-rraren eraberritzea. Bestalde, erakusketa ibiltaria otsailetik apirilera bitartean egingo da ikusgai Zuia-ko Koadrilan -ikus taula-. 13 panel erakutsiko dira, askotariko informazioarekin.

Garona ixtea eskatzeko mozioa gaurko osoko bilkuran

J.B. | ARAMAIO

Bildu taldeak Aramaio Alkartasunarekin batera mozioa aurkeztuko dute gaur Garoñako zentral nuklearra "berehala" ixteko eskatuz. Besteak beste, zentral nuklearrek suposatzen duten arriskuen inguruan informazioa zabaldu eta sustatzeko konpromisoa hartzen du Udalak eta baita *Nuklearrik ez, Garoña itxi orain!* lema erabiltzeko, dokumentu ofizial eta Udalak sortzen dituen bestelako argitalpen guztietan. Mozioak honakoa ere dio: "Kontsumoaren gutxitze eta energia iturri berriztagarrien erabilera oinarritutako energia aurrezpenaren aldeko apustu garbia egiten dugu".

Mozio horrez gain, badira beste hainbat gai interesgarri. 2012ko aurrekontuan akats batzuk zuzendu behar dira eta Etxaguen auzoaren eraberritzea ere izango dute hizpide. Bestalde, Debagoieneko beste herri batzuetan moduan, Gipuzkoan azpiegitura lan handiak geldiarazteko mozioa aurkeztuko du Bilduk.



Eguazten iluntzean egindako entsegu orokorrean 22 bat lagun elkartu ziren udaletxeko osoko bilkuran. | JOKIN BEREZIARTUA

Santa Ageda bezperako ospakizuna, eguraldiak nola erantzungo duen zain

J.B. | ARAMAIO

Aurten ahalegin berezia egin du Bizente Goikoetxea abesbatzak Santa Ageda bezperako tradizioari eusteko. Korotik haratago herritarrei dei egin zieten eguaztenean entsegu orokorrera joateko; abesbatzakoekin batera, 22 bat lagun elkartu ziren guztira.

Hala ere, ospakizun beroa eguraldiak hoztuko duela dirudi. Izan ere, eguraldiaren iragarpena ez da batere ona eta Bittor Kortabarria abesbatzako presidentek jakinarazi du gaur egingo dutela bilera bat kantuan irtengo diren edo ez erabakitzeke: "Eguraldia gaurkoa [atzokoa] bada, ez gara

irtengo. Ez dauka inolako zentzurik". Irteten badira, honakoa da plana zaturako: goizean auzoetako baserrietan arituko dira; 10:00etan geratu dira plazan eta, besteak beste, Matxain kale, Eguzkierripa, Arraga, Errotabari eta Zalgo inguruan arituko dira eztaurri berotzen. Bazkalostean Ibarra abestuko dute.

Hurrengo urtean bertso eskolakoekin batera irtetea adostu dute abesbatzakoek. Bestalde, Kortabarria honakoa gaineratu du: "Denbora gehiago izango dugu eguna antolatu eta deialdia zabalteke; tradizioari eustea da helburua".

ANTONIO
ELEJALDE
HERRITARRA



"Korokoeke proposatu zidaten eurekin batera irtetea. Betidanik gustatu izan zait abestea eta baiezkua eman dut. Entsegura etorri naiz nola abestu ikastera".

BLANCA
MENDIALDUA
ABESBATZAKO KIDEA



"Presidenteak ikusi zuen urte urte jende gutxiago ginela eta jai herriko bat egin gura zuen. Deialdia asko zabaldu da eta pozik gaude jendearen erantzunarekin".

Repsolek fakturazioa aldatuko du, zerbitzua hobetzeko asmoz

Repsolek jakinarazi du aurreantzean gas fakturak hila bakoitietan kobratuko dituela. Neurri berria, Aramaio gasez hornitzen duen enpresaren arabera, gas fakturazioak arinagoak izateko hartu dute, eta ondorioz, "zerbitzua hobea" ematea dute helburu. Hala, aramaioarrek gas faktura jasoko dute urtarrean eta aurreantzean hila bakoitietan jasoko dituzte.

Bezereen Arreta zerbitzua martxan dagoela ere jakinarazi dute: 901 170 170.

Udalaren hikalagun eta mintzalagun programak, aurrera

Ikasturte hasieran Udalak hitanoa ikasteko hikalagun programa eta euskaldun zahar-rrak zein berriak nahasteko mintzalagun taldeak sortzeko deialdia luzatu zuen. Deialdia arrakastatsua izan da, izan ere, aurrera egin dute bi programak.

Bi taldeak zapaturo elkartzen dira Herriko plazan, 18:30ean. Hitzordu irekiak dira eta antolatzaileek euskara edo bertako hika praktikatzen nahi duten guztiak animatu nahi dituzte.

ELGETA

Hil honetan hasi gura dituzte eraikina botatzeko lanak

Goitu enpresak egingo ditu, Udalak Iberdrolarekin akordio batera iritsitakoan

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Domingo Iturbe patronatuaren eraikina botatzeko lanak 49.850 euroko aurrekontua dute eta Bergarako Goitu enpresak egingo ditu. Hala jakinarazi zuen Oxel Erostarbe alkateak martitzen egindako osoko bilkuran. Aurretik, baina, Udalak irtenbide bat topatu behar dio inguruko 16 bat etxebizitzari argindarra eramaten dion eta eraikinetik zintzilik dagoen kable bati. "Harremanetan gaude Iberdrolako arduradunekin, eta bi planteamendu ditugu mahai gainean. Uste dut hamar bat egunean itxiko dugula kontua", esan du alkateak.



Domingo Iturbe eraikineko frontoia zaharraren egoera gaur egun. | L.Z.

Kontuz egin beharreko lanak

Otsaila amaitu aurretik hasi gura dute eraikina botatzeko lanekin. "Kontuz egin beharko dira besteak beste beheko partean dauden frontoi zaharreko arkuak eta estruktura mantendu nahi ditugulako", esan du alkateak. Arrazoi berdinagatik iraupena ere ohikoa baino luzeagoa izango da. "Seguru hilabete edo lauzpabost asteko lana izango dela", zioen Erostarbek. "Hori faktore meteorologikoa kontuan hartu barik", gaineratu du.

Aparkalekua erabiltzeko deia

Lehenengo faseko lanak amaituta balorazio positiboa egin du Oxel Erostarbe alkateak; "Lanak aurreikusitako aurrekontuaren arabera itxi ditugu, eta albiste ona da hori", esan du.

Herritarrei, bestalde, aparkaleku berria erabiltzeko dei egin die. "Ondo aparkatzera ohitu behar dugu guztiok, denon mesederako da-eta. Gaizki aparkatutako autoek eragozpen handiak sortzen dituzte, eta orain ez dago aitzakiarik", ohartarazi du.

Mozioa gaztetxetik

Bilkuran, bestalde, Gipuzkoan azpiegitura lan handiak geldiaraztearen aldeko mozioa aurkeztu zuen Nagore Moralesek, gaztetxearen izenean. Mozioko hiru puntuak onartu ziren; alde bozkatu zuten Bilduko hiru zinegotziek, kontra EAJko biek, eta puntu bakarra babestu zuten Aralarko lau zinegotziek —beste bietan abstenitu egin ziren—. Hala, Udalak bat egiten du zapatuan Donostian 17:30ean irtengoen manifestazioarekin.



Intxortako Lehoiak primeran Vallecás aldean

Hamar elgetar ziren ia 3.000 Athleticzaleren artean, eta ederto ibili zirela esan du Intxortako Lehoien presidente Felix Irizarrek. Zuri-gorriek Vallecásen jokaturako partidua bertatik bertara jarraitu zuten, eta pozik itzuli ziren etxera Fernando Llorentek egindako golei esker hiru puntuak batuta. Gainera, Vallecásen jasotako tratua bikaina izan zela diote. Gauza handia da Madrilera futbola ikustera joan eta kontrarioak ondo hartzea!

LEINTZ GATZAGA

Udalak gertu dauka traktorea, elurra eginez gero lanean hasteko

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Siberiatik datorren haize hotza iritsiko dela iragarri eta zero azpiko tenperaturak eta elurra izango direla nagusi egunotan jakinarazi dute adituek. Hori horrela, Gatzagako Udalak traktorea gertatu du, pala jarrita aurrealdean, elurra eginez gero lanean hasteko.

Udalaren ardurapean daude herriko kale bazterrak eta baserrietara doazen bideak, eta bertako langileak erabakitzen du noiz komeni den pala pasatzea eta nora jo: "Herrian elurra dagoenean goiko baserrietan gehiago egongo denaren seinale izaten da eta halaxe erabakitzen da nora joan traktorearekin".

Hala ere, Gatzagan ez dute elurraren beldurrik, "elur askorik ez dute-eta iragarri" eta gaineratu: "Askotan izotzak arrisku handiagoa sortzen du, eta tenperatura baxuekin samur izotza egitea". Horretarako gatza daukate gertatuta, eta behar izanez gero bota ere egingo dute herriko kale eta plaza inguruetan.

Bestalde, errepide nagusien ardura Aldundiak dauka, eta horiek garbitzeko makinak gertu ditu: bi ekipo Arlabanerako eta bat Gatzagako errepiderako.

FRONTENIS TXAPELKETA

AURREKO JARDUNALDIKO EMAITZAK

Oskar Sarasua-Xanti Dosuna / Mikel Zubiaurre-Danel Cusi	25-13
Iban Retolaza-Xabier Ubera / Jon Irazabal-Ibon Untzetabarrenetxea	25-18
Haritz Gallastegi-Enrike Elkoro / Adrian Gorostiza-Asier Osoro	atzeratua
Odei Zenitagoia-Mikel Beretxinaga / Andoni Elortza-Eneko Maguregi	25-19
Idoia Serna-Asier Osoro / June Dosuna-Xanti Dosuna	25-24
Idoia Elkoro-Enrike Elkoro / Maite Mandaluniz-Jabier Larrañaga	25-08

PARTIDUAK BARIKUAN, HILAK 3, 20:30EAN

Haritz Gallastegi-Enrike Elkoro / Mikel Zubiaurre-Danel Cusi
Iban Retolaza-Xabier Ubera / Andoni Elortza-Eneko Maguregi

PARTIDUAK ZAPATUAN, HILAK 4, 16:30EAN

Odei Zenitagoia-Mikel Beretxinaga / Adrian Gorostiza-Asier Osoro
Rebeka Ubera-Mikel Arkarazo / June Dosuna-Xanti Dosuna

PARTIDUAK DOMEKAN, HILAK 5, 10:30EAN

Idoia Elkoro-Enrike Elkoro / Idoia Serna-Asier Osoro
Jon Irazabal-Ibon Untzetabarrenetxea / Oskar Sarasua-Xanti Dosuna

Arduradun berriak kafe antzokiko barraren atzean; martxorako iragarri dute inaugurazioa

Espaloiko bezeroek Ibon Virumbrales aurkitu zuten eguazten goizean kafe antzokiko barraren atzean. Ostalaritza arloko kudeatzaile berrietako bat da. Hil honetan orain arteko zerbitzua eskainiko dutela jakinarazi du, baina hainbat aldaketa egiteko asmoa ere badute. Otsaila hartuko dute egokitzapenak egiteko, eta martxorako iragarri dute zerbitzu berriaren inaugurazioa.

Meza, salda eta txorizoa domekan, otsailak 5, Arantzeta San Blas ermitako ospakizunetan

Arantzeta auzoko San Blas ermitan, otsailaren 5ean, domekan, egingo dituzte San Blas eguneko ospakizunak. Zezeaga baserriak du aurten ermitako giltza, eta eurei tokatzen zaie San Blas eguneko ospakizunak antolatzea. Salda eta txorizoa banatuko dituzte 10:00etatik 14:00etara. Elgetako parrokoak, berriz, meza esango du; 13:00etan izango da.

Elgetako hiru piano ikasle izango dira aste bukaeran egingo den Andoaingo piano jaialdian

Maialen Alkorta, Egoitz Mañarikua eta Ainhoa Monterroso izango dira Elgetako hiru ordezkariek aurten Andoaingo piano jaialdian. Zapatuan eta domekan egingo da jaialdia, eta bi egunetan ariko dira elgetarrak. Oihartzun handia lortu du jaialdiak azken urteotan, eta, zalantza barik, pianoa jendaurrean jotzeko aukera polita da ikasleendako.

Guraso Elkarteak dei egin du bihar, zapatua, umeen Santa Agedako koplak abestera irteteko

Herri Eskolak antolatuta irten ohi dira Elgetako neska-mutikoak Santa Agedako koplak abestera. Aurten, ordea, zapatua da, eta Maala guraso elkarteak hartu du umeekin batera kantura irteteko ardura. Bihar, zapatua, 10:30ean eskola aurrean elkartzeko dei egin dute. Amaitutakoan, salda banatuko dute plazan.

50 bat herritar elkartuko dira gaurko bertso afarian

Korrika batzordeak antolatuta bertso afaria izango da gaur —eguraldiak eragozten ez badu, behintzat— Soran etxean. Eta 50 bat lagun izango dira mahaiaren bueltan, Sebastian Lizaso eta Iker Zubeldia bertsolari ezagunak lagun dituztela. Euskal giroa eta umore ona izango direla nagusi iragarri dute antolatzaileek.

Santa Ageda kantuan ibiliko dira bihar umeak eta helduak

Bihar, Santa Ageda bezpera, kantuan ibiliko dira neska-mutikoak herriko kaleetan (18:00) Gurelen eskutik. Hotzari aurre egin eta eztarriak urratzeko gertu daude, entseguetan gogor jardun dute-eta. Gero, merienda goxoa eskainiko diete Toki Eder elkarteak. Eta helduek pintxo potea izango dute herriko tabernetan.

Iturrieta sagardotegia

BEREZITASUNA: etxeko sagardoa (aurten, Eusko Labelarekin)

ERREZETA

Osagaiak:

- Sagardo on bat (nahiz eta kupela ezberdinak izan).
- Lagun batzuk (ez gutxi, ez gehiegi)
- Ondo pasatzeko gogoa.
- Lotsatia ez izatea
- Dantza egiteko eta abesteko prest egotea.
- Euskaraz berba egitea (ikasten bazaude, aukera ezin hobea).

Urratsak:

- Ez daude! Berehala konturatuko zara kupelen aurrean zaudela ezezagun batzuekin berba egiten eta... nork daki!
- Ez egin nahasketarik, sagardoa bakarrik edan. Sagardoak bakarrik ez du arriskurik.
- Nahiz eta gaizki abestu edo dantza egin, animatu eta gozatu, zure gorputzak eskertuko du eta.

Ondo ibili eta ondo etorri!



Jatetxe Gida



Dragon Oriental

Fraiskozuri 7 / BERGARA
Tel.: 943 25 06 77

Eskaintza

- Jatetxe txinatarra
- Wi-fi gunea
- Etxera eramaten dugu (Bergara + Antzuola + Soraluze)
- Din sun, ekialdeko tapak
- Eguneko menua, karta

Egunero zabalik.



Erreka jatetxea

Zerrajera 4, behea / ARRASATE
943 53 32 72
www.errekajatetxea.eu

Eskaintza

- Eguneko menua
- Menu bereziak astebukaeretan
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Enpresa bazkariak

Igande gauean eta astelehenetan itxita



Garaia jatetxea

Garaia Berrikuntza Gunea / Goiru kalea 1 / ARRASATE
943 71 02 28 / 647 83 23 86
ostalaritza@grupogureak.com

Eskaintza

- Self-service bazkari merkeak.
- Urtebetetzeak
- Taldeentzako eta ospakizunentzako bazkari eta afariak.
- 160 pertsonarentzako jangela
- Aparkalekua eta terraza



Iturrieta

Arraga auzoa / ARAMAIO
945 44 53 85 / 685 72 15 93
iturrietasagardotegia.blogspot.com

Eskaintza

- Eguenetik domekara irekita. Erreserbatuz gero beste egunetan ere bai.
- 90 lagunendako lekua.
- Etxeko sukaldaritza bailarako produktuekin.
- Karta zabala. Menu bereziak.
- Bertako sagardoa.



Lasa jatetxea

Ozaeta jauregia, Zubiaurre 35. / BERGARA
Tel.: 943 76 10 55 / www.restaurantelasa.es

Eskaintza

- Jangela: 250 lagunendako.
- Karta.
- Astearte, asteazken eta ostegun gauetan 16:00ak baino lehen eskatuz gero zabalik (6 pertsona min).
- Menu bereziak asteartetik ostiralera (eguardietan).
- Kongresuetarako aretoa eta parking-a.

Gipuzkoako bankete-jatetxerik onenaren saria
Mas Gastronomía 2009.



Uxarte

Udala auzoa 12 / ARRASATE
943 79 12 50 / 943 77 15 62

Eskaintza

- Eguneko menua
- Ezkontzak
- Bataio eta jaunartzeak
- Logela guztiak bainugelarekin
- Igerileku irekia

Eguazten arratsaldeetan itxita

ELURRETAKO LASTERKETAK

Itoitz Armendariz | Musherra

"Nire burua horren aurrean ikusteaz sinistu ezinda nago, ametsa da hau"

- Pirena lasterketan bost onenen artean amaitu nahi du Armendarizek
- Gaur Plateau de Beillen egingo duten etapa erabakigarria izango da

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Lerro hauek irakurtzen dituzue nerako Itoitz Armendarizek (Eskoriatza, 1979) ia amaituta izango du aurtengo Pirena edizioa. Ikusteko dago zapatuan ere beste etapa bat egingo duten: "Baliteke, elur mordo bota duelako azken astean, eta antolatzaileek baldintza on horiek aprobetxatu nahiko dituztelako", esan digu eguazten gaueko etapa -gauez- hasi baino apur bat lehenago. Fisikoki nekatuta dagoela onartu digu eskoriatzarrak, baina sailkapenean horren aurrean egotea nahikoa motibo da indartsu jarraitzeko.

Zer moduz?

Gorputza hasi da igartzen hainbat egun daramatzagula Pirenan, katarro ederra harrapatu dut. Fisikoki nekatuta nago lasterketengatik, batetik, eta atseden hartzeko asti handirik ez dugulako, bestetik. Gauerdian sartzen gara ohera, eta 05:00etarako jaike behar izaten gara, txakurrak ateratzerako eta prestaketekin hasteko. Bizpahiru egunetan hori egitea ez da gogorra, baina bi astez...

Denetik egin behar izaten duzue Pirenan.

Bai, hau Dakarra modukoa da, denetik egitea tokatzen zaigu: Lasterketako etapak egin, txakurrak zaindu eta albaitari lanetan jardun, txofer... Nekagarria da, baina baita polita ere. Esango nuke dagoen kirol jarduera osoena dela.

Esango nuke ez zenuela lasterketan horren aurrean egotea espero.

Ezta inondik ere, hau ametsa da, eta oraindik ez daukat oso garbi zer dela-eta nagoen horren aurrean, nahi bezain ondo entrenatu barik etorri garelako hona. Pirena hastera gindoazenean nire taldekideak [Joseba Lazkanoi-turburu] galdetu zidan ea ze pos-

tutan amaituko nuen. Hamabost onenen artean egotea oso emaitza ona izango zela esan nion, eta hamar onenen artean egotea ametsa. Bostgarren postuagatik borrokan nabil, horrenbestez, pentsa.

Postu horri eutsiz gero, zer?

Beti da garrantzitsua babesleak lortze aldera, ezagunago egiten zarelako. Espainiako Txapelketan hirugarren egin nuen, baina txapelketa horretan dagoen mailak ez du zerikusirik Pirena moduko lasterketa batekin, hemen Europako onenak batzen direlako. Gaur egun Acana -animaliendako pentsua- eta Ternua etxeen laguntza daukat, eta Pirenako izenematea Grand Valirak ordaindu dit.

Non dago Pirenan aurrean ibiltzearen gakoa?

Etxera iristen naizenean erantzungo dut hori hobeto, lasterketaren gainean hausnartu ostean. Pirena aurretik Alpeetara joan nintzen ondo entrenatzeko asmoz, baina elur gutxi zegoela-eta ez nintzen gustura geratu. Lukon (Araba) bizi naiz, eta lur gainean entrenamendu onak egin ditugu, baina elurretan ez. Txakurrak etapa luzeetarako entrenatu ditut, esprinterako baino, eta ondo erantzuten ari dira.

Izan ere, txakur bakoitzak ezaugarri ezberdinak ditu, eta baita etapa bakoitzak ere.

Bai. Txirringarritan ez da gaur bera egun bateko klasika baterako prestatzea, ala Tourrerako prestatzea. Eta hemen ere berdin,



Itoitz Armendariz, aurtengo Pirenan. | GONZALO AZUMENDI

15 egun dira lehian. Horrekin batera, etapa batzuk esprintean egiten dira, eta beste batzuk 30 kilometrotik gora dituzte. Nire

txakurrak hobeto moldatzen dira distantzia luzeetan.

Eta bakoitzerako txakurrak aukeratu dituzu.

"Hau Dakar proba modukoa da, denetik egin behar izaten dugu"

"Etapak bakoitzerako ze txakur aukeratu jakitea da oso garrantzitsua"

"Nire txakurrek orain arte ez dute beharakadarik izan, ea eusten diogun"

Bai, guztira zortzi txakur aukeratu behar izaten ditugu etapa bakoitzerako, Pirenak 14 txakur ekartzeko aukera ematen digulako, baina nik ez ditut horrenbeste ekarri. Ezinbestekoa da norberaren txakurrak ondo ezagutzea, etapa zelakoa izango den aztertzea, jakitea egun bakoitzean ze txakurrek erantzungo duen ondo, zein dagoen nekatuta, nork egiten duen gora ondo, eta nor den jaisten trebea. Dena izan behar dugu kontuan.

Eta gauez lehiatzea ere ezberdina izango da.

Bai, baina nire txakurrak ondo moldatzen dira gauez. Ni ere gustura ibiltzen naiz, eta gaueko etapetan emaitza oso onak lortu ditut. Ez dakit nire txakurrak gauez oso ondo moldatzen direlako, ala besteak ni baino beldur handiagoz ibiltzen direlako.

Azken astean goitik behera aldatu dira Pirenako baldintzak.

Bai, elur mordo bota du. Txakurrak hobeto moldatzen dira elur askorekin, elur gogorrek kalte egiten dielako oinetan. Baina aldi berean, elur berriaz korrika eginda lehenago nekatzen dira txakurrak.

Hotz galanta iragarri dute egunotarako.

Hori ere gure mesederako da, txakurrak horretara ohituta dudelako. Hau da, zero azpitik berrogehi gradu egiten baditu ez, baina zero azpitik hogeiki gradura arte ondo moldatzen dira. Beroa baino nahiago ditut tenperatura hauek.

Geratzen diren etapei begira, zer?

Egubakoitzekoa izango da erabakigarria, Plateau de Beillekoa. 30 kilometrotako etapa izango da, distantzia luzekoa, eta hor denbora galtzen duenak ez du errekupeatzeko astirik izango.

Etapak bakarrez pikutara joan daiteke ordura arte egindako lana.

Bai, baina denok dugu arrisku hori. Sailkapenean nire aurretik zeuden hainbat taldeko txakurrak sekulako beharakadak izan dituzte, esaterako, Kiko Vallespi kataluniarrak abantaila handia zuen, eta beharakada batekin bederatzigarren postuan dago orain.

Zeintzuk dira zaindu beharreko kontrarioak?

Aurrekoak baino atzekoak zaindu behar ditut, gertu ditudalako; zaila izango da aurrekoak harrapatzea. Monika Frauchiger suitzarra ondoan daukat sailkapenean. Ea eusten diogun.

FUTBOLA

Mondrako bazkideek deituta, batzarra egingo dute martitzenean

Martitzenena, hilak 7, batzarra egingo dute Mondrako bazkideek Kulturategiaren Jokin Zaitegi aretoan (19:00). Batzarraren helburua izango da egungo Mondraren egoera aztertzea. Aurreko batzarra -abendua 6- presidentek deitu zuen -bazkideek eskatuta- eta bertan adostu zen egoera ekonomikoa jakiteko auditoria eskaera egitea.

FUTBOLA

Mondrak, Aloñak eta Aretxabaletak etxean jokatu dute

Mondrak Hondarribia hartuko du bihar Mojategin (16:30), eta domekan Aretxabaletak Elgoibar izango du aurrean (16:30) eta Aloñak Pasaia (16:30). Bergarak, berriz, Zumarragan jokatu du zapatuan (16:00). Hori bai, ikusteko dago elurrak arazorik sortuko duen asteburuko kirol jardueretan.

ESKUBALDIA

Soraluce BKEk etxean jokatu du, Ford Mugarrik Gasteizen

Euskadiko Txapelketan etxean jokatu dute Josetxo Muniategiren mutilek, zapatuan (18:30) Basaurikoen kontra. Bizkaikoak kontrario zuzen dira, mahoneroek baino lau puntu gutxiago dituzte-eta. Lider dagoen Ford Mugarrik, berriz, Gasteizera egingo du bidaia bihar, Gure Auzuneren kantzara (16:00).

SASKIBALDIA

Cafes Aitonaren kantxan jokatu du Natra Oñatik

EBAn gipuzkoarren arteko derbia izango dugu asteburuan, Natra Oñatik mutilek hirugarren dagoen Cafes Aitonaren kontra jokatu dute -eta zapatuan (20:00) Donostian. Lehen nazional mailan, Mondragon Unibertsitateak Santurtziren kantxan jokatu du zapatuan (18:45). Bigarren dago Santurtzi.

PILOTA

Gaurtik hasita klubaren arteko pilota partiduak ibarrean

Gaur, egubakoitza, arratsaldean hainbat norgehiagoka jokatu dituzte ibarreko pilotalekuetan. Eskoriatzan 19:00etan bi partidu jokatu dituzte; Aretxabaletan 19:30ean partidu bat jokatu dute, eta Arrasaten 20:30ean hasita bi partidu. Bergaran, berriz, zapatu goizean (11:30) jokatu dute norgehiagoka bat.

KULTURA

Debagoieneko opera zaleen gozamenetarako: 'La Bohème'

- ▶ Martxoaren 1ean izango da, Arrasateko Amaian
- ▶ Sarrerak salgai daude dagoeneko, 25 eurotan
- ▶ Arrasateko Ozenki opera zaleen elkarteak ekarri du

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Gurean badira opera zaleak, horren dudarik ez dago. Opera entzutera hara eta hona ibiltzen direnak ere badaude. Oraingoan, baina, bertatik bertara *La Bohème* opera entzutetsua ikusi eta entzuteko aukera egongo da gurean. Arrasateko Ozenki elkarteak antolatu du emanaldia. Martxoaren 1ean, eguena, izango da Amaia Antzokian, 20:00etan.

Sarrerak 25 euroren truke jarri dituzte salgai Servikutxan eta baita Arrasate Musikalen ere: "Jende nagusia, adibidez, ez da ondo konpontzen Internetekin eta horiei begira jarri ditugu sarrerak Arrasate Musikalen", azaldu du Manu Gallardo Ozenki elkartearen kideak. Gaineratu du 25 euro oso prezioa ona dela; normalean, operak askoz ere garestiagoak izaten dira hemen.

Elkarlanaren fruitua

Kepa Urteaga Arrasateko Kultura batzordeburuak zera azaldu du: "Arrasaten operaren lagun asko daude. Euren bitartez eta egin duten lan gogorra aprobetxatuz izango dugu *La Bohème* Arrasaten". Udalak eta Ozenki elkarteak elkarlanean egin dute lan egitasmo hau aurrera atzeratzerako orduan.

Opera 2001 enpresa dabil *La Bohème* ekoizten. "Jakín genuenean *La Bohème* ekoizten zebiltzala eurekin harremanetan jarri ginen", azaldu du Gallardok. Opera 2001 enpresaren *La flauta magica* lana ikusi zuten arrasatearrek, eta hain gustura geratu

ziren erabaki zutela Arrasatera ekartzeko tramiteak hastea. Operak kostu ekonomiko handia dauka eta horregatik negoziazio handia egin behar izan dute Opera 2001 enpresarekin.

Giacomo Pucciniren obra

Giacomo Puccini italiarrak egin zuen *La Bohème* operaren musika 1896an. Libretoak, oster, Giuseppe Giacosa eta Luigi Illica-renak dira. Henry Murger idazlearen *Scenes de la vie de bohème* testuetan oinarrituta dago opera. 1840ko Parisen oinarritzen da lana. "Urte haietako Paris irudikatzen du: Rodolfo, Mimi

eta Marcelloren arteko erlazioa. Opera gehienak tragikoak izaten dira, kasu honetan bezala. Eguneroko bizitza irudikatzen du: maitasuna, gaixotasuna, poesia... *La Bohème*ren musika izugarri polita da, operan pasarterik ezagunenak *La Bohème*-koak dira", azaldu du Gallardok.

Lau ekitaldi izango ditu operak. Lehenengo eta laugarren ekitaldiak Murgerren idatzietan oinarritzen dira ia osotasunean, eta bigarren eta hirugarrena, Giacosa eta Illica idazleek asmatutakoak dira. Ikuskizunak bi ordu eta 40 minutu inguru iraungo du eta bigarrenaren ekinaldiaren ondoren atsedena izango du.

Operan parte hartuko dutenak musikari eta abeslari profesionalak izango dira. Musika Plevneko orkestra sinfonikoak jarriko du (Bulgaria). Zuzendari musikala, oster, Martin Mázik izango da. Protagonista nagusiak izango dira: Rodolforen paperean Juan Carlos Valls; Marcelloren paperean Paolo Rugiero; eta, Mimiren paperean Hiroko Morita. "Orain gutxi, New Yorken abestu dute, esaterako", azaldu du Gallardok. "40 lagun izango dira taula gainean. Zarzuelan bezala dena zuzenean izango da, musika eta ahotsa", gaineratu du Gallardok.

Agertokiaren neurriak

Amaia agertokian jarriko duten dekorazioa ikuskizun handietakoaren antzerakoa izango da. "Amaia antzokiko agertokia oso ona da, antzoki handien oso antze-



Opera 2001 enpresak ekoizten du *La Bohème* opera; abeslariak profesionalak dira.



ESANAK

"Arrasateko operaren lagunek gogorlan egin dute"

KEPA URTEAGA | KULTURA ZINEGOTZIA

DATUA

40

ABESLARI

Oholtza gainera 40 bat abeslari igoko dira Amaia antzokian. Zuzenean eta mikro barik abestuko dute.

ERAKUSKETA | Patxi Garateren margolanak ikusgai, Bergarako Aroztegin | 33



OPERA 2001

rakoa dela esan daiteke", dio Gallardok. Hori dela-eta, deko-razioa beste agertoki "handiagoe-tan" erabiliko duten bera izango da. Arrasaten eskainiko dutena bertsi originala izango da. Italiarrez abestuko dute eta operan ohikoa den bezala azpituak jarriko dituzte ikusleek esaten den guztia uler dezaten. "Nahiko motel abesten da operan, uneoro zer esaten duten ulertu ahal izango da", dio Gallardok.

Izan duten aurrekontua

Gallardo eta Ozenkiko gainerako lagunak asko tematu ziren *La Bohème* Arrasatera ekartzeko. Hala, Opera 2001 taldekoek "detaila" izan dutela eurekin azaldu dute. 25.000 euro kostako zaie opera Amaiara ekartzea: "Sarreen bitartez finantzatu dugu gehiena; hala ere, sarrerekin 15.000 euro lortuko ditugu. Gai-nontzekoa babesleen bitartez egingo dugu", dio Gallardok. Kutxa eta Arrasateko Udala izan dira babesleak eta Caja Laboralek lagundu egin du. Urteaga kultura batzorde buruak esan du "Udalak 4.000 euro jarri eta kartelak egiteko ardura" izango duela.

680 sarrera jarri dituzte salgai eta dagoeneko erdiak baino gehiago saldu dituzte –eguztenez 260 bat geratzen ziren.

"50 bat urteko jendea joaten da operara hemen, baina Parisen, Pragan... jende gazteagoa joaten da. Arrasaten egunean izango denez, uste dut ez dela 20 urteko jendea joango... baina esan dezaket 30 bat urteko jendeak eskatu dizkidala sarrerak. Batz bestekoa 40 bat urtekoa izango da", azaldu du Gallardok. Arrasaten eguene-

tan *pintxo-potea* egoten denez, egun txarra izango dela uste zuten hasiera batean. "Egun batean *pintxo-potera* ez joateagatik ez da ezer pasatzen", dio Gallardok barrez. Gainera, krisi garai haue-tan eurengan fidatu direnei esker-rrak eman gura dizkie: "Krisi garaia izan arren kulturak ez du zertan hori nabaritu".

MANU GALLARDO | ELKARTEKO KIDEA

"Urtean opera bat ekartzea Arrasatera bideragarria dela diogu"

Musika eta kantua oso gustuko ditu Gallardok. Inguruko antzokiak eta baita atzerrikoak ere ezagutzen ditu. Orain, Ozenki elkarte sortu dute, Arrasatera opera ekartzeko asmoarekin.

Zer dela eta sortu duzue Ozenki?

Musika oso gustuko dugun talde bat gara. Opera eta abestia orokorrean gustatzen zaigu, nik adibidez, Izaskun Murgia elkartearen abesten dut. Uste genuen herrian bazegoela hutsune bat, kantuari zegokionez. Buruan bageneukan zerbait egitea. Kanpora joan izan gara opera ikustera eta pentsatzen genuen ze polita izango litzatekeen Arrasatera opera bat ekartzea. Izan ere, antzoki izugarria daukagu hemen.

Zein da elkartearen helburua?

Musika eta kantua hedatzea gura dugu. Uste

dugu Arrasaten badagoela zaletasuna. Bestela, zela bete daiteke Amaia antzokia lau egunetan zarzuela ikusteko? Hori da gustuko dugulako. Gure asmoa da urtean opera bat ekartzea Arrasatera, uste dugu hori bideragarria dela. Bestalde, herriko eta inguruko jendearekin ikuskizun bat egitea gurako genuke. Horrelako zerbait egin berri dute Bilbon, Plenirunio lanarekin. Izena eman, entseatu eta kantatze-ira irten behar da.

Elkartea abenduan sortu duzue.

Gu inguruko hirietara joaten ginen opera ikustera eta zaletasuna dugulako sortu dugu taldea. Uste genuen hutsunea zegoela, nahiz eta zarzuelak bere lana egiten duen. Uste genuen beste zerbait ere egin genezakeela. *La Bohème* hemen inguruan egongo zela jakin genuenean erabaki genuen elkarte sortzea etorkizunean



Manu Gallardo. | A.E.

ere horrelako ekitaldiak antolatzeko. Musika eta kantua hedatu eta inguruko musika eskolekin elkarlana egitea da asmoa.

Zergatik *La Bohème*?

Jakin genuenean Opera 2001 ekoizpen etxea *La Bohème* gertatzen zebilela, eurekin harremanetan jarri ginen. *La flauta magica* ikusi genuen, eta hain ederra iruditu zitzaigun... Jakin genuenean *La Bohème* egin behar zutela esan genuen: *Eta zergatik ez Arrasaten?* Operak kostu ekonomiko handia dauka

eta ekoizleak eskatzen zuena larregi zen guretako. Antzoki guztia bete arren larregi zen eskatzen zuten dirua. Hainbeste tematu ginen azkenean esan zigula: *Edo zoratuta zaudete edo larregi gustatzen zaizue hau*. Azkenean, ez dugu gure dirua jokatu. Detaila izan dute gurekin eta erabaki dute hemen inguruan ibili behar direnez Arrasatera ere etortzea.

Ozenki otsailaren 7an aurkeztuko dute

Arrasateko operazale talde batek, Ozenki elkarteak, sortu du. Elkartearen helburua musika eta kantua sustatzea da eta baita Arrasateko eta inguruko herrietako musika eskolekin elkarlanean aritzea. Euren asmoa urtean bi ekitaldi antolatzea da: batetik, profesionalak egindako opera bat urtean behin Arrasatera ekartzea gura dute; bestetik, herriko jendearekin egindako ikuskizuna sustatzea gura dute.

Elkartearen aurkezpena datorren otsailaren 7an egingo dute, 19:00etan Kulturaten. Ruth Osinaga Izaskun Murgia elkarte lirikoko kideak. *La Bohème* operako pasarte bat abestuko du, hain zuzen, Kulturaten.



Kartela. | GOIENA

1896an estreinatutakoa

Pucciniren *La Bohème* opera 1896ko otsailaren 1ean estreinatu zuten Turineko Regio antzokian. Estreinaldiaren egunean harrera hotza izan zuen bai ikusleen eta baita kritikaren aldetik ere. Gaur egun, oster, opera adierazgarriena da eta mundu mailan gehien egiten dena: 2005 eta 2010 artean, munduko laugarrena izan zen.

Ez da lehenengo aldia

Arrasaten musika zaletasun handia dago. Horren adibide da urtero egiten duten zarzuela. Gainera irakasle izugarri ona dutela dio Gallardok: Tere Gonzalez. Bada, ez da lehenengo aldia opera bat Arrasaten eskainiko dutenak. "Orain dela urte batzuk San Juan de Dios ospitalearen urteurrenean bi opera emanaldi egin zituzten", azaldu du Urteagak.

Zarzuela eta operaren arteko ezberdintasuna zein den galde-tuta, Gallardok dio zarzuela beti "genero txikia" izan dela: "Operak musikalki erregistro handiagoak

eskatzten ditu; baina, biak dira zailak". Bi generoen arteko ezberdintasun handiena da operan ez dutela elkarrizketarik egiten; hau da, elkarrizketa guztiak abestuen izaten dira. Zarzuelan, oster, abesteaz gain elkarrizketak ere egiten dituzte.

Ozenki elkartearen asmoa urtero opera bat Arrasatera ekartzea izango da. Hurrengo pausoa datorren astean emango dute, otsailaren 7an aurkeztuko dute eta elkarte. "Uste dugu onena elkarte moduan eratzea izan dela", azaldu dute. Operaz gozatzeko aukera bikaina izango da, hortaz, aurrerantzean gurean.



Begiristain Iturriotz baserria IKAZTEGIETA
607 36 57 43
begiristainsagardotegia@gmail.com
www.begiristainsagardotegia.com

Eskaintza

- Urtariletik ekaina bukaera arte zabalik, sagardoa txotxetik. Zuzeneko botila sagardo salmenta urte guztian. Etxez-etxeko banaketa.
- Sagardotegiko menua. Arkumea burduntzian enkarguz. Afariak asteartetik zapatara, bazkariak eguenetik igandera
- Webgunean sagardotegira bazkidetzeko aukera.
- **“Tolare” sagardotegia**



Iruki Otaola hiribidea, 3 atzealdean.
EIBAR / 943 20 68 44
irukieibar@hotmail.com / http://irukieibar.com

Eskaintza

- Eibar erdialdean.
- Aparkalekua doan.
- 200 lagunentzako tokia.
- Egunero zabalik, baita egubakoitz eta zapatu gauetan eta jai bezperatan ere.
- Parrilla eguneko menuan ere.
- Prezio merkeak eta giro atsegina.



Ipintza Ipintza baserria / Santio Zaharra 12
ASTIGARRAGA / 688 81 17 24
ipintza@ipintza.com / www.ipintza.com

Eskaintza

- Astigarraga erdigunean.
- Egunero zabalik, igande gauetan izan ezik.
- Urte osoan sagardoa txotxetik.
- 150 pertsonarentzat lekua.
- Eserita.
- Aparkalekua.
- Sagardo botila salmenta.
- **“Tolare” sagardotegia**



Iturrieta Arraga auzoa / ARAMAIO
945 44 53 85 / 685 72 15 93
iturrietasagardotegia.blogspot.com

Eskaintza

- Egubakoitzetik domekara irekita. Erreserbatuz gero beste egunetan ere bai.
- 80 lagunendako lekua, eserita edo zutik.
- Bertako sagardoa.
- Sagardotegiko menua (txuletoi edo saiheskiarekin)
- Giro aparta zuzeneko musikarekin.

**EGIN
TXOTX!
sagardotegietan**



Larre-Gain Larre-gain sagardotegia
HERNANI
943 55 58 46 / 616 28 78 67

Eskaintza

- Janaria sagardotegiak jartzen du.
- Bakailoa saltsan, aurrez deituta.
- Astegunetan, gauetan bakarrik zabalik. Egubakoitzetan eta zapatuetan egun osoa zabalik. Domeketan, eguerdira arte zabalik. Astelehenetan, itxita.
- **“Tolare” sagardotegia**



Oiharte Irukarate-gain auzoa (Mutiloa bidea)
ZERAIN
943 50 10 13 / 686 29 91 58
www.oiharte.com

Eskaintza

- 120 lagunendako lekua, zutik edo eserita.
- Martitzenetik zapatara gauetz. Egubakoitz, zapatu eta domeka eguerdian zabalik.
- Sagardoa botilan salgai.
- Sagardotegiaz gain nekazaritza turismoa.



Unzueta Zabala z/g
ARAMAIO
945 44 50 95

Eskaintza

- Sagardoa txotxetik urte osoan.
- Sagardotegiko menua: 29 €
- Berezitasuna: txuleta.
- 70 lagunendako tokia.
- Parking eta terraza.



Zabala Garagartza baserria / ADUNA
(Andoain eta Billabona artean)
943 69 07 74

Eskaintza

- Urtariletik maiatz hasiera arte zabalik.
- Egubakoitz, zapatu eta domeka eguerdian enkarguz.
- Bertako janaria.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako Sagardo Lehiaketetan, 2004an, 2006an eta 2010ean irabazleak.
- Botilak salgai urte osoan.
- **“Tolare” sagardotegia**



Patxi Garate Magu, Aroztegi erakutsiko dituen lanekin. | PATXI GARATE

Zeinuek eta sinboloek osatuko dituzte margolanak

Patxi Garatek margolan erakusketa zabalduko du gaur, 18:00etan, Bergarako Aroztegi aretoan

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

Aroztegi aretoan Patxi Garateren *Keinua eta letraren artean* erakusketa zabalduko dute gaur, egubakoitza. Hilaren 19ra arte egongo da ikusgai, ohiko ordutegian: martitzenetik egubakoitzera 18:00etatik 20:30era; zapatuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domeketan 12:00etatik 14:00etara, hain zuzen ere.

Bi margolan mota

Erakusketaren ildo nagusia zeinuek eta sinboloak izango dira. Bi margolan mota egin ditu Garatek: "Paperezko margolanak izango dira batzuk eta oihal gaineko olioak besteak", azaldu du Garatek. Paperezko lanetarako grabatu kalkografikoak egin ditu, eta, behin horiek lortuta, eskuz margotu ditu tintarekin.

Helburuak ere ezberdinak izan direla azaldu du Garatek: "Paperezko margolanetan ahalegindu naiz zeinu bakoitzaren pertsonalitatean sakontzen". Olioetan, ostera, zeinuek beste erlazio batzuekin nahastu ditu: "Esperimentatu egin dut, kasu batzuetan irudi geometrikoekin nahastu ditut zeinuak... helburua hizkuntza kodifikatu bat bilatzea

DATUA

30

MARGOLAN

Aroztegi erakusketa 30 bat margolan jarriko ditu ikusgai Garatek.

izan da", azaldu du Garatek. Zeinuen eta sinboloen elkartzearekin jardun du Garatek, eta, modu horretan, beste mezu bat helarazi gura izan du.

Margolanen tamaina hauxe izango da: olioak, 1,5x1 metro ingurukoak; eta paperak, 70x50 zentimetro ingurukoak.

Patxi Garate margolaria

Patxi Garate Magu 1959an jaio zen, Otxandion. 1991n hasi zituen margo ikasketak Sacle ikasketa zentroan, Bartzelonan. Gerora, Gasteizko Arte Ofizioen Eskolan, Donostiako CCC eskolan, Artelekun eta Debako Arte eskolan egin ditu ikastaroak.

Hainbat erakusketa egin ditu urte hauetan guztietan, bai bakarka, baita taldeka ere. Bergaran lehenengo aldiz jarriko du erakusketa. Gainera, Aroztegi erakusketa artistikoa izango da Garaterena.

Las Rozas grabatu lehiaketa

2011. urtean, Madrilgo Jose Caballero de las Rozas grabatu lehiaketan Garateren lanak aukeratu zituzten erakusketa osatzeko. "Oso albiste ona" izan zela azaldu du Garatek.

Gaur izango da erakusketaren irekiera ofiziala (18:00etan), eta berezia izango dela azaldu du, "giro soziala" izango duela.

80ko hamarkadako punk amorratua Vomitoren eskutik

Kooltur ostegunak ekimenaren barruan, Vomito talde irundarrak eskainiko du kontzertua Arrasateko gaztetxean datorren egunean, 22:00etan. Vomito 80ko hamarkadan sortu zuten. Punk amorratuetik ildo gaiztoenera bidea egin zuten. 1995ean taldeko abeslari Victor hil, eta handik gutxira desagertu egin zen taldea. 2009an berriro elkartu ziren, eta, iraganeko abestiak gaurkotzeaz bat, Vomitoren ukitua duten kantuak egiten segitu dute *Regreso a la escena del crimen* eta *En la zona cero* diskoetan, adibidez. Iraganari begiratzeko modu egozia izango da.

Mikel Laskurainen 'Wilt' antzezlan Oñatin eta Arrasaten

Ados antzerki taldeak *Wilt, panpina puzgarriaren hilketak* eskainiko du datozen asteetan gurean. Otsailaren 17an Oñatiko Santa Anan eskainiko dute antzezlan, 22:30ean. Sarrerak www.barrabarra.eu/c/OinatiKultura atarian eskura daitezke otsailaren 17ra arte -leihatilan ere jarriko dituzte, egunean bertan, 22:00etan-. Arrasaten, ostera, otsailaren 19an izango da, Amaia antzokian, 19:30ean. Tom Sharperen eleberrirako oinarritutako antzezlan da *Wilt, panpina puzgarriaren hilketak*. Mikel Laskurainen aktore bergararra da protagonista nagusia: Wilt, hain zuzen ere.

Koadrilen arteko bertso txapelketa hasiko dute

Bihar Aramaion jokatu den saioan Aramaioko Marixeka taldeak parte hartuko du

A.E. | ARAMAIO

Arabako koadrilen arteko bertso txapelketa hasiko dute aste bukaeran. Lau saio jokatu dituzte, horietako bat Aramaion. Marixeka elkartean izango da, zapatuan, 20:30ean -afarirako txartelak eskuratzeko azken eguna atzo zen-. Bat-bateko eta idatzizko saioak egingo dituzte. Bat-batekoan, Aramaioko Marixeka eta Urkabustaizko Izarra lehiatuko dira; eta idatzizkoan, Izarrako Neskek! eta Gasteizko Jagobaren Bikingoak.

Ligaxka moduan

Txapelketa hiru fasetan jokatuko dute. Lehenengo fasea, otsailean, ligaxka moduan izango da: lau ligatan banatuta 12 talde lehiatuko dira. Aramaiok

ARAMAIOKO SAIOA

Bat-batekoa:

Aramaioko Marixeka vs Urkabustaizko Izarra

Idatzizkoa:

Izarrako Neskek! vs Gasteizko Jagobaren Bikingoak

bi talde izango ditu Zuiako ligan: Aramaioko Izarrak eta Aramaioko Marixeka.

Liga bakoitzeko irabazleek finalerdiak jokatu dituzte (martxoak 10 eta 11). Irabazleek finala jokatu dute martxoaren 24an, Aramaion. Bat-bateko eta idatzizko saioak izango dira.



Zamalloa, Antxia eta Arratibel, Aretxabaletan. | JULIO CALLEJA

Kontakizun musikatua, Aretxabaletatik Arrasatera

'Zast!' helduendako ikuskizuna gaztetxean eskainiko dute bihar, zapatua, 18:00etan

A.E. | ARRASATE

Aretxabaletan estreinatu ostean, Arrasateko gaztetxean egingo du hurrengo geldialdia *Zast!* helduendako kontakizun musikatuak. Bihar, zapatua, izango da, 18:00etan.

Ipuinetatik abiatuta hainbat eratako testuak irakurriko dituzte. Besteak beste, heriotza, gai erotiko-pornografikoa, ume lapurtuen auzia... izango dituzte berbagai. Ukitu berritzailea duen ikuskizuna da *Zast!*

Bost lagun igoko dira taula gainera: Beñat Zamalloa kontarlari lanetan; Martin Antxia perkusioan; Eñaut Zubizarreta txeloan; Aitor Ziardegi pianoan -zalantzan dago-; eta Maialen Arratibel gitarra eta kantuan.

Zamalloak azaldu digu Aretxabaletako ikuskizuna grabatu egin zutela eta hura ikusten egon direla: "Hainbat akats ikusi ditugu eta horiek zuzendu egin ditugu. Arrasaten testuak hobetuta eta moldatuta eskainiko ditugu". Bestalde, bi kontakizunetan inprobaziora jo behar zutela gaineratu du, baina urduritasuna dela-eta "motz" geratu zirela dio. Hala, Arrasateko gaztetxera testuak prestatuta eramango dituztela azaldu du. Bestalde, *Atzera* kontakizuna ez dute eskainiko: "Grabatuta ikusita, ez zaitzagu gustatu", dio.

Ordubete inguruko ikuskizuna izango da, doan; hala ere, borondatea eskatuko dute. Hurrengo saioa Eskoriatzan egingo dute eta dagoeneko hitza eman dute Gipuzkoako eta Nafarroako hainbat herritan: "Ikuskizunari neurria hartzen diogunean lotuko ditugu hitzorduak".

'Spaghetti western' doinuak izango dira gaur Arrasaten

Mexikotik etorritako Twin Tones taldeak kontzertua eskainiko du, 20:00etan, antzokiko 'hall'-ean

MIRIAN BITERI | ARRASATE

Otsailerako gertatu duten egitarauaren harira, doinu amerikarrak nagusituko dira gaur, egubakoitzean, Arrasateko Amaia Udal Antzokian. Rock, surf eta *spaghetti western* filmetako doinuak nahasten dituen Twin Tones banda mexikarrak emanaldia egingo du *hall*-ean, 20:00etan. Sarrerak bost eurotan daude salgai www.kutxa.net, Servikutxa eta Amaia antzokiko leihatilan.

2002. urte amaieran taldea osatu zuten Mexikoko hiriburuan Lopezek (gitarra), Martinezek (baxua), Casasolak (bateria), Huetak (samplers eta organoa) eta Gutierrezek (gitarra). Hasieran, gertukoei oparitzeko asmoz hasi ziren grabatzen, eta horrela sortu zen *Nacion Apache* lana. Baina lan horrek piztutako ikusmina ikusita, zuzenean jotzea erabaki zuten.

2009ko surf disko onena

Handik sei urtera, Gutierrezek taldea utzi zuen eta haren ordez



Twin Tones mexikarrek geldialdia egingo dute Arrasaten. | GOIENA

Cardeño sartu zen, eta *Capello di Mariachi* izeneko lana argitaratu zuten handik gutxira. Indie Music Awards sarietarako izendatu zuten eta 2009ko surf disko onenaren saria irabazi zuten.

2011n, ostera, *Trio de Mercenarios* kaleratu zuen; azken lan horretan, *spaghetti western* fil-

metako soinu bandetako bertsoiak sartu dituzte bereziki, eta horretarako, tronpetak eta flautak musika tresnak sartu dituzte. Besteak beste, Ennio Morricone musikari italiarraren abesti ezagunak daude esandako diskoan. Hain justu ere, *Trio de Mercenarios* aurkeztuko dute gaur Arrasaten.

Iñaki Riviere arrasatearraren lanak Bilbon daude ikusgai ekainera arte

M.B. | ARRASATE

Iñaki Riviere margolari arrasatearraren lan ezagunenetari-koak bisita daitezke Bilboko Arteria Campos Eliseos galerian; 2007tik 2010era bitartean egingo dako zazpi margolan jarri ditu gune horretako bosgarren solairuan, eta ekainaren 30era arte egongo dira ikusgai, egunero, 09:00etatik 21:00etara bitartean. Hain justu ere, formatu handiko lan bi eta beste bost txikiagoak aukeratu ditu Bilbon aurreneko aldiz jarri duen erakusketarako.

Margolanak egiterakoan joan den mendeko 70eko hamarkadan jaiotako errealismoan eta figurazio berrietan oinarritzen da. Horren harira, artista

eta pertsona moduan hasi den inguruneari lotuta, industria eta sarrailagintzarekin lotutako objektu eta estrukturalak egitea gustatzen zaio bereziki.

Erakusketa eta sari asko

EHUn Arte Ederrak ikasi zituen Rivierek. 1997an ikasketak amaitu zituenetik gaur arte erakusketa asko egin ditu bakar-ka eta taldeka, eta hainbat sari ere irabazi ditu; besteak beste, Zarautzen, Elorrioren eta Arrasaten.

Horretaz gainera, 1999an Antonio Lopez pintore ezaguna izan zuen irakasle Jerez de la Fronteran jasotako ikastaro batean.



Iñaki Riviere, berak egindako margolana ondoan duela. | MARTIN CALVO

KAMISETEN ZOZKETA*



'Aita, zonbia naiz' filmaren kamisetak

- 7 eta 12 urte bitarteko umeentzat.
- 2012 Goya Sarietan ANIMAZIOZKO PELIKULA ONENA kategorian finalista suertatu da.

Parte hartzeko

Goiena Klubeko kideentzat,
943 25 05 05
telefonora deituta!

Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko dira.

OTSAILEKO SARI NAGUSIA

IRABAZLEA
ASTELEHENEAN!
Astilleron bazkaria
+
Balentziaga museorako
bi sarreraren irabazleak
argitaratuko ditugu.



NESCAFÉ
Dolce
Gusto

Krups kafe-makina

- Presioa: 15 bar
 - 1,3 litroko ur-ontzia, ateratzekoa
 - Bi urteko garantia
- Neurriak: 21,4 x 31,5 x 33

EROSKI

Parte hartzeko

Telefonoz: 943 25 05 05
e-postaz: kluba@goiena.com
SMS bidez.

Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezertzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

goienakluba 2012

Tel.: 943 25 05 05 | e-posta: kluba@goiena.com | goienakluba.com
Urteko kuota: 50 €.

goienakluba[™]
Abantailaz betetako kluba!



1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Arrasate. Prezio berria. Aukera paregabea. Eguzki dorrean etxebizitza salgai. Eraberritua, gutzia altzariz hornitua eta oso eguzkitsua, denak kanpoaldera ematen du. Hiru logela, bikomun, egongela eta sukaldia. Hiru igogailu eta gas naturala. 20 metro koadroko garaje itxia aukeran. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 650 01 05 15

Eskoriatza. Duplexa salgai. 120 metrokoa. Berri-berria. Jantzia. Prezio onean. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 679 16 24 96

Oñati. Etxebizitza salgai San Lorentzo auzoan. 60 metro koadro eta bi logela. Prezio negoziagarria. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 699 78 47 49

103. ERRENTAN EMAN

Aretxabaleta. Bi logelako eta terraza handia duen etxebizitza ematen da errentan. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 665 72 18 59

Bergara. Erdigunean etxebizitza ematen da errentan. Lau logela, bi komun, sarrera, egongela eta sukaldia. Hornitua eta jantzia. 607 32 74 32

Oñati. Errekalde 3an etxebizitza ematen da errentan. Igogailua, oso eguzkitsua, guztiz berritua, oso ondo hornitua eta jantzia. Hiru logela, bainugela, sukaldia eta egongela. Nahiago bertako pertsonak. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 677 07 19 37

Oñati. Kalebarrian 5 urte dituen etxebizitza berria ematen da errentan. Guztiz jantzia. Oso erosoa bizitzeko. Bi gela, komuna, eta sukaldia eta egongela bateratuak. Bi balkoito ere baditu. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 605 76 63 87

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitza bila, errentan. Hiru logelakoa. Oso arduratsua. 630 26 13 28

Oñati. Etxebizitza behar dut errentan. Estudio, logela bat edo biko. Venezuelakoa naiz. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 608 49 89 76

105. ETXEA OSATU

Aretxabaleta. Logela ematen da errentan Araba ibilbidean. Mutil batentzat. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 678 73 66 54

Arrasate. Pertsona bat behar da lau gela eta bi bainugelako pixua osatzeko. Etxea oso eguzkitsua da, oso ondo dago eta hirur langile bizi dira bertan. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 653 71 44 57

Arrasate. Neska arduratsua behar da etxebizitza osatzeko. Erdigunean dago, etxe berria da eta egoera oso onean dago. Interesatuak deitu telefono honetara: 606 88 94 14

Arrasate. Pixua osatzeko jende bila gabiltza. Guztiz hornitua: garbigailua, ontzi-garbigailua, berokuntza zentrala. 250 euro hilabetero, gastuak barne. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 620 52 94 98

Bergara. Logela ematen da errentan pertsona bakar edo bikotearentzat. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 699 09 46 26

Eskoriatza. Pertsona bat behar duguz plazan dagoen etxebizitza osatzeko. Guztiz eraberritua. Leire. Interesatuak deitu telefono honetara: 685 73 60 57

Logela bila nabil. Bergaran edo Arrasaten logela edo konpartitzeko pisu baten bila nabil, nahi eta nahi ez kontratuekin. Interesatuak deitu telefono honetara: 648 01 32 39

2. GARAJEAK

201. SALDU

Bergara. 15 metro koadroko garaje itxia salgai edo errentan Ozaetan. Prezio negoziagarria. Deitu 655 72 63 13 edo 943 76 50 71 zenbakietara

Eskoriatza. 15 metro koadroko garaje itxia salgai Intxaurtueta 23an. 679 16 24 96,

203. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Garaje bat alokatzen da Arrasaten. Larreako etxean atzetik (Usaetxe enparantzan). 60 euro hilabetea. Sergio. 678 53 82 48 edo solveira@hotmail.es

Bergara. Garaje itxia, 17 metro koadrokoa, ematen da errentan Burdinatan. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 943 76 06 60

204. ERRENTAN HARTU

Bergara. Garaje baten bila nabil, Bergarako edozein zonan. 618 90 23 66

3. LOKALAK

305. BESTELAKOAK

Oñati. Lokala daukat partekatzeako moduan. Guztiz hornituta dago. Erdigunean. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 651 70 17 41

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Bergara. Euskaraz hitz egiten duen emakume bat behar da bi ume zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 637 77 45 57 edo 678 64 15 18

BERGARA

Neska behar da harategirako. Euskara beharrezkoa. 615 78 45 75

402. ESKAERA

Arrasate. Emakume arduratsua etxeko lanak edota pertsona nagusiak zaintzeko prest. Interesatuak deitu telefono honetara: 656 77 53 37

Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza. Andre arduratsua lanerako gertu: garbiketarak edo nagusiak zaintzeko. Orduka, egun osoz zein etxean bertan bizi izaten. 682 31 97 37

Arrasate. 53 urteko bertako emakumea edozein lan egiteko gertu: emakume zaindu, etxekolana egin, pertsona nagusiak zaindu eta abar. Interesatuak deitu telefono honetara: 943 79 60 89

Arrasate. Emakume euskalduna. Umeak zaindu eta eskolara eramango nituzke. Orduka plan-txa egiteko ere prest nago. Interesatuak deitu hurrengo zenbakira: 626 29 98 43

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere. GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: PREZIO BEREZIA GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan.

Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu.

Egubakoitzean + Astelehenean: 21 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

Arrasate. Gizona gertu edozein lanerako: garbiketarako, tabernetan zerbitzari edo bes-tela. Baita asteburuetan ere. 693 40 88 86

Arrasate. Neska gazte euskalduna etxeak garbitzeko edota umeak zaintzeko prest, esperientzia handikoa. Interesatuak deitu telefono honetara: 618 41 24 79

Arrasate. Neska gertu etxe zein atariak garbitzeko. Erreferentzia onak ditut. 610 82 02 17

Arrasate. Neska gertu gaixoak eta edadetuak zaintzeko. Esperientziakin daukat egoitzatan geriatrila laguntzaile gisa. Gauak ospitalean egiteko prest. Etxe garbiketarak ere bai. Interesatuak deitu telefono honetara: 693 40 88 86

Bergara. Emakumea gertu ume zein nagusiak zaintzeko edo garbiketarak egiteko. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 610 34 97 88

Bergara. Eskarmentu handiko emakumea, geriatrila ikasketaduna, orduka, etxean bertan bizi izaten zein asteburuetan lanerako gertu. Urte asko daramatzat hemen eta legezko paperak ditut. 617 12 61 44

Bergara. Goizetan garbiketara lan egin edo nagusiak zainduko nituzke. 680 77 06 46

Bergara. Neska euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko goizez zein arratsaldez. 605 51 96 89

Bergara. Neska gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Erreferentziaduna. Interesatuak deitu telefono honetara: 669 10 13 94

Debagoiena. 40 urteko emakumea gertu nagusi zein umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 620 43 85 40

Debagoiena. 42 urteko emakumea lanerako prest, arraindegian lan egiteko eta janariak manipulatzeko kametak ditut. Pertsona nagusiak zaindu eta etxeak garbitzeko prest. Automobila daukat. Deitu 678 98 30 32 telefonora.

Debagoiena. Arrasateko esperientziadun 28 urteko mutila gertu barrako zerbitzari, furgonetako gidari banatzailea, motozikleta gidari banatzailea, banatzailea orokorrean, pintore eta arotza laguntzailea, komertzio dependiente moduan lan egiteko. 677 61 95 92

Debagoiena. Asteburuetan lan egingo nuke: nagusiak zaintzen edo denetarik garbiketara lanetan. Deitu telefono honetara: 699 09 46 26

Debagoiena. Asteburuetan zerbitzari lanak egingo nituzke jatekatean. Esperientzia eta ingelesa. 649 57 70 59

Debagoiena. Bertako neska gertu nagusiak zaindu eta etxeko garbiketarak egiteko. Eskarmentu handikoa. 696 84 19 51

Debagoiena. Denetarik garbiketarak egingo nituzke. Maite. 696 88 93 73

Debagoiena. Emakume esperientziaduna eta arduratsua, etxeko lanak eta pertsona nagusiak zaintzeko prest. Interesatuak deitu telefono honetara: 680 12 73 16

Debagoiena. Emakumea eskeintzen da etxeko garbiketara orokorrak egiteko, esperientziaduna. Lanean hasteko prest. Interesatuak deitu telefono honetara: 672 88 01 01

Debagoiena. Emakumea gertu garbiketarak egin, nagusiak zaindu zein tabernetan lan egiteko. Egun osoz zein orduka. Interesatuak deitu telefono honetara: 605 41 88 20

Debagoiena. Emakumea gertu orduka, egun osoz zein etxean bertan bizi izanda lan egiteko: nagusiak zaindu, garbiketarak eta abar. 638 59 04 71

Debagoiena. Esperientziadun automozio mekanikaria lanerako eskaintzen da. Hidraulika-neumatika eta pisudun makinen ezagutza, besteak beste. Antonio. 656 69 80 70

Debagoiena. Emakumea etxeko lanak eta pertsona nagusiak zaintzeko prest. Esperientziaduna. 680 12 73 16

Debagoiena. Igeltsero edo konpontzelan egingo nituzke. Baita sukalde laguntzaile ere. Rolando. 639 41 68 38 edo 943 70 79 82

Debagoiena. Mutil arduratsua gertu nagusiak zaindu, atari zein elkartek garbitu edo bestelako lanerako. 685 42 72 80

Debagoiena. Mutil gaztea lan desberdinak egiteko gertu. Mekaniko lanak, garbiketara, pertsona nagusiak zaindu. Interesatuak deitu telefono honetara: 645 54 43 25

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaindu. Deitu 651 38 85 38 telefonora

Debagoiena. Nagusiak zainduko nituzke. Legezko paperak eta gidatzeko baimena dauzkat. Eskarmentu eta erreferentzia onak. Interesatuak deitu telefono honetara: 603 14 59 17

Debagoiena. Nagusiak zainduko nituzke asteburuetan, jaiegunetan edo etxean bertan. Gauze ere bai. Esperientzia eta erreferentziak ditut. Interesatuak deitu telefono honetara: 638 13 97 28

Debagoiena. Nagusiak zaindu edo taberna, bulego eta abarrak garbitzen lan egingo nuke. 943 10 96 89 edo 671 18 50 83

Debagoiena. Nagusiak zaindu lan egingo nuke etxean bertan bizi izanda. Erizain laguntzaile naiz. Etxeko lanak ondo egiten ditut. Baserrietan ere lan egingo nuke. Erreferentziak ditut. Interesatuak deitu telefono honetara: 618 93 59 29

Debagoiena. Neska arduratsua eta atsegina garbiketara, ume zein nagusien zaintza edo bestelako lanerako gertu. Etxean bizi izaten edo orduka. Magaly. Interesatuak deitu telefono honetara: 615 06 28 04

Debagoiena. Neska arduratsua gertu nagusi zein umeak zainduko nituzke orduka edo asteburuetan ere bai. 606 54 89 90

Debagoiena. Neska arduratsua gertu nagusiak zaindu edo garbiketarak egiteko. Interesatuak deitu telefono honetara: 690 71 94 45

Debagoiena. Neska euskalduna edozein lanerako gertu. Interesatuak deitu telefono honetara: 673 41 99 69

Debagoiena. Neska euskalduna gertu umeak eta nagusiak zainduko nituzke eta etxeak garbitzeko. Informeak ditut. Esperientziaduna. Interesatuak deitu telefono honetara: 671 35 22 60

Debagoiena. Neska euskalduna umeak eta nagusiak zainduko eta garbiketarak egiteko gertu. Esperientziaduna. Informeak ditut. Disponibilitate osoa. 671 35 22 60

Debagoiena. Neska gertu sukaldari edo garbiketarak egiteko. Esperientziaduna. Legezko paperak eguneratuta dauzkat. 619 78 63 41

Debagoiena. Neska zerbitzari edo garbiketarak egiteko gertu. Eskarmentuduna. 679 04 42 68

Debagoiena. Sukalde laguntzaile, garbiketara edo nagusiak zainduko nituzke. 691 03 25 02 edo 943 54 09 41

Debagoiena. Sukalde laguntzaile, garbiketara eta abarrak egingo nituzke. Gozogintzan aditua naiz. Orduka zein egun osoz. 686 66 80 63

Debagoiena. Ume zein nagusiak zaindu edo garbiketarak egiten lan egingo nuke. Baita dendaria ere. Orduka, egun osoz edo etxean bertan bizi izaten. 606 72 28 76

Debagoienean haurrak zainduko prest. Haur hezkuntza ikasia eta esperientzia duen neska euskalduna goizez zein arratsaldez haurrak zainduko prest. 680 34 29 60

Elgeta, Bergara edo Arrasate. Emakume euskalduna gertu lanerako. 606 50 02 67

Zaintzaile. Haur Hezkuntza ikasiduen 22 urteko neska prest haurrak zainduko. Deitu 688 88 39 57 telefonora.

5. IRAKASKUNTZA

502. EMAN

Debagoiena. Ordenagailua ondo erabiltzen ikasi nahi duzula? Internet, web orriak egin eta abar. Eskola partikularrak zure ordutegira egokituta. Edozein adin. Merke. 679 74 00 61

7. ANIMALIAK

701. SALDU

Ahutzak. Salgai, bakoitza bi antxumerekin. 180 euro. 678 25 52 35

Behorrak. Bi behor salgai, prezio onean. 695 73 67 61

Txakurkumeak. Malinois Belgiar artzai txakur kumeak salgai. 667 74 65 27

703. EMAN

Arratoi txakurra opari. 7 hilabeteko arratoi txakur umea opari. Beltza eta bizia da eta oso polita da. 655 71 39 27

Txakurkumeak. ematen dira opari. Ama Setter Ingles arrazakoa. Hiru hilabete dituzte. 685 72 46 86 edo 943 79 96 55

8. DENETARIK

801. SALDU

"PSP Go"-a. salgai. Berria. Prezio interesgarria. Deitu: 943 77 00 26

Compaq ordenagailua. salgai. Oso egoera onean eta prezio interesgarria. 662 58 52 29 edo 943 20 81 17

DVDa. LG DVD berria salgai. Prezio interesgarria. Deitu 943 77 00 26 telefonora.

Eskiatzeko materiala. 10-12 urteko umearendako praka, 36 neurrikoa, eta snow taula salgai, 1,25 neurrikoa, lokailuekin. 656 78 64 64

Eskiak salgai. Eski alpinoko eskiak saltzen ditut. Dynastar markakoak, look fijazioekin. Kantoak zoroztu berri eta enzeratuak daude. 1,90 neurrikoak dira (persona altu samarrentzat). Eskiatzen hasteko aproposak. 50 €. Harremanetarako: aitz2gain@yahoo.es.

Gitarra elektroakustiko. berria salgai. Tanglewood model premier Twissas. 1012929 seriekoa. Deitu 620 64 96 37 telefonora.

Mendi eskiko botak. Scarpa Avant mendi eskiko botak saltzen ditut egoera onean. 75 euro. 43 zenbakia. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 652 72 66 97

Paratxokea. Volkswagen Golf 3 autoaren aurreko paratxokea salgai. 50 euro. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 665 74 51 80

Solariuma. Gorputz guztiko Philips HB solarium tolesgarria sagai. Egoera onean. 3 lanpara Philips Cleo HPA Flex-Power ditu, azalerako filtroa, bi tenporizadore. 1200 eurotan baloratua. 500 euroan salgai. Negoziagarria. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 685 72 46 86 edo 943 79 96 55

Taxi lizentzia. salgai Arrasaten. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 606 76 36 85

Trabesiako botak. Nordica TR10. 42-43 oinarentzako. Hiru fijazio lotura. 90 euro. Harremanetarako: aitz2gain@yahoo.es.

Umeak eramateko. Jane etxeko kapazoa, Maxi Cosia eta aukilkoak salgai. Oso ondo zainduta. 199 euro. 653 722 254 edo marysea15@hotmail.com

Xurgagailua. (aspiradora) salgai. Bigarren eskukoa, ia erabili gabekoa. Akaroen aurkako eta kontsumo baxukoa. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 659 62 02 49

802. EROSI

Bizikleta. 4 urteko mutikoarentzat bigarren eskuko bizikleta erosiko nuke. 649 00 53 42

Lursaila. Lursaila erosiko nuke Bergara edo inguruko herrietan. 5.000 euro inguru ordaintzeko prest. 669 17 09 51

806. GALDU

Telefono mugikor berria galdu dut. Errege bezperan, urtarilaren 5ean, telefono mugikor berria galdu nuen 01:00etatik 02:30era bitartean, Bergaran. Sony Ericsson markakoa da, berri-berria. Norbaitek aurkitu badu eskertuko nuke deitzea. Txetxu. 656 79 60 93 edo 943 76 05 47

807. AURKITU

Eraztuna. Antzuolako plazan urrezko eraztun bat aukittu genuen abenduan. Norbaitek galdu badu deitu telefono honetara: 656 76 78 90

Lepokoa Bergaran. Lepokoa aurkitu nuen urtarilaren 19an, egunez, Bergarako Irala kalean. Zurea bada deitu zenbaki honetara: 630 12 39 08

9. HARREMANAK

903. DEIAK

Hernanitik autobusa. Otsailaren 25ean, sagardotegiostean Hernanitik bueltatzeko autobusa bete nahian gabiltzan Onatiko lagun taldea gara. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 645 73 25 65



Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

- Bergara:
- Lorentxokan pisuak estrenatzeko. 3 logela. 240.481€.
 - PREZIO BEHERAPEN HAUNDIAREKIN!
 - Lorentxoko 73 m². 2 logela. 227.450€. Aukera ezin hobea
 - Urteagan pisuak estrenatzeko. 195.000€
 - Bidekurutzetan pisuak estrenatzeko. 1, 2, 3 eta 4 logela.
 - Masterreko 104 m². 3 logela. Estrenatzeko. Trastelekuarekin. 294.495€.
 - Martoko 140 m². Duplexa. Berria. Aukera ona.
 - Justo Garate Plaza. 80 m². 3 logela. Ia berria. Garajea aukeran.
 - Simon Arrieta 90 m². 3 logela. Balkoia, igogailua, kalefazio eta trastelekuarekin.
 - Zabalotegi 80 m². 3 logela. Igogailua. 154.760€.
 - Ibargarai 54 m². Garajearekin. Aukera ona. 234.395€
 - Artzamendi 70 m². 2 logela. Igogailua eta kalefazioarekin. Prezio ona.
 - San Lorenzo 67 m². Garaje

ASTEAGOIENAN



'Euskararen Espektakulua' ikusgai

Aretxabaletako Arkupe aretoan eskaini zen ikuskizuna orain telebistaz ikusteko aukera izango duzue. Zapatuan 15:00ean eta 22:00ean eskainiko dizuegu eta domekan, berriz, 17:00an eta 20:00an.

'Euskararen Espektakulua' Zapatua, 15:00



Herrira ekimen berriaren aurkezpena

Domekan Donostian aurkeztuko duten Herrira mugimenduaren gaineko xehetasunak emango ditu Nagore Garcia bozeramaileak. Hitzordua martitzenean Goiena Magazinean, Eneko Azkareteren eskutik.

'Goiena Magazinea' Martitzena, 19:45

GOIENA TELEBISTA

EGUBAKOITZA, 3

12:30 Magazinea
13:30 Gipuzkoa Kultura
13:55 Kantari
14:22 Onein
14:47 Berriak
15:14 28. Klip
15:38 Bizitegia
16:08 Kantari
16:38 Berriak
17:11 Esatea libre
18:21 Beranduegi.tv
18:41 Berriak
19:16 Kantari
19:48 Magazinea
20:48 Gipuzkoa Kultura
21:18 Magazinea
22:18 Hamaika.bit
22:45 Magazinea
23:45 28. Klip

ZAPATUA, 4

10:00 Kantari
10:30 Ipupomamua
11:24 28.Klip
11:50 Kantari
12:20 Ur eta Lur
12:50 Onein
13:17 Berriak
13:32 Magazinea
14:32 Gipuzkoa Kultura
15:02 Euskararen espektakulua
16:12 Berriak
16:52 Kantari
17:52 Gipuzkoa Kultura
18:22 Esatea libre
19:32 Kantari
20:02 Erreportajea: Kupeletik Kupelera
20:42 Beranduegi t.v.
21:02 Magazinea
22:02 Euskararen espektakulua
23:12 Berbaz
00:12 Gipuzkoa Kultura
00:42 Ikusmira
01:07 Magazinea

DOMEKA, 5

10:00 Kantari
10:30 Ipupomamua
11:00 Kantari
11:30 Magazinea
12:30 Bizitegia
12:55 Kantari
13:22 Nere herrie: Urdazubi
14:14 Onein
14:41 Gipuzkoa Kultura
15:11 Berbaz
16:11 Kantari
16:41 Berriak
17:00 Euskararen espektakulua
18:10 Gipuzkoa Kultura
18:45 Berriak
19:00 Magazinea
20:00 Euskararen espektakulua
21:10 Beranduegi t.v.
21:25 Ikusmira: Arkeologi museoa
21:50 Magazinea
22:50 Esatea libre
23:50 Bizitegia

ASTELEHENA, 6

12:25 Magazinea
13:25 Onein
13:55 Kantari
14:28 Beranduegi t.v.
14:45 Berriak
15:15 Berbetan
15:42 Ur eta lur
16:12 Hamaika.bit
16:45 Berriak
17:15 Bizitegia
17:45 28.Klip
18:09 Altxor txokoa: Miren Fernandez
18:45 Berriak
19:15 Kantari
19:45 Magazinea
20:45 Harmailatik
21:30 Beranduegi t.v.
22:50 Harmailatik
23:35 Gipuzkoa Kultura

MARTITZENA, 7

12:30 Magazinea
13:30 Harmailatik
14:15 Kantari
14:45 Berriak
15:15 Beranduegi t.v.
15:36 Harmailatik
16:19 Onein
16:45 Berriak
17:15 Bizitegia
17:45 Harmailatik
18:30 28. Klip
18:54 Berriak
19:21 Kantari
19:48 Magazinea
20:48 Erreportajea: Arantzazu
21:18 Magazinea
22:50 Harmailatik
23:48 Gipuzkoa Kultura

EGUAZTENA, 8

12:20 Magazinea
13:20 Berbetan
13:50 Beranduegi t.v.
14:09 Kantari
14:44 Berriak
15:14 Gipuzkoa Kultura
15:44 Onein
16:12 Erreportajea: Arantzazu
16:52 Berriak
17:22 Bizitegia
17:49 Ikusmira: Arkeologi museoa
18:12 Harmailatik
18:55 Berriak
19:20 Kantari
19:45 Magazinea
20:45 Altxor txokoa: Miren Fernandez
21:19 Magazinea
22:19 Berbaz
23:19 Magazinea

EGUENA, 9

12:30 Magazinea
13:30 Hamaika.bit
13:55 Kantari
14:20 Bizitegia
14:45 Berriak
15:15 Onein
15:42 Berbaz
16:42 Berriak
17:12 Kantari
17:42 Berbetan
18:12 Harmailatik
18:09 Beranduegi t.v.
18:29 Ikusmira: Arkeologi museoa
18:54 Berriak
19:19 Kantari
19:44 Magazinea
20:44 Hamaika.bit
21:14 Magazinea
22:14 Gipuzkoa Kultura
22:44 Erreportajea: Arantzazu
23:24 Magazinea
00:24 Altxor txokoa: Miren Fernandez

ARRASATE IRRATIA

Ongizate Sailaren asmo eta lehentasunak

Aurtengo aurrekontua onartu ostean, Udaleko Gizarte Ongizate Sailak 2012. urterako dituen asmoen berri emango dute Arrasate Irratian. Amaia Larrañaga zinegotzia gonbidatu dute eguenerako. 10:30ean da hitzordua.

Kooltur Ostegunetarako sarrerak: Vomito

Vomito taldeak Arrasateko gaztetxean emango duen kontzerturako sarrerak zozkatuko dituzte eguenean. Parte hartzeko bi bide daude: irratia@goiena.com edo telefonoz deituta: 943 25 05 05. Eguenean bertan iragarriko dituzte irabazleak.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE

Zapatua, 4	ESPAÑOL MORALES	Araba Etorb., 14	943 79 18 65
Domeka, 5	FDEZ. CORCUERA	Aranbarri plaza, 1	943 79 22 26
Astelehena, 6	ETXEBERRIA	Zarugalde, 42, 44	943 77 16 30
Martitzena, 7	A. AZKOAGA	Ferrieras, 1	943 79 15 15
Eguaztena, 8	M.FCA. AZKOAGA	Iturriotz, 17	943 79 79 99
Eguena, 9	FDEZ. CORCUERA	Aranbarri plaza, 1	943 79 22 26
Egubakoitza, 10	IRIZAR	Erguin, 11	943 79 12 39

BERGARA

Zapatua, 4	ZABALA	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Domeka, 5	ZABALA	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Astelehena, 6	GUALLAR	San Antonio, 5	943 76 11 05
Martitzena, 7	ESTELLA	Matxiategi, 5	943 76 19 63
Eguaztena, 8	MOZOS	Iparragirre	943 76 12 15
Eguena, 9	URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza, 4	943 76 11 74
Egubakoitza, 10	ZABALA	Barrenkale, 25	943 76 16 87

OÑATI

Zapatua, 4	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Domeka, 5	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Astelehena, 6	ANDUAGA	San Lorenzo, 3	943 78 21 16
Martitzena, 7	ANDUAGA	San Lorenzo, 3	943 78 21 16
Eguaztena, 8	IGARTUA	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Eguena, 9	IGARTUA	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Egubakoitza, 10	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58


ARETXABALETA / ESKORRIATZA

Zapatua, 4	ANITUA	Belorrieta auzoa, 1 (Are.)	943 08 11 43
Domeka, 5	ANITUA	Belorrieta auzoa, 1 (Are.)	943 08 11 43
Astelehena, 6	FERNANDEZ	Gorosarri plaza, 1 (Esk.)	943 71 48 28
Martitzena, 7	FERNANDEZ	Gorosarri plaza, 1 (Esk.)	943 71 48 28
Eguaztena, 8	FERNANDEZ	Gorosarri plaza, 1 (Esk.)	943 71 48 28
Eguena, 9	FERNANDEZ	Gorosarri plaza, 1 (Esk.)	943 71 48 28
Egubakoitza, 10	FERNANDEZ	Gorosarri plaza, 1 (Esk.)	943 71 48 28

Farmazien eskuko telefonotarako 2011 egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 25600 zenbakira. Gehieneko kostua 1,9 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, Altitria TICek kudeatuta (www.althria.es).

EGURALDIA ASTEBURUAN

DEBAGOIENA



Max. 2°
Min. -6°



Max. 4°
Min. 0°


ZAPATUA, 4

Temperatura minimoek behara egin eta izotz handia egingo du. Arratsalderako, berriz, euria espero da, eta elur maila igotzea.

DOMEKA, 5

Temperaturek gora bidean segituko dute. Hala ere, ez da eguraldi atsegirik izango, euria egingo du-eta.

EUSKAL HERRIA



Zenbat eta mendebalderago orduan eta prezipitazio handiagoak izango dira, bereziki, zapatuan.

GAZTE INFORMAZIOA

BEKAK

ARGO: Praktikak atzerrian. Europako enpresetan iraupen ezberdinetako prestakuntza egonaldiak egiteko beka. Epea: martxoak 30

Stevenson. Eskozian ingelesa ikasteko beka eskaini dituzte. Izena emateko azkeneko eguna: otsailaren 10.

Ikerketa. Humanitate eta Arteetako Bogliasco beka. Unibertsitate mailako ikasleei zuzendutako dira, Genovan garatuko dira. Epea da apirilaren 15a.

LANA

Praktika ordainduak. GAZE, Gazte Ekintzaileen elkarteak, 5 lan-praktika eskaintzen ditu euren proiektu baten kolaboratzeko, otsailetik ekainera. lankidetzan@gmail.com.

IKASTAROK

Hastapeneko sukaldaritza. Arrasateko Udaleko Gazteria Sailak antolatuta. Otsailaren 22tik martxoaren 28ra, eguaztenetan 18:00etatik 20:00ak arte izango dira eskolak. Prezioa: 20 euro / 12 euro ikasle edo langabeentzat.

Begiraleak. Aste Santuan begirale ikastaro intentsiboa Leonen, Alquite elkartearik. Epea: plazak bukatu arte.

Begiraleak. Hezkide Eskolak antolatuta, adineko pertsonen begirale ikastaroa. Epea: otsailaren 17a.

LEHIAKETAK

Film laburrak. Euskaraz bizi nahi dut bideoen lehiaketa. Informazio gehiago: info@euskarazbizinahidut.org. Epea: martxoak 18.

INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO:

Arrasateko Gazte Bulegoa: Biteri etorbidea 3 | 943 25 20 65 | gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net
Oñatiko Gazteendako Informazio Gunea: Foruen plaza 4 | 943 71 82 57 | gazteinformazioa@oinati.net



HILDAKOAK

Jesus Egizabal Gallastegi. Bergaran, urtarrilaren 19an. 61 urte.
Marcelina Ormazabal Amezaga. Bergaran, urtarrilaren 19an. 83 urte.
Maria Padilla Bengoa. Bergaran, urtarrilaren 20an. 71 urte.
Dolores Errasti Leserri. Bergaran, urtarrilaren 20an.
Luisa Sagasta Agirre. Arrasaten, urtarrilaren 23an. 93 urte.
Estrella Babarro Babarro. Bergaran, urtarrilaren 26an. 95 urte.
Aureliana Rosario Aduna. Arrasaten, urtarrilaren 27an. 75 urte.
Gloria Carballo Garrido. Arrasaten, urtarrilaren 28an. 73 urte.
M. Luisa Iñurritegi Azkarate. Oñatin, urtarrilaren 28an. 90 urte.
Ramon Arzamendi Madinabertia. Bergaran, urtarrilaren 29an. 59 urte.

Andres Agirre Garitaonandia. Oñatin, urtarrilaren 29an.
Justa Larrañaga Arzamendi. Eskoriatzan, urtarrilaren 30ean. 90 urte.
Santa Abasolo Etxanobe. Eskoriatzan, urtarrilaren 30ean. 100 urte.
Generosa Arias Rodriguez. Bergaran, urtarrilaren 30ean. 87 urte.
Luis M. Uribetxebarria Zabaleta. Arrasaten, urtarrilaren 30ean.
Juan Ramon Berges Rocatalada. Bergaran, urtarrilaren 31n. 89 urte.
M. Begoña Imaz Egaña. Arrasaten, otsailaren 1ean. 84 urte.
Consuelo Ruiz Silleros. Bergaran, otsailaren 1ean. 86 urte.
Mercedes Dominguez Ribas. Bergaran, otsailaren 1ean. 86 urte.



Begoña eta Alfonso

Begoña Madariaga eta Alfonso Orobengoa bergararrak 1962ko urtarrilaren 25ean ezkondu ziren. Bihar, zapatua, ospatuko dituzte urrezko ezteiak familia guztiarekin batera. Hauen guztien partetik, "zorionak bikote!".

URTEURRENA

Alejandro
Anduaga Letamendi

Oñatin hil zen 2011ko urtarrilaren 31n, 90 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza zapatuan, otsailaren 4an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokiari ospatuko da.

Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zuretik eskerrik asko etxeko izenean.

ESKER ONA

Gloria
Carballo Garrido


Arrasaten hil zen 2012ko urtarrilaren 28an, 73 urte zituela.

Maite izan zenituenok maite zaitugu.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko familiaren izenean.

Arrasaten, 2012ko otsailaren 3an.

ESKER ONA

Luisa
Sagasta Agirre

Pedro Altunaren alarguna,
Olandixo baserrikoa



Arrasaten hil zen 2012ko urtarrilaren 23an, 93 urte zituela

Luisaren sendiak une berezi honetan gure saminarekin bat egin duzuen guztioi eskerrik beroenak eman nahi dizkizuegu.

Arrasaten, 2012ko otsailaren 3an.

OROIGARRIA

Luis M. Uribetxebarria
Zabaleta

'Eperra'



Gure ondokik joan zara,
baina betiko izango zaitugu
gure bihotzetan.

Zure ezkon anai-arrebak: Esther eta Fernando, Arantza eta Juan Ramon, Maixabel eta Pedro, Joxe Inazio (+). Eta zure ilobak: Betitxe eta Iñaki, Danel eta Izaskun, Haritz, Andoni eta Eva.

Arrasaten, 2012ko otsailaren 3an.

ESKER ONA

Luis M.
Uribetxebarria Zabaleta

'Eperra'




Arrasaten hil zen 2012ko urtarrilaren 30ean.

Lerro hauen bidez Luis Mariren sendiak eskerrak eman nahi dizkizuegu, bihotz-bihotzez, horrenbeste eratan maitasuna eta elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi.

Haren aldeko meza domekan, otsailaren 5ean, 11:00etan, San Juan Bataiatzailearen parrokiari ospatuko da.

Arrasaten, 2012ko otsailaren 3an.

ESKER ONA

Andres
Agirre Garitaonandia

Oñatin hil zen 2012ko urtarrilaren 29an.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkizuguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.

Oñatin, 2012ko otsailaren 3an.

**GOIENAN ESKELA JARTZEKO
DEITU EGUEN EGUERDIA BAINO LEHEN: 943 25 05 05.
EDO ZATOZ ORDEZKARITZA BATERA.**

ARRASATE

Goiena: Otalora lizentziaduna 31.
943 25 05 05.

BERGARA

Jardun elkarte: Errotalde jauregia
(kultura etxean).
943 76 08 19.

OÑATI

Biklon publizitate agentzia: Olakua 9.
943 78 10 65.

ARETXABALETA

Goiena: Durana 11.
943 79 86 21.

edo: Basabe poligonoa E05.
943 25 05 05.

ARAMAIO

Kintelena janaridenda: Nardeaga 11.
945 44 50 22.

ELGETA

Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2.
943 76 80 98.

ANTZUOLA:

Itzar liburu denda: Kalebarren 1.
943 76 60 62.

Eskelaren prezioa: 126 euro.
Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 168 euro.
Goiena: astero, 34.000 irakurle (CIES) Gipuzkoan.

ARRASATE Twin Tones

2002an Mexikon sortutako taldea da Twin Tones. Western filmetako giroa irudikaten duen musika egiten dute. Besteak beste, rock eta western swing musika motak nahasten ditu Mexikoko taldeak. Amaia antzokiko sarreran eskainiko dute kontzertua. 5 euroren truke eskura daitezke sarre-rak.

Egubakoitza, Amaia antzokian, 20:00etan.



GOIENA



IRATI GOITIA

OÑATI Poesia emanaldia eta te dastatzea

Kukutzaren aldeko astea egiten dabilta Oñatin egunotan. Horren barruan, gaur, egubakoitza, poesia emanaldia eta te dastatzea egingo dute. Bihar, bestalde, bazkari herrikoia egingo dute kiroldegiko pilotalekuan.

Gaur, Arrano tabernan 22:00etan.

MUSIKA**ARRASATE Twin Tones Mexikoko taldea Amaian**

Mexikoko taldeak kontzertua eskainiko du Amaia antzokiko hall-ean.

Otsailaren 3a, egubakoitza, Amaia antzokiko hall-ean, 20:00etan.

ESKORIATZA Freedom boys taldearen kontzertua

Eskoriatzako taldeak kontzertua eskainiko du Inkernu tabernan.

Otsailaren 3a, egubakoitza, Inkernu tabernan, 22:30etan.

ARRASATE 'Zast!' kontakizun musikatua

Aretxabaletan estreinatu ostean Arrasateko gaztetxean egingo du hurrengo geldialdia *Zast!* helduendako kontakizun musikatuak. Ipuinetatik abiatuta hainbat eratako testuak irakurriko dituzte. Besteak beste, heriotza, gai erotik-pornografikoa, ume lapurtuen auzia... izango dute berbagai.

Otsailaren 4a, zapatua, Arrasate gaztetxean, 18:00etan.

BERGARA Dj jaialdia Zabalotegin

Bergarako Zabalotegi aretoan DJ jaialdia Umbertorekin.

Otsailaren 4a, zapatua, Zabalotegi aretoan, 18:30etan.

OÑATI Kukutzaren aldeko kontzertua

Los fenomenos de la naturaleza eta Skasti taldeek egingo dute emanaldia gaztelekuan, otsailaren 4an, 22:00etan.

Otsailaren 4a, zapatua, Gaztelekuan, 22:00etan

ANTZERKIA**OÑATI 'Munstroak' antzezlana**

Zuazola Institutuko aretoan antzeztuko dute, gaur, otsailak 3, 18:30etan.

Otsailaren 3a, egubakoitza, Zuazola institutuan, 18:30etan.

ARETXABALETA 'Pirata Garrapataren istorioak' ikuskizuna

Pirata Garrapataren istorioak ikuskizuna izango dute Udal liburutegian 3 urtetik aurrerako neska-mutikoek.

Otsailaren 4a, zapatua, Udal liburutegian, 11:30etan.

NON-ZER

Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.

Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxe: 943 25 05 13

OTSAILAK 3
OTSAILA 9

IKUSKIZUNAK**OÑATI Zirko emanaldia herriko plazan**

Eguraldi ona egiten badu, herriko plazan egingo dute, eta bestela Santa Ana antzokian. Otsailaren 4an, 18:30etan.

Otsailaren 4a, zapatua, Herriko plazan, 18:30etan.

DANTZA**BERGARA Herrixa dantzan**

Herrixa dantzan saioa egingo dute domekan Zabalotegin. Sarre-ra doan izango da. 18:00etan haur eta gurasoei zuzendutako dantzak egingo dituzte; eta, 19:00etatik aurrera helduendako dantzak.

Otsailaren 5a, domeka, Zabalotegi aretoan, 18:00etan.

JAIK**ELGETA San Blasak, Arantzetan**

10:00etatik 14:00etara, salda eta txorizoa Zezeaga baserriaren

eskutik. 13:00etan, meza San Blas ermitan
Otsailaren 5a, domeka, Arantzeta auzoan, 10:00etan.

OSPAKIZUNAK**ARETXABALETA San Blas eguna**

Apotzagaetxebarri auzoko Salluente ermitan San Blas eguna ospatuko dute. Meza 10:30ean izango da eta ondoren jakien bedeinkapena. Parrokian ere esango dute meza eta jakiak bedeinkatu iluntzean, 19:00etan.

Otsailaren 3a, egubakoitza, Apotzagaetxebarri auzoan, 10:30etan.

ARETXABALETA Santa Ageda neska-mutilak eskean

Aurtengo kintoak lantegi, denda eta ikastetxeetara joango dira kantuan eta eskean ohi baino egun bat lehenago, Santa Ageda bezpera eta eguna aste bukaeran tokatu direlako. Etxeetara, ostera, betiko legez, Santa Ageda egunean joango dira.

Otsailaren 3a, egubakoitza, Herriko kaleetan 10:00etan.

OÑATI Poesia erreztaldia eta te dastatzea

Arrano tabernan egingo dute Kukutzaren aldeko barruan. Otsailaren 3a, egubakoitza, Arrano tabernan, 22:00etan.

ANTZUOLA Santa Ageda eta San Blas jaiak

San Blas egunaren ospakizuna Basaldeko San Blas ermitan egingo dute, jai giroan. Santa Ageda eguna, berriz, domekan ospatuko da, hilaren 5ean. Ospakizunei, ekingo diote txistularien dianak, 10:00etan. Galartza auzoko ermitan, 11:45ean, kanpai hotsa eta suziriak izango dira. 12:30ean, meza eta 13:00etan salda, ardoa eta pintxoak, soinu eta panderoaren laguntzaz. Bezperan, kintoak arituko dira Santa eskean baserri baserri eta auzoz auzo.

Otsailaren 4a, zapatua, 10:00etan.

ESKORIATZA Santa Ageda neska-mutilak

Santa Ageda neska-mutilak baserri baserri ibiliko dira koplak abesten.

Otsailaren 4a, zapatua, auzoetan, 9:00etan.

BERGARA Santa Ageda bezpera

Santa Ageda eskean eta kantuan ibiliko dira herritarrak.

Otsailaren 4a, zapatua, Herriko kaleetan goizean zehar.

ARETXABALETA Santa Ageda bezpera

Santa Ageda neska-mutilak baserri baserri joango dira kantuan eta eskean.

Otsailaren 4a, zapatua, auzoetan 8:00etan.

OÑATI Jaialdia herriko plazan

Rokodromoa, zirkuari buruzko tailerra eta grafitiak egingo dituzte, otsailaren 4an, 11:00etan.

Otsailaren 4a, zapatua, plazan, 11:00etan.

LEINTZ GATZAGA Santa Ageda kantuan

Herriko umeak eta gurasoak kantuan ibiliko dira Santa Ageda bezperan. Gero merienda izango dute Toki Ederren.

Otsailaren 4a, zapatua, Herriko kaleetan, 18:00etan.

ESKORIATZA Santa Ageda eguna

Santa Ageda neska-mutilak dantza egingo dute plazan.

Otsailaren 5a, domeka, Herriko plazan, 19:00etan.

ARETXABALETA Santa Ageda eguneko ekitaldiak

Santa Ageda neska-mutilak kalean jardungo dute kantuan eta eskean. Ilunkaran dantzan egingo dute Herriko plazan.

Otsailaren 5a, domeka, Herriko plazan, 19:00etan.

IKUS-ENTZUNEZKOAK**BERGARA 'Radio Favela' filmaren emanaldia**

Bergarako gaztetxeko zineklubaren itzulerako lehen filma. Hemen-dik aurrera bi astean behin jarriko dira filmak eta edozeinek parte har dezake antolatzen, horretarako ostiraletako asanbladara agertu beharko da.

Otsailaren 5a, domeka, Bergarako gaztetxean, 18:00etan.

BERTSOLARITZA**LEINTZ GATZAGA Bertso afaria**

Sebastian Lizaso eta Iker Zubeldia bertsolariak lagun dituztela



PATXI GARATE

BERGARA Margo erakusketa

Patxi Garate margolariak erakusketa zabalduko du gaur Aroztegin. Hilaren 19ra arte egongo dira lanak ikusgai. Bi margolan mota erakutsiko ditu: paperean egindakoak eta olioak. 30 bat margolan jarriko ditu. Gaurko irekiera berezia izango dela gaineratu du Garatek.

Gaur, Aroztegi aretoan, 18:00etan.



JULIO CALLEJA

ARRASATE 'Zast!' kontakizun musikatua

Aretxabaletan egin zuten lehenengo emanaldia eta bihar, zapatua, Arrasaten eskainiko dute kontakizun musikatua. Ipuinak eta beste hainbat kontakizun eskainiko dituzte, musikak lagunduta. Bihar, gaztetxean, 18:00etan.

afaria egingo dute Soran etxean. Korrika batzordeak antolatuta. Otsailaren 3a, egubakoitza, Soran etxean, 21:30ean.

ERAKUSKETAK**BERGARA Patxi Garateren lanak**

Patxi Garatek margolanak ikusgai jarriko ditu Aroztegin, gaur hasi eta otsailaren 19ra arte. Ordutegia: martitzenetik egubakoitzera, 18:00etatik 20:30era; zapatutan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta, domeketan 12:00etatik 14:00etara. Otsailaren 3a, egubakoitza, Aroztegi aretoan, 18:00etan.

ARETXABALETA 'Hondakin gutxiago, ongizate gehiago' erakusketa

Otsailaren 6tik 12ra bitartean hondakinen gaineko erakusketa izango da Arkupen. Otsailaren 6a, astelehena, Arkupeko erakusketa aretoan, 11:00etan.

IRTEERA**ELGETA Bisita gidatua lubakietara**

Otsaileko lehenengo bisita. Euskaraz. Ezinbestekoa aurrez izena ematea. Otsailaren 5a, domeka, Espaloia kafe antzokitik, 10:00etan.

HITZALDIK**OÑATI Etxeko ospitalizazioa Debagoieneko ESiren Osasun Ikasgela**

Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuak (ospitalea eta herrietako osasun zentroak batzen dituena) *Etxeko Ospitalizazioa* gaia aztertuko du. Julio Sandoval, Etxeko Ospitalizazioa Zerbitzuko buruak zerbitzuaren informazioa emango die interesa duten herritar guztiei. Otsailaren 7a, martitzena, Zine aretoan, Kultura Etxean 19:00etan.

BESTELAKOAK**ELGETA Kantsatzeko mendi taldearen bilera**

Elkartea egituratzeko lanak egingo dituzte. Otsailaren 7a, martitzena, Udal liburutegian, 20:00etan.

OÑATI 'Erlaxazio teknikak familian' tailerra

Elkar Hezi ikastetxeak tailerra egingo du otsailaren 7an, 18:30etik 20:00etara arte. Otsailaren 7a, martitzena, Elkar Hezi ikastetxean, 18:30ean.

ZINEMA**ANTZUOLA 'Aupa Etxebeste' filma**

Gaztetxokoan, otsailaren 4an eta 5ean *Aupa Etxebeste* euskarazko filma ikusteko aukera izango da. Otsailaren 4a eta 5a, zapatua eta domeka, Gaztetxokoan, 17:30ean.

ARRASATE '3 metros sobre el cielo' filma

San Andreseko gaztetxokoko gazteek film emanaldiak antolatu dituzte auzoko gazteentzat. Martitzenetan film bat botako dute San Andreseko gaztetxokoko zine txoko berrian. Otsailaren 7a, martitzena, San Andreseko gaztetxokoan, 17:45ean.

DEIA**ARETXABALETA Odol ateratzea**

Arabako odol bankuko kideak odola ateratzera etorriko dira osasun etxera. Azken saioa izango da. Otsailaren 6a, astelehena, Osasun etxean, 16:30ean.

ARRASATE Odol ateratzea

Beharra dagoela eta deialdia egin dute. Otsailaren 7an eta 8an, eguaztena eta eguena, Osasun zentroan, 16:30ean.

LEHIAKETAK**OÑATI Gaztelekuko III. bertso paper lehiaketa**

Gaztelekuan egingo dute kukutza astean barruan bertso paper lehiaketa. Ikastetxeetako gazteei zuzenduta dago. Otsailaren 3a, egubakoitza, Gaztelekuan, 18:00etan.

ZINEMA**ARRASATE****AMAIA ANTZOKIA**

El topo
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

El gato con botas 3D

Zapatua eta domeka: 17:00.

Restless

Martitzena: 20:30.

BERGARA**ZABALOTEGI**

Bienvenidos al sur
Eguaztena: 20:30.

OÑATI**KULTURA ETXEA**

Sherlock Holmes
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.

Alvin y las ardillas

Zapatuan eta domekan: 17:00.

ARETXABALETA**ARKUPE**

Fuga de cerebros 2
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.

Kika superbruja 2

Zapatua eta domeka: 17:00.

EIBAR**COLISEO 1**

Another year
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

COLISEO 2

Maktub
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

COLISEO ANTZOKIA

J. Edgar
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30

Winx Club 3D

Zapatua eta domeka: 17:00.

GASTEIZ**GURIDI**

Los Descendientes
Egubakoitzik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

Alvin y las ardillas 3

Zapatu eta domeketan: 17:00.

Le have

Egubakoitzean: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatu eta domeketan: 18:50, 20:30, 22:30.

Jack y su gemela

Egubakoitzean: 18:00.
Zapatu eta domeketan: 17:00, 18:45.
Astelehenetik eguenera: 18:00

El monje

Egubakoitzean: 20:00, 22:30.
Zapatu eta domeketan: 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 20:00, 22:30

Promocion fantasma

Egubakoitzean: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatu eta domeketan: 17:00, 18:45, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

Arrugas

Egubakoitzetik eguenera: 17:30.

Bajo amenaza

Egubakoitzetik eguenera: 20:00, 22:30.
Zapatu eta domeketan: 17:30, 20:00, 22:30.

Sherlock Holmes: juego de sombra

Egubakoitzetik eguenera: 20:00.

Underworld: el despertar

Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 22:30.

Los Muppets

Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

FLORIDA

Katmandu, un espejo en el cielo
Egubakoitzetik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30

La dama de hierro

Egubakoitzetik eguenera: 18:00, 22:30.

Silencio en la nieve
Egubakoitzetik eguenera: 20:15.

Millennium: los hombres que no amaban a las mujeres
Egubakoitzetik eguenera: 17:45.

El topo
Egubakoitzetik eguenera: 20:00.

Moneyball, rompiendo las normas
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

J. Edgar
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

The artist
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30

La fuente de las mujeres
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

GORBEIA

Katmandu
Egubakoitzetik eguenera: 18:10, 20:20, 22:30.
Zapatu eta domeketan, baita: 16:00.

Los Muppets
Egubakoitzetik eguenera: 18:10, 20:20, 22:30.
Zapatu eta domeketan, baita: 17:30.

Promocion fantasma
Egubakoitzetik eguenera: 18:00, 20:00, 22:00.
Zapatu eta domeketan, baita: 16:00.
Egubakoitza eta zapatutan, baita: 0:00.

Star War I 3D

Egubakoitzetik eguenera: 22:00.

J. Edgar
Egubakoitzetik eguenera: 18:30, 21:30.
Zapatu eta domeketan, baita: 15:45.

Underworld: el despertar
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 19:30, 21:30.
Zapatu eta domeketan, baita: 15:30.

Underworld: el despertar
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 19:30, 21:30.
Zapatu eta domeketan, baita: 15:30.

Underworld: el despertar 3D
Egubakoitzetik eguenera: 18:30, 20:30, 22:30.
Zapatu eta domeketan, baita: 15:30.

Bajo amenaza
Egubakoitzetik eguenera: 18:10, 20:10, 22:10.
Egubakoitza eta zapatutan, baita: 0:10.

Los descendientes
Egubakoitzetik eguenera: 18:30, 20:15, 22:30.
Zapatu eta domeketan, baita: 15:45.

Jack y su gemela
Egubakoitzetik eguenera: 18:20, 20:25, 22:30.
Zapatu eta domeketan, baita: 16:15.

El monje
Egubakoitzetik eguenera: 22:40.
Egubakoitza eta zapatutan, baita: 0:40.

La dama de hierro
Egubakoitzetik eguenera: 19:50, 22:00.
Egubakoitza eta zapatutan, baita: 0:10.

Millennium 1
Egubakoitzetik eguenera: 19:30.

Sherlock Holmes 2

Egubakoitzetik eguenera: 18:45, 21:30.
Zapatu eta domeketan, baita: 16:00.

Mision imposible 4
Egubakoitzetik eguenera: 22:30.

Drive
Egubakoitzetik eguenera: 18:15, 20:20, 22:25.

No habra paz para...
Egubakoitzetik eguenera: 22:15.

Criadas y señoras
Egubakoitzetik eguenera: 20:00.

Blackthorn
Egubakoitza eta zapatutan: 0:35.

La piel que habito
Egubakoitza eta zapatutan: 0:30.

Silencio en la nieve
Zapatu eta domeketan: 16:00.

Arthur Christmas
Egubakoitzetik eguenera: 17:30.
Zapatu eta domeketan, baita: 15:30.

Alvin y las ardillas 3
Egubakoitzetik eguenera: 18:00.
Zapatu eta domeketan, baita: 16:00.

El gato con botas
Egubakoitzetik eguenera: 18:15.
Zapatu eta domeketan, baita: 16:15.

Happy feet 2
Zapatu eta domeketan: 16:10.

BOULEVARD

J. Edgar
Egubakoitzetik eguaztena: 16:15, 19:15, 22:00, 0:45.

Promocion fantasma

Egubakoitzetik eguaztena: 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 0:30.

El gato con botas
Egubakoitzetik eguaztena: 16:05, 18:05.

Underworld: el despertar
Egubakoitzetik eguaztena: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 0:30.

Mision imposible: protocolo fantasma
Egubakoitzetik eguaztena: 17:00, 19:30, 22:10.

Jack y su gemela
Egubakoitzetik eguaztena: 16:05, 18:10, 20:20, 22:30, 0:40.

Los muppets
Egubakoitzetik eguaztena: 15:50, 18:05, 20:20, 22:35.

Underworld: el despertador
Egubakoitzetik eguaztena: 16:00, 18:00, 20:00, 22:00.

Los descendientes
Egubakoitzetik eguaztena: 16:00, 18:10, 20:25, 22:40, 1:00

Sherlock Holmes: juego de sombras
Egubakoitzetik eguaztena: 16:30, 19:00, 22:00, 0:35.

Bajo amenaza
Egubakoitzetik eguaztena: 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 0:30.

Alvin y las ardillas 3
Egubakoitzetik eguaztena: 17:00, 19:00.

Millennium: los hombres que no amaban a las mujeres
Egubakoitzetik eguaztena: 22:00.

Sherlock Holmes: juego de sombras
Egubakoitzetik eguaztena: 16:30, 19:00, 22:00, 0:35.

KRITIKA**LOS DESCENDIENTES ★★★★★**

Zuzendaria: Alexander Paine.

Herraldea: AEB.

Urtea: 2011.

Aktoreak: George Clooney, Judy Greer, Shailene Woodluy.

Iraupena: 110 minutu.

Drama argitsua

Duela aste batzuk *El topo* filmeari buruz idazterakoan aipatzen genuen zein garrantzitsua den istorio bat kontzertzerako honi erritmo egoki bat ematea. Horrek ez du esan nahi eritmo hori azkarra izan behar denik. Film bakoitzak, hala askotan gertatzen ez bada ere, bere arnasa eta bihotz taupadak izan behar ditu; hau da, bere kadentzia eta eritmo barnekoia, ondo adierazteko ikusleari istorioaren eta pertsonaien ezaugarriak. Idatzitako guztia *Los descendientes*-en ezin hobeto betetzen da.

Los descendientes-ek duen kontaktze-jariokortasuna benetan harrigarria da. Filmaren argumentua kontuan izanik argi

dago istorioa batez ere dramatikoa dela. Baina horrela izanda, komedia ere filmaren izaeran dago. Hau da, ez dago zatituta momentu komiko eta momentu dramatikoa biak itsatsiak doaz osotasun bat sortuaz. Eta hori filmaren hasieratik bukareraino ematen da. Eszena berean irrifarrea eta zirrara sortzen da eta honekin lortzen dena argiaz beteriko drama bat da. Modu honetan *Los descendientes* bizitzaren eta gizakien izaera, gure portaera kontraesankor eta gure sentimenduen nahastearekin. Pertsonaiak oso hurbilak egiten zaizkigu, horien sentimendua helduz, ez daude pertsonaiak onak eta txarrak, zakarrak ematen dutenek

badute bere alde samurra, esate baterako, Clooneyek egiten duen pertsonaiaren aitagarria, baita pertsonaia batek beste batengan amodio eta gorroto sentimendua sentitu dezake, adibidez, engainatua izan den emakumea ospitalean duen eszena. Paynek maitasuna eta ulermena adierazten du istorioaren pertsonaiengan eta gu ere horrela sentitzea lortzen du.

Azkenean Alexander Paynek aktore guztien lan zoragarriaren laguntzarekin, bizitzaren, heriotzaren eta gizakion izaeraren esentzia eramaten gaitu argiz beteriko drama hunkigarri honekin.

ANTONIO ZABALA



goiena

2012-02-03

HARPIDETZA: ARETXABALETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

BUKATZEKO

Nikolai eta Jacken ahots arrasatearrak

- ▶ Jon Zubiaga eta Aner Narbaez arrasatearrek 'Anarchy Reigns' bideojokoa bikoiztu dute gaztelaniara
- ▶ Biek pertsonaia bat baino gehiago bikoiztu dute; tartean, mertzenario errusiarra eta protagonista bera

ARRITXU BARRUSO | ARRASATE

Aner Narbaezi mundua salbatzea tokatu zaio oraingo honetan, baina lan horretan, besteak beste, Jon Zubiaga, mertzenarioa, izango du aurrez aurre. Narbaez Jack da eta Zubiaga Nikolai; bi arrasatearrek *Anarchy Reigns* bideojoko arrakastatsua bikoiztu dute gaztelaniara. "Kuriosoan izan zen, bikoiztu beharreko pertsonaien zerrenda eman zidatenean ikusi nuen Jon Zubiagak Nikolaiaren pertsonaia egin behar zuela, eta berehala deitu nion telefonoz. Bideojoko batean elkarrekin parte hartzen dugun lehenengo aldia izan da", kontatu digu Aner Narbaezek. Bakoitzak pertsonaia bat baino gehiago bikoiztu du *Anarchy Reigns*-en. Oso pozik daude, arte martzialak eta robotak batzen dituen bideojoko japoniarra Sega etxe indartsuarena delako.

Lan dibertigarria

Duela hiru urte bikoiztaile ikastaroa egin zuten elkarrekin eta ordutik hona makina bat lan egin dute. Batzuetan tentsio handiko lana den arren, oso dibertigarria dela kontatu digu Zubiagak: "Oso azkar doa dena eta ez daukagu testuak prestatzeko denborarik. Hori da, beharbada, txarrena,



Jon Zubiaga eta Aner Narbaez, bikoiztutako pertsonaien ondoan. | OIHANE ISASI



baina, bestela, oso ondo pasatzen dugu. Onena emaitza ikustea izaten da. Horrelako pertsonaia bat ikusi eta norberaren ahotsa entzutea kurioso da". Nikolai bikoizteko, adibidez, tipo gogor bilakatu eta errusiar azentua ipini behar izan du Zubiagak.

Etorbizuna bideojokoetan

Narbaezek filmak, dokumentalak eta marrazki bizidunak ere bikoiztu izan ditu, eta baita lauzpabost bideojoko ere. Kontatu digu, hain justu, alor horretan dagoela orain lan gehien: "Zinemaren munduan kalte asko eragin ditu pirateriak, baina hori ez da bideojokoaren kasua. Internetetik jaitsitako jokoek arazo asko ematen dituzte oraindik, eta jendeak nahiago du originala erosi. Nik uste dut bikoiztaileondako lan handia dagoela

mundu horretan; uste dut hor dagoela etorkizuna".

AEBetan sekulako arrakasta lortu du *Max Anarchy*-k - han daukan izena-, eta, borroka oinarri duten bideojokoei dagokienez, perspektiba berria azaltzen duela diote adituek.

Gaztelaniatzko bertsioa hil honetan kaleratu dute; beraz, arte martzialen eta bideojokoaren zaleek dagoeneko badute Arrasateko Jacken eta Nikolaiaren ahotsekin borroka egiteko aukera.

AZKEN BERBA

AGURNE BARRUSO



Zutabea estreinatuz

Badira urte batzuk Goienan zutabeak idazteari utzi niola; esango nuke Goienan ez dudala inoiz idatzi, garai hartan *Berrigara* argitaratzen baitzen ostiraletan. Pasa dira urte batzuk, bai.

Orain, nire lana txukun antzean egiten badut, hilean behin aurkituko dituzu ostiraletako *Goiena*-n nire burutazioak. Ideiaren batekin lagundu nahi banauzu, etorri lasai.

Oraingoan azpiegitura handien inguruan ibarrean aste hauetan entzun ditudanekin nator. Udaletako osoko bilkuretan munstro hauen aurkako mozioak aztertu eta onartu dira. Ez, ordea, zenbaitzen kezarik gabe. Dirua xahutzea, ingurumena hondatzea eta gure etorkizuna hipotekatzea "progresoa" omen. Ingurumena zaintzea, lanpostuak sortzea, ahalik eta gehien birziklatzea eta etorkizunari erantzukizunez begiratzea, atzerapausoa.

Eskerrak baden eta ibarrean ere hedatzen ari den bestelako pentsamoldea eta jendea antolatzen ari den azpiegitura erraldioen aurka eta jendarte eredu aldatzearan alde. Larunbatean manifa dago Donostian, bestelako Gipuzkoa posible dela aldarrikatzeko. Herrialdeko zenbait eragile ekologistek deituta. Bertan izan beharko ginateteke.

LORAMENDI

INTERSPORT

Arrasate



Aurki gaitzazu Facebooken
facebook.com/intersport.loramendi



deskontuak

5

%